

EUSEBIO ERKIAGA

Jaioko dira

ELEBARRIA



SUTONDOAN

SUTONDOAN deritxon bilduma honetan, Bizkaiak Euskalerrari eskeini deutzazan literatur-eredurik ederrenetarikoak agertu gura dira.

Batez ere hizlaurkoak dira bilduma barruan agertzen diranak, oraingoz behintzat, eta jenero mueta ezbardinetakoak: elebarri, ipuin, izparkintza, eta abar.

Obrak aspaldikoak, edo gudu aurrekoak behintzat, diran kasuetan, idatzi zireaneko moduan azaldu beharrean, gaurko euskerara egokitu dira. Baina oraintsukoak edo gaur-gaurkoak diranetan ez da egin holakorik: idatziriko modu-moduan emon dira. Oraingo elebarri honetan jazoten dan lez: Eusebio Erkiagaren eskutik jatorkun eta egin-ara dagoan elebarrria.

Horrez gainera, beste berezitasun garrantzitsu bat dabe argitalkizunok: lan bakotxak, sarrera modura, aurkez-lan edo ikerlan bat daroa, batzuetan luze-sakona, beste batzuetan laburragoa. Oraingoan, Lino Akesolo izan da, gure anaiarteko gerratea ur-urretik bizi izan ebana, aurkezpena egiteko ardua hartu dauana: bertan azaltzen dira obrearen balioak eta berezitasunak.

SUTONDOAN bildumako obrak aukeratu, atondu eta aurkeztlanak egitea Labayru Ikastegiko Hizkuntza Mintegiaren ardurapean izan da, eta Bizkaiko Aurrezki Kutxaren laguntzari eskerak atera ahal izan da bilduma hau.

JAIOKO DIRA
Eusebio Erkiaga

EUSEBIO ERKIAGA

Jaioko dira



LABAYRU IKASTEGIA



SARRERA

BIZKAIKO IDAZLE ANDI BATEN OPARI BARRIA

Lino Akesolo

Eusebio Erkiaga jaunak ez dau gure artean aurkesteko inoren bearrik. Gaurko idazleen artean goi-maillakotzat dagoala edozeinek daki. Gazte gazterik asi zan gure literaturako arloetan sartu eta gailurrak jotzen. Ogetamaseiko gerratea baiño lenagotik asita, gero ta izen ederragoa irabazi dau ainbat elerti-sailletan. Olerkaritza, antzerkia eta elebarria landu ditu eta, gerratik arako ixillaldia kendu ezke-ro, eten barik jarraitu dau lan eder baliozkorik emoten. Euron balioa askotan irabazi dituen sariak naiko argi autortzen dabe.

Bear bada inor gitxik dakian lana egin dau gazetalaritzan be. Bizkaiko Bankuetxetik lan ixilla, urtez urte euskerazko aldizkari txukuna ateratea ez da, ez, gauza utsa izan. Norentzako zan? Ameriketean zear, goitik beraiño, sakabanaturik bizi ziran euskaldunentzat. Gerrateak sakabanatuago egin zituen euskaldun askorentzat euren erritik joakien agurrik eta eskupekorik atsegingarriena zala esan bearrik ez. Eta dana, Erkiaga idazlearen neke ta izerdiai esker.

Lekeitiar argi au, osasunik dauan bitartean, ez da euskal-lanik egin barik egotekoa. Eta gaur be, ona non jatorkun beste lan eta opari ederra eskuetarutzen: elebarri mardula, idatzi dituenetan boskarrena, irakurleak eskuetan daukana. Laugarrena oindio argitara bage dauko.

Gaurko onetan 1936tik 1939a bitarteko gerratean sartzen gaitu. Militarrak gure erriaren jabe eginda gelditzeak ekarritako bizi-giroaren ispilu izan gura dau. Eta aldi atako gerrate orrek gaia emon deutesen euskal-idazleen artean, joera barriaz dator Erkiaga: arlo onetan bide-urratzaille jatorku bera. Ikuspegi barri batetik begitu deutso orduko aldiari. Urte orreitan Francoren aginte gogorrak azpian artu zituen errietako bizi-giroa, zapalkuntzea eta geienen bizi-eziña aurkes-tu gura deuskuz emen. Orainarte euskal-idazleak egin ez dabena.

Ogeta amaseiko gerrate ori ez da gure idazleai gairik emon bakoa. Ez deutsoe gitxik eldu gai orri, baiña bakotxak bere aldetik; edo bakotxa berari jazorikoen barri emoten alegindu da: olerkariak erostari Euskalerriaren ondamendiari illetak joteko, edo Gudarien egiñak

bertsotan biribilduta emoteko, edo erbesteratuen ara onako ibillerak gogoratzeko, edo gerratean bakotzak ikusitakoen barri emon edo ta zapaltzailleen ankerkeriak ezindu ta itxusteko. Geien baten, jazo diran zoritxarrak erbestetik, urriñetik ikusita, eralgi deuskuez. Izan be, onango liburua, geienak, atzerrian idatziak dira. Badira gerratea oso urretik ikusirikoak. Euskalerrian eta Euskalerritik kanpo guda-lekurik gudaleku, edo langille-sailletan sartuta ibilli dira, eta eurai jazorikorik zeatz meatz emon deuskue... Baiña, erri osoaren arazoan aitamenik egin barik, edo guztiz gitxi eginda.

... ..

Olango idazleen lanari begiradaxoa emon deiogun. Olerkarien artean, gorengo mailla baten, or dira Salbatore Mitxelena eta Eltzegor (Agustin Atutxa) ziranen poemak. Azkenengo au Bizkaiko semea, eta bere begiralekutzat Mugarrako atxa artu ebana. Biak, Mitxelena ta Atutxak, bakotzak bere doiñuaz, sakon eta garratz abestu dabe gure erriaren Kalbarioa. Bion bertsoai illeta-soiñu mingarriena darie, urte areitako gauaren balza adierazoteko, baiña urriñean egunsenti pozgarriaren itxaropena sortu guran. Monzon Olasok bertsolarien doiñuetara jo eban, bere aldeko Gudarien Egiñak bero berorik jasoteko. Bertsolari-maillako beste idazle batzuk ez dira motel ibilli are-rioen ankerkeria irrigaitzozko bertsotan azaltzen edo euren etxeko maiteai jazoriko zoritxarrak esaten. Orra Errenderiko Zapiraindarrak, eta Bizkaiko Jel-Orde ezizenduna, Leizaolak ezaguerazo deuskuez.

Bertsoan barik, itz-lauz idatzi dauanik be bada, bat baiño geiago. Seber Altube zanaren *Laztantxu eta Betargi*, laburra dala, oso biotzurragarria da benetan. Bizi bai bizi ikusten doguz or armadunen atzetik lenengo egunetan etorren bildur-giroa, eta famili batekoak ikusiko ebezan larri eta estukurak.

Ekaitzpean J. Eizagirre zanaren elebarria, asi Euskalerrian *gudaotsak* entzun ziran egunetan asten bada be, gudaotsik gitxi entzuniko batek egiña dala emoten dau. Erbestean, eta aria dana bere buruz asmaua dala dirudi. Beste euskal-liburu bat, zati andi baten gerrateko giroan bururatua, «Orixe» zanaren *Kiton Arrebarekin dogu, Euzko-Gogoa* aldizkarian argitaratua, liburutan oindio agertu ezpada be.

Sabin Irizarrek naiko egoki eta txukun emon euskuzan atzerrietara bialduak izan ziran ume batzuen ibillerak, bere *Zingo* liburuan. Castresanak erderaz egin ebana Irizar onek euskeraz egin deusku.

Biak, orduan ume ziranak, gero, bakotxa bere maillan, idazle trebe agertu izan dira.

Alde batean naiz bestean, edo bietan, gudalekuetan naiz presoak osaturiko lan-taldeetan ibilliak be, ekarri izan dabe euren oparirik euskal-literaturara. Sebastian Salaberria bertsolaria 1964n Agora saria irabazitako liburuagaz agertu zan plazara. Tituluak berak ondo salatzen dau anai baten kezkatxo: Francoren aldean armetan ibillia izanik bera, anaia bestean aldean zaurituta ankamotz aurkitzen dauanean, anai ori berak zauritua ez ete zan izango. *Auspoa* saillean 38garren agertutako tomoa da.

Luzeago, *Auspoa* sailleko iru tomotan (148-150) azaldu euskuzan L. Alkain bertsolari zanak bere *gerrateko ibillerak*. Gerrateko barri arrigarri ez ustekoz beteriko liburua da.

Auspoa sail berean agertu da *Txantxangorri kantaria*, famili baten barrura zorigaiztoko gerrateko egun baltz askotan murgiltzen gaituan liburua. Ataño ezizenpean Errenderiko Zapiraindar bat ei dogu idazlea. Euskeraz idazteko ugarrrik bako lumearen jabe dan baten liburua dala esan bearra dago.

Beste bertsolari batek be, gerrate osoa emon eban baterik bestera: Patxi Lazkano bera. Berak ikusitakoen barri, *Tiro tartean bertsotan* izendun liburuan emon deusku, bai bertsoz eta bai itz-lauz.

Azken baten, Ondarruko seme argia, Zubikarai idazle ugaria etorri jaku, au be gerrateko eta gerrate ondoko bere ara ona, lan eta ibillerak eralgi ta esaten. Dana, berak oi dauan bizitasun eta maisutasunaz.

Ez dago, ba, ukatzerik; naiko argi dago, gure anai-gerratea ez dala izan gure literaturan lorratzik itxi bakoia. Baiña orain artean aitaturiko idazleok bakotxak bere ikuspegitik begitu deutso gerrateari edo gerratearen ondorenai. Poema andienen egilleak kendu ezkerio, bakotxa berari jazorikoak edo beretarren poz edo ezbearrak aldarrikatzen alegindu da. Eta armaotsetatik urregi dabilz. Idazleak erribarruko egoerea eta errian dabillen burrukea baiño geiago guda-oiñetako gogoanago dabela idatzi dabe. Erribarruko egoerea ta giroa, olan, urrintxo gelditzen jakuz.

... ..

Eta ona non jatorkun gaur Erkiaga gerrate orrek idaztera bultzatu izan dituen idazleen artera bide barriak urratzen. Gerrate orrek ekarri eban erri barruko giroari adar adarretatik eltzen. *Jaioko dira...* elebarri au orain arte aitaturiko idazlanak baiño ikuspegi zabalago-

koa da, erri osoaren egoera bizian sustraituagoa. Garaitzaille diralakoan eta menderatuen artean sartzen gaitu. Bake txarreko egoerea da, nozik bein alkartasun ez ain txarreko argibitate batzuk agiri dirala. Eta azken-azkenean, alkartasun obe ta osozko baten gurari ta itxaropena gelditzen dira, euren argi pozgarria zabaldu gurarik. Xenpelarrek bertotan adierazotako gurari ta itxaropenaren argia: «Jaioko dira berriak. Gu gera Euskalerrriak».

Militarren indarrak errian sartu diranean 1937ko udabarria da. Dana goikoz bera aldatzen asi da errian lenengo egunetik. Artean agintari izanak alde egin dabe. Beste batzuk bete dabe beingoan arein utsunea. Len azpian egonak, orain agintari dagoz. Arazoa ez da, orraitio, lengo menderatzailleen eta oraingoan arteko utsa be. Menderatuak ez dira menderatzaille barrien eskuetara etorri, onein egitez eta indarrez. Menderatzailleak kanpotik etorri dira. Eta agintari barriak ez dira euren erabagien guztizko jabe. Goragotik agintzen dabenen esanetara egon bearra dauke gauza askotan, nai ta nai ez, euren gogoz naiz gogoz bestera. Bilbo Francoren eskuetara etorri danean agiriago ikusiko da ori. Orduan ainbat erritar, batez be ainbat gudari, pillatu dira espetxeetan edo antzeko lekuetan, zelango epaia edo zigorra etorriko jaken zain. Areintzat txostenak emoteko ordua da, ia zein politikako izan diran, ia eskuak odolez garbi daukezan ala ez. Orduan asten da askoren kalbarioa eta beste batzuen kezkabidea. Erriko agintarien txostenak goiko agintarientzat bigunegiak dira. Goieta ez dabe bigunkeririk nai. Gogorrago jo bear ei da. Eta alkate ta agintari barriak ipiñiko dabez, lenengo egunetakoen orde. Alkatea, barriz, ez da erri bertakoa, kanpotarra baiño. Errian aspaldiko urteetatik epaikari izan dana, batzuk agindu nai bestek agindu guztien gogoko izan dana, errian gelditu da, baiña ez dau kargu orretan jarraitu nai. Lenengo egunetik asi zan bere bez gizontasuna erakusten, erriko gizonik maiteena eta ongilleena zanaren illeta-mezatara joanda. Naikoa izan da ori, oraingo agintarien areriotzat gelditzeko.

Iru-lau aginte-leku jarri dira errian: Udaletxea, militarren Komandantzia, txapel okerren etxea, eta margariten eta falanjisten etxeak. Udaletxeak, azkenengo alkateagaz, gogorkerirako bideak artu bear ditu. Komandantzia napar bat dago nagusi, ia kapitan maillakoa. Beronen abizena entzun dabenean, erriko zar batzuk arnasea nasaia-go artu dabe: Garralda, aldi baten errira askotan etorten zan napar baten semea. Aitaren ezpalekoa izatekotan, ez ei zan gizon txarra izango. Azkenerako, aita bera be agertuko da, baita beste seme bat be. Gizonik mazalena ta atsegiñena izango dira eurok, zarrak

uste izan ebenez. Margariten etxea «emakume» izanikotzat egozanen salatari egin da. Salakuntzen ondorena zer izango zan badakigu: beste leku askotan eginiko barrabankeriak egitea, neska batzuk, buru-motz itxita, guztien barregarri kaleetan zear erabiltea.

Militarrak sartu aurretik, erdi usturik gelditu zan erria. Utsunerik andiena gazteak, neska-mutillak itxi dabena da. Batez be, mutillak, gudari dabiltzalako. Gelditu diranak urrindu ziranetan dauke gogoia. Eurei zer jazoko, bildurra barruetaraiño sartuta dauke. Ilteko epaiak errez emoten dira epaitegietan. Txosten onak edo onak diralakoak ez dabe asko balio. Nok jakin zer dan ona ta zer txarra epaikarientzat? Nok jakin zer egin edo zer esatea dan onena? Erriko abadea olangoxe kezketan dabil. Abade zarrak bakarrik gelditu dira alde egin barik. Zarrenak ez dabe abegi txarrik izan. Baiña gazteagoak euren etxea espetze dabela bizi dira lenengotan. Eskuak garbi, odolez busti barik daukezanentzat ez ei dago arriskurik. Baiña zer da epaikarientzat odolez garbi egotea? Ez da errez igarten. Don Zenon parroko jauna, errian gelditu ta kargu orretarako izentau daben abadea, arik laster il da. Eta ez bere barruko kezkek il ete daben susmoa itxi barik.

Bildurra dabil erritar geienen barruan eta «bildurtegiak» dabez euren bildurren iturri. Zertzuk dira «bildurtegiak»? Espetxeak, epaitegia, txapel okerren etxeak, guda-lekuak, zigorpeko langille-taldean lan-lekuak. Epaitegirako naiz txapel okerren etxerako deia artzea naikoa da bildurrez egoteko. Eta bizia ta ondasunak dagoz jokoan. Guda-lekuetan dagozanak (erriko gazte asko) edozein ordutan dagoz ilteko arriskuan, eta berezko gauzatzat dago. Berezkoa ez dana epaitegietan erabagiten daben eriotzea da. Onak emoten dau ardurarik eta bildurrik geien. Eta bildur orren mendean dagoz ainbat erritar, euren artekoren bat epaipean edo espetxean daukenak, arik eta «bildurtegi» orreitatik ondo urten arte, arik eta eriotz epairik izan danean, parkamena lortu arte. Gatx-erdi etxekoren batek atzerriren bateko babesa lortu dauanean!

... ..

Bake txar eta giro ito ori elebarri onetan ondo azalduta dator. Baiña ez da dana olango giro itoa. Alderdi atsegiñagorik be agertzen jaku. Apurka apurka biotz barruetan beti sortzen diran bizi barriak sortzeko asmoak be, agirira datoz. Eta onetan agintarien aldeko ez diran neskak ez dabe aukerarik txarrena aurkitzen. Eta salakuntzak doaz Komandantziara bertara be. Garralda gazteak zegaitik jo bear dau beti «emakume» izan diranen alaben aldera? Jakiña, irribarrez

artu dabe Komandantzian esames ori, eta ez deutsoe jaramonik egin. Erriko zarrak errazoia euken. Ondo ezautzen eben Garralda zarra, eta semeak aitaren ezpalekoak urten dabe.

Neska bik jo dabe Santxo Garraldaren biotzean.

Itziar, militarrek sartu ziran egunean berean il zan gizon errimaitaren alabea, Zumeltarra; eta Maribel, Madrillen bizi eta gerrateak Donostian arrapau ebana, eta errian Garraldatarren babespean agertua, Komandantziko idazgelan laguntzeko.

Garralda zarra errian agertu danean, beronek kendu deutso burutik semeari, Maribel orregaz ezkontzeko asmoa. Zegaitia aitak il aurretxoan argituko.

Eta ganera azken ordu orretan agertzen dau Garralda zarrak bere eta beretarren nortasuna be. Euskaldunak dira eta Euskalerrriaren alde jokatu nai dabe. Zumeltarrak eta Garraldatarrek, olan diñotso semeari, jo daigun beti aurrera geure erriaren alde. Xenpelarren bertsoarena mamindu, eta euskaldun iraun daigun.

... ..

Erkiagak, bestela baitakoan, bere bazterra artu dau giroz histori usaiñeko elebarri dan onetan jazoten diranen gertaleku. Bere lenengo elebarrian *Arranegi* izenekoan lez. Orduan bere «jaioterri kutuna ederresteko» artu eban lumea. Oraingoan erri beraren egun baltz mingarriak gogoratzeko. Jazokunetan ez dau asmau bear andirik izan. «Lagunak» ezizenpean gorde ditu. Nik dakidala, bat bakarra dago bere izenez aitatuta: «Bittor Joseba» (Alegria Uriarte), erriko semea, abade eginbarria, Arabako Maroño erritxoan abade sartu barria, militarrek sorturiko matxinadaren lenengo egunetan komunistak katigu artua, eta «Cabo Quilates» ontziko sarraskian il ebana. Beronen anai bat izan neban neuk be gudarien artean lagun eta anai illaren liburu-batzuk neuri eskuratu eustazan. Abade zan orren gomutagarri, Bittor Joseba eroango dau izena, don Zenonek militarren mendea bateatuko dauan jaiobarri batek.

Bere bazter ori itxas-uria da, ganera. Baiña oraingoan ez dator ez arrantzaren aitamenik, ez kaxarrankarik ez arrantzaleen beste dantza edo jairik. Orain ez dago orretarako girorik.

Oraingoan ekatxa legorraldetik agertu da. Eta legorraldera begirago dagoz guztiak, itxasaldera baiño. Zeregiñik naiko dago andik datorren ekatxari iges egiten, edo ta ekarri dituen ondamendiak zelabait osatu edo urrintzen.

Bizimodu latza jarri da. Uritik kanpora urtetako eta iñora joateko,

ibilagiriak bear dira. Paperak bear edozetarako, eta paperak lortzea ez izan errez. Espetxekoei laguntza erosten joateko eragozpenik bada. Larri eta artega biziteko ziorik larregi da alde guztietatik.

Larri-giro ori bizierazo gura izan deutso Erkiagak irakurleari. Eta larregikeririk barik, gauzen zeattetik urten barik lortu dauala esan geinke.

Eta bide batez, Euskalerrri osoan jazo ziranen ispillu egiten jaku.

Gure errian bizi izan zan egoerearen barri ez dogu liburu askotan zeatzago ikusten. Agintarien jokabidea eta mendekoena, garaitzail-len eta menderatuena, dana daukagu or. Eta bai bien bitartekoen jokabidea be.

Orra Gurbiz, militarrek sartu barritan bigarren alkatetzara igona. Laster, bere bigunkeria dala-ta, agintarientzat badaezpadakotzat gel-ditu da. Arrezkero, zurrago eta zentzundunago daukagu, eta gertu-ago eta borondate obekoago dabil salatuen alde zoezer egiteko. Txo-mintxu, guztien gogoko izan zan epaikari zarrari entzundako berbak orain obeto ulertzen ditu: «ogi zuria gaurko, etorkizun baltza biarko» izango ebela agintari barrien jokabideaz.

Zumeltarrak eta Garraldatarrak urriñetik igarri deutsoe etorkizun-nari, erriak artuko eban joereari. Eta Eusebio Erkiagak, berak ureta-ra botatako ontzia baleu lez, gaia berez berez eta arin bai arin daroa portu orretarantza azkenengo kapituluetan, eta barruan artzen dau 1936tik 1939ra jokutzen zan arazo osoa, ez erri batena bakarrik, euskaldun geienena baiño. Ez da au nobela onen baliorik txikiena.

Askotan entzuna da euskerea nekazari-maillako izkuntza dala, eta baserri usaiña dariola daukagula euskal-literaturarik geiena. Erkiaga ez dogu baserritarra; bere sustraiak, euren buruak uritar egiten dabezan askok lez, baserrian euki arren. Erkiagaren elebarriak ez dakarre baserri usaiñik. Bere errian sustraituak ditu, baiña ez ain zuzen baserrian. Arranegi lenengo elebarrian Lekeitioko bazterrak, ango oiturak erakutsi euskuzan, eta Arranegi-ko Lekeitio ori itxasora begira dagoan Lekeitio da. Oraingoan, *Jaioko dira...* izeneko onetan, errikideen kezka ta larriak, poz eta naigabeak, miñ eta itxaropenak argitan ipinteko zeregiña artu dau, baiña Euskalerrri osoaren larri, miñ eta itxaropenak bat eginda. Emen agiri diran lagunak Euskalerrriaren unerik larrienetako baten bizi dira, erriaren etorkizunik one-nerako erabagirik onenaren billa, eta erabagi ori aurkitu eziñez lor andi orren azpian neka nekatzen.

Baserririk ez mariñelik danik ez da aitatu be egiten. Erritarrik onenak euren euskalduntasunari bizirik irauten laguntzeko kezkatu-rik dabiltzalako. Eta eurotariko asko, kulturaz jantziak diralako.

Escola andietatik urtenikoak dira Zumeltarrak, Jokin eta Itziar; eta bardin Maribel eta Santxo kulturaz arduraturik; eta kultur-lanetan dabillena da Gurbiz jauna. Uritarrak dira guztiok, bai Txomintxu epaikari izana, eta Urkitza medikua be. Ikasienetako da Maribel, eta Filosofia eta Letras egindakoa danez, bere jakintza eta argiak erakusten ditu bein, ain zuzen, nobel-gaietan. Erkiagaren elebarri oni ez dario ez baserri usaiñik, ez kresal sundarik be.

Azken urteotan ixil samar genduan lekeitiar idazle onek lan ederra eskiñi deusku oraingoan onegaz.

Eta opari ederra ekarri deutso Bizkaiko euskereari. Bere elebarrietan bizkaierazko irugarrena, Arranegi eta *Batetik bestera* izenekoak batara. *Araibar zalduna* gipuzkerazkoa dau. Erkiaga idazleak lapurdierara be jo izan dau iñoz olerkietan.

Bizkaikoa itxita beste euskalkietara jote au ez da, ezelan be, bizkaikoari traketsago eristeagaitik. Izatekotan, bizkaitarrak beste euskaldunakanako gogo zabalagokoak diralako izan leiteke. Besteakandik erantzun bardiñik artzen ez daben arren. Azkuek eta D. Agirrek ez eben traketsago idatzi bizkaieraz idatzi ebenean, gipuzkeraz idatzi ebenean baiño. Bear bada, au be esan bearrekoa da.

Onaiño elduta, egoki etorriko dala uste dot Gotzon Garate nobelagille eta kritikalariaen eritxi bat edo beste aitatzea. Onan diño (Deia, 21-XL-1981): "Erkiagaren euskera gu guztiontzat lorategi ederra da... Joskera zuzena, esaldi egokiak, atsotitz jatorrak... Eusebio bizkaitarra da, eta bizkaieran eman dizkigu bere lanik osoenak eta umatuenak... Ba dugu non ikasi Bizkaiko euskera bizia, batik-bat".

Au esanda gero, Mitxelena maisuak «Egan»-en 1958 urtean idatzi au dakar: «Eztio batere zorrik Domingo Agirreri».

Gogoan artzekoa da kritikari berak Erkiagaren teknikari dago-kionez diñoana: «Aurrerapena suma liteke Erkiagaren buru-lanetan. Denbora joanago, Erkiagaren emaitzak aberatsago». Eta onan amaitzen da kritikari orren artikulua: «Izango al ditu jarraitzaile asko gaurko gazteen artean».

Guk, elebarri onen tituluari lotuago, onela amaituko dogu liburu au aurkesteko darabilgun jardun au: Jaioko al dira idazle barriak. Erkiagaren antzeko idazleak, euren bizi guztia euskereari eskintze-koak, eta urteetan aurrerago eta frutu ugariago eta ederragoak ekarriko al dabez euskal-baratzera! Garraldaren amesai etorriko al jake bete beteko loraldia!

Jaioko dira...



I

Udabarria zan. Eguraldiz gehienbat, ederra. Tokiko giza-diarentzat, ostera, iluna, oinazez eta preminaz betea, 1937 garren urtekoa.

Uritik kilometro batzuetara egoan gudu-lerroa.

Gogoaren kontra baina aurkakoen gudasailak bultz-eraginda, eta batez be, gudoin-osteko egoerea larritu eta hondatu zalako, gudari-aldrak atzerantz egin ebenean, lubanen antzera uria be bertan behera laga behar izan eben agintariek eta alde egin.

Inguru osoa itxuraz, ezetariko agintari barik geratu zan.

Egia da uritik bertatik be, lagun askok eta askok ihes egin ebena, ondasunak eta uria eta behar bada seniderik hurkoe-nak eta maiteenak utzi beharrak emoten eutsen mingostasu-nez.

Baina, ezbaia nagusi zan; arduratsu ebiltzan asko, egon-ezinez.

Eta halan, Txaparraga aldapan gora beribilak eta beribilak joan ziran gau osoan, bezpera arratsaldean baino asko-taz gehiago, egun sentiak ekarri legikioen kaltearen bildu-rraz.

Eguna heldu baino lehen, azkenengo milizianoen ostein, gudari-aldra batzuk, bazterralde haretako nagusi militar-ak eta uriko ordena-jagolak aldeginak ziran.

Zerualde ilunean goizaldean argiune handia egoan, su-aldi gorria.

Azkenengo kamioien burrunbadak eta joan joiazanen berba-zaratak eta esturazko deadarrak amaitu ziranean, kale argibakoak eta ixiltasuna, ixiltasun mingotsa, larria, zan nagusi.

Zalantza, kezkea ta arnas estua etxe askotan.

Uriko sarrera, gudari zaurituen eta gaixoentzako hospital antzean egoan jauregi apainak, su ta gar, horrexek gorritzetan eban zerualdea.

Han urruntxuago, lur-alderdiko agintari militarra egoniko etxe txiki polita be, sutan egoan.

Egunak txirrist egitean, lehenengo argi-zirrintak sortu eta lagun urduri ta goiztar batzuk udaletzeko harmailen ondoan batzandu ziran, bakotxa bere egonezinak zirikatuta.

Uria agintari barik egoala eta... etorteko ziran tropa barrirei lehenbailehen etor eitezala adierazotea komeni zala, eta hori egiteko gizon batek eskeini eban bere burua. Kanpotik orain-tsu helduriko herrikoseme bat zan.

Bere uria umezurtz lez egoala eritxi, eta barruaren zauskadeari amore emonez, besterik ezer pentsauteke, bizikleta bat hartu, honen ganean jarri, ezkerreko eskuan zapi zuri handi bat ahalik zabalen ebala, edonork ikusteko moduan, bidezabalean zehar abiau zan, gudoinerantz, bake-zantzu.

Goizeko hozkirria eban lagun kanpoan, eta kezkea ta borondate ona bere barruan.

Uste barik, Itziarrek euren etxeko leihotik kalera begiratu eta txirindulari bakana ikusi eban. Atsekabe bikotxez samin-durik, leihotik urrundu egin zan.

Itziar eta bere gurasoak urian lotu ziran.

Jokin, haren nebea, etxean ez zala gelditu, adierazo eutsen auzokoei. Aita gaixorik egoan, guztiz txarto, noiz hilgo; Zumel gizon hain ezaguna, herrimaite handia.

—Goiza ez dau ekarriko — jakinerazo eutsen medikuak, bezperako gau beranduan —.

Gerrarien lubanak ez ziran trintxera hain sakonak, mendi-aldapetan goitik behera, lerroz-lerro egozan; bidezabalaren

alde bietan, gorago ta beherago, alde bietan gurutze antzera eginak.

Lurrune haretan zementozko etxe zapal gitxi egoan.

Arantzadun alanbre sendoak, loro lodiak, egurrezko eta burdinezko taketei atxikiak egozan, jasean ala trakets. Take-tok zutunik egozan gehienbat, baina batzuk okertuta eta makurtuta, aguretxuaren gerriaren antzean.

Han hor hemen, gudamutilen txoznak eta txabolak, arbola-adarrez eta zogiz eta kankarro-azalez, estaldu guran.

Unada batzuetan, horraitino, ez lerrorik ez muga ezagunik.

Hegazkin txiker bi agertu ziran, ez jakin Donostiatik ala Gasteiztik, behe-behetik hegan, inguruen ikusmiran, bide ta mendiska eta abarretan ezer ohargarririk ete egoan aztarrenak hartzen, nunbait.

Uriaren gain be, hainbat bider egin ebezan inguradak, zer ikusiko.

Gudoinaren alde bateko eta besteko basetxeek, arnasa hartu eben, nunbait be. Euren teilatuek eta horma zaharrek, zazpi hilabete arriskupean egonak, aurrerantzean zelanbait iraungo ebela uste izanik, ausaz ames lorrinezkoak eginez. Amaitu ete jakezan aspaldi haretako kainoien su-lorrak, morteru ikaragarrien goitik beherako bapateko jauskera kaltegarriak, hegazkinetatik noizean behin bota ohi eutsezan suzko euriak eta burdinezko txingorradak? Zoritxarrean, kalte ekar-ten ekian karga gogor hiltzailea, ez horraitino zeruko mana gozoa.

Lurrean, unean unean zulo biribil handiak egozan, suagen ondorioak, arbola luze izateko landarak sartzeko egokiak zirudien zulo nabarmenak.

Alabaina, basetxeak be, tokian tokian, behin behinekoz ala betiko, lagunez eta ganaduz hutsik geratu ziran.

Udabarria izan arren, munduaren azaleko gune hatako gi-zadiak, erdiz erdi, ikarea batzuek, itxaropena beste batzuek, sentiduten eben euren barruan goiz haretan.

Zazpi hilabete lehenago be, lagunen etorte eta joate lazgarri ta nekatsua ikusi eta sentidu eban uriko jente guztiak. Beribilak, kamioi txiki ta handiak, milizianoak, jente zehea... urrunagotik etozan gehienak, hurretik beste batzuk, benetako arriskua zala uste ebenaren ihesi.

Udazkeneko uriola, pertsona uriola izan zan, harik-eta gudalburuen premina edo asmo edo ahal izate errez edo gaxagoetara makurtuz, gudoina gotor eta egonkor jarri eben arte.

Uriko askorentzat bihotz erdiragarri izan ziran, gau osoan sentidu ebezan zaratak, motorren zaparradak, baserri-burdien kirrinkadak Atagarreko bide zaharrean gora.

Geroago, noizean behin, sendi-erdikak, andra ta ume, beti gizonezko barik, bialduko ebezan alde urdinetik alde gorrira. Ahoak gitxitu, eta beste aldekoan gose ta egarri lagunkide izan eitezan, nunbait.

Txirrindulariak alde egin ondoren, etxe batzuetako leihoe-tan eta balkoietan, zapizuriak agiri ziran, izarak eta abar.

Udaletxean, balkoi luzeko makilamutur batean, bandera espainola esegi eben.

Etxe horretan egozan batzandu-barri, norbaitzuk. Arean bere, uriko etxe batzuetan, edo basetxeetan edo solo-txabole-tan euren buruen bildurrarren gordeta eta ezkutauta egonikoak, gizonezkoak batez be. Jazoera barriaren gorabehera sendeakandik jakin baizen laster, uriko kaleetara agerturikoak ziran, gehienbat.

Batzuk kolore zuri, beste batzuk bizar zatar eta ule luze, hurrengo soinez zimel eta buruko ulea tente, hain zuzen «Basoilarra» ezizena ebana, izengoitia artez ezarria zana baieztu guran edo, Libano jauna bera. Berba gitxikoa. Honen jardun-arloa, nunbait be: «Berba gitxi, eta eurak, onak».

Urian geratu zan lagunteria adi egoan, bildurra/poza erdi-bana edo ebela, kanpialdia noiz hasiko zanaren begira.

Eta izan be, kanpaia dan-danka hasi zan. Horraitino, zazpi jo, eta batbatean ixildu egin zan.

—Gizona hil da —esan eben bateratsu, urikoen ezpanek—.

Egun «trimotorren» ostean, egunak egun, zerua argi ta ozkarbi egonik, hegazkin alemanen agerraldi bildurgarri eta heriotzagileen ostean, urian behintzat lehenengo garaitza-kanpialdia entzun baino lehen, hil kanpai larria entzun eben.

—Senaile txarra —esan eban uriko atsotxu zahar batek—.

Bai; Zumel herrimaite entzutetsua hil zan.

Bildur barririk ezagutzeke. Arean bere, nahikoa izan ordurarte, bere jarduera zintzoko biziaren joanean jasaniko nekea.

Txirrindularia, heldu behar zan tokiratzean, han egozanei mezua adierazo eutsen.

—Ondo da —erantzun eutsoen—. Eskerrik asko. Laster dira han gure mutiletarik batzuk. Urira gure kamioiren batean bihurtu gura bazendu...

Eta harik gerogarrenean, han bideko errebida zabalean etorrela ikusi eben harako txirrindularia, bere bizikleta ganean, zapi zuria haizetan bla-bla ezkerreko eskuan.

Udaletxean jente barria batzandu zan. Buruera mailan uriko anarkia zana al bait lasterren arteztuteko zereginetan zihardu.

Ez egoan hauteskunderik ez zozketarik egin beharrik. Jarduera azkarragoa ta biloizagoa erabiliko eben.

Modu barriak: urlia, alkate; sandia, bigarren: hamar-hama-bi zinegotzi. Beste zera, epaikari.

— Hasi gaitezan lanean, ba — esan eban norbaitek —.

— Horraitino — generatu eban beste batek —, neure atzerakoa azaldu gura deusuet. Hain zuzen be, erabagi zehatzak goragotik etorriko jatzuezala uste dot.

— ...jatzuezala? Eta... zeuri ez, ala?

— Ni amenazu gogorpean egon naiz eta...

— Bai, baina basetxe baten ederto ezkutauta, errenterua-
ren anaiearen basetxean — esan eutsan «Basoilarrak» —.
Eta... alkate izateko aukerakoena, ba... nik ba dakit baina,
zeuek esango dozue.

— Txomintxuk be, hementxe egon behar leuke, epaikari
aspaldietakoa izan dalako.

Horraitino, Txomintxu Begibakarrak gogoak emon eutsa-
na egin eban. Etxetik urten, «Basoilarra»-ri berba batzuk esan,
kaleak hutsik ikusi eta barriro etxera sartu.

Udaletxean iruzkin ugari eta eztabaida txikerrak egin ebe-
zan. Ordurako, gertu eukezan kanpatorrean mutiko batzuk,
Ukur menditxuaren hegaleko bidezabalean edo mendibidee-
tan behera soldauak agertu baizen laster, kanpai guztiak jotzen
hasi eitezan.

Barriro be, zerualdean, hegazkin txiki batzuk agertu ziran.
Baketsu etozan.

Kanpaiak entzun ebezanean, udaletxekoek batzarraren ja-
rraipena bertan behera laga eben.

Harik behingoan kamionetetan soldau aldrak uriko plaza-
raino heldu eta hor lurreratu ziran. Beste kamioi batzuk, sol-
dauz beterik, uriko iparraldera joan ziran eta hegoaldera eta
sartaldera haenbatean.

Heldu zan komandante militarri «Basoilarra»-k ondo eto-
ria opa izan eutsan. Han hor hemen gerrariet bandera maiztu
eta kolorgak ekarrezan, haizeak, eguzkiak eta euriet mazkil-
durikoak.

Etxe batzuetako balkoietan be, banakerian, kolore biko oi-
hal luzangak, hori ta gorri agiri ziran. Beste batzuetan zuriak.
Asko ta askotan ezer be ez, huts, kale.

Militar batzuek plaza nagusiko musikatokira igon eben, eta haen artean paparrean kurutze txikerra eukan ofiziala. Abadea zan; gerri aldean pistola eukan. Alter Christus nun-bait be, hogeigarren mendean erabarritua.

Mezea ospatuteko mahaitxu bat ekarri eben plazako musikatokira. Soldau gehiago ta gehiago etorri etozan urirantz bi-deak betean.

Gudamutilok plaza osoa bete eben. Soldau soilak lerroz-le-rror egozan, eta haen antzean falangista alkondara urdinak eta erreketek txapelgorriak.

Uritar ikuslerik gitxi egoan.

—Zori onen baten ez dabe mororik hona ekarri, esaten eben lez —aitatu eban atso zimel batek—.

Aginduak, turuta zoliaren bitartez emoten ebezan.

Kapeilau izar eta kurutze bakarrekoak mezea emon eban.

Tropeak egun horretan jateko hotza euki eban. Alabaina, edaria ugariago.

Udaletxean arratsean egin eben batzarrean, Libano jauna, «Basoilarra» alkate izentau eben. Gurbiz jauna, bigarren alkate, une haretan batzarrean ageri ez egon arren. Epaikaria be, izentau behar zan, uria barrero martxan jarteko.

Arratsalde erdiruntz soldauak hara hona sakabanatu ebezan; komentu, eskola, uriko inguruko zelaietan.

Gau haretan kaleetako argiak ez ebezan amatau, aurretiko gauetan lez.

Halango batean turutaldi luzeak eta apal antzekoak entzun ziran kaleetan eta ingiruetan. Ordurako huts hutsik egozan. Jagoletzako aldra txikerrak ebiltzan kaleetan zehar.

Uriko batzuek lo gozoa egin eben. Beste askok, ez eban gau haretan lorik egin.

Gerrateko lehenengo udazkeneko gabetan zertu zan antze-ko giroa egoan barrero be iluntzean. Orduan egazkinetatik urira lehenengoz leherragak goitik behera bota ebezelako izan zan.

Aldi haretan bildurtienek, eguna argitzeko egoanetan, eta batez be, zeru-aldea ozkarbi agertu, nagiak astindu, izara eta abarrak alde batera eroan, jagi, gosari urria arineketan egin, jantzi eta kalera urteten eben, solorantz, mendirantz, basoalderantz joten eben, goitiko opari gogorren ihesi. Basetxeren bateraino heldu ezkerro, zerbait erosi etxerako.

Ilunduten hasten zanean, urira bihurtzerakoan, dendan zer edo ha lortu eta honelan gau lehenean, ixiltasun gorrian baktxa bere etxera sartu eta harik laster lotaratuten ziran, biharamonean be, goizean goiz, gura ta gura ez goiztar ibil-taun eginik jarduteko.



II

Bezperako zirriparra ikaragarriaren ostean, hurrengo egunean goizak bere begia edegi ebaneko, joan joan Txaparragako aldatzean gora, bezperan ihesi joan ziranen atzetik bailoetzan, horraitino esturarik bage atrapau gurarik, soldau erreskada luzea eta alkondara urdinak eta txapel gorriak. Ez guztiak, ostera; urian be, geratu ziran-ta.

Ba joiazan kamioietan, oinez; kolore bitariko ikurrinak aurretik, batzuk hori ta gorri, besteak gorri ta baltz, gorri ta zuri. Mandoak be bai, gauzaz eta tresnaz beterik, mortero iski-loak, kainoe txikiak kamionetei lotuta atoian. Ahuntz bat be ba eroien, komandantearen urdailak esne berezia ta jakina behar ebalako, beti esne bardina, errape berberecoa.

Uriko mutikoak, neskatoak eta neskatila batzuk gizonteri hain handiari begira ta begira egozan, haek joiazan kaleetan eta uritik hurreko bide ertzetan.

Mutiko batzuk haen ondorik be ibili ziran bidaldi labur batean, geroago euren artean berba ta berba, experientzi txiker horrezaz barriketan urira behingoan bihurtzeko.

Baina alde egiteke urian lotu ziran emakumerik gehienak, etxean sartuta, ez ziran inora agertu. Gizonezkorik orduan urian egon be ez, agura ta erdi agurak izan ezean.

Kalean batera ta bestera ebiltzan gonadunak, gehienbat garaitzaileen asmo sailekoak ziran. Han ebiltzan soldauak be eta heldu barri ziran bigarren lerroko txapel gorriak eta falangistak.

Azkenengo bitzuotarikoekin ebiltzan uriko gonadunak. Guardia zibilak be agertu ziran urira.

Aldaiko anderetxuak, Latsartenekoak, eta dama Susana eta Maribel udaletxeko balkoian agiri ziran. Han egozan esegita hiru ikurrehun, española, falangekoa eta erreketena.

Abade zaharrek ez eben uritik alde egin. Eurotariko batzuek txera ona edota adiera bitakoa izan eben. Enparauek, barriz, agindu zehatza hartu eben: etxea kartzela ebela egongo ziran. Ez egizala inork ez eleizan ez kaleetan ikusi.

Abade gazterik urian orduan kargudun egon be ez egoan, herriko seme abade gazteak hainbat izan arren.

Arratsaldean Zumel zanaren hiletea egin zan eta gorpuari lur emotea.

Hiru lau gizon, zazpi agura, lehenengo tokian Txomintxu, joiazan gorpuaeren ondorik. Aurretik, eleiz-mutikoa kurutzeagaz eta abadea; lau anderu atautaren eroale eta sei gizonezko alboetan, kandela lodiak biztuta. Gizonezko guztien atzetik, andrazkoak ugariago, aurrenen Itziar eta ama alargunbarria.

Iluntzean udaletxean batzar barria ostera be. Prakadunak eta gonadunak egozan. Gurbiz jauna be bai. Baita Markos Elua be, alfereza, herrikosemea, gazte nabaria, harroa. Gurasoek laga eutsoen ondaretik bizi zana.

Erabagi gehiago hartzea gerta zan.

Lehenengo ta bat, abertzaleen etxe handiaz jabetu beharra; hona hemen Azkonen eta Buztarriaren etxe nagusi izango zana, gazteentzako tokia, baina Mogimentuko edozeinentzat be bai.

Hurrena. Uriko komandante militar barriaren egoitza izateko etxe jasekoa behar zan; eta horra hor Atxaga sendiaren etxe galanta, ibiltelekuaren aurre-aurrean.

Eta hara han, beste alderdi batean, uriko kafetxerik zabalena: Gizarte-Babestokia izango zan, behartsuenei, zaharrei eta umei jaten emoteko tokia eta preminan egozan beste batzuei be janari neurtuak bananduteko. Baleak eta agiri-pape-rak erabiliko ziran, gauzak ordenan egiteko.

Arazo gehiago be ebatzi zan.

Kale batzuen izenak aldatutea. Uriaren kontura bizikatu-

rea euken guztiei zehaztapidea edegi, eta halan izatera, lehen-goak kalera bota-alean, jantxakur barriak izentau. Uri harentan jantxakur berba horrek esangura bakarra eukan, irudizko esanguran, jakina; aurrekontuaren pentzudako funtzionariak, bai uriko, bai aldundiko, bai Estaduko.

Txistularien saila eta musika-bandea ezereztuta laga eben. Izan be, urian musikaririk ez zan geratu, ba!

Arineko ta esturazko beste gai bat: uriko jentearen fitxa politikoak gertetea, mogimentu-arerio usaina ebenen fitxerua. Hasteko, batzartuek bakotxak berak ordurako atonduta eukazanak udaletxera eroatea erabagi eben.

Andren falangeko behin-behineko buru andra Anastasi izentau eben, alarguna, Latsarteneko anderetxuen ama. Andra errespetokoa. Honen alabak eta Aldaiko anderetxuak lehenengo laguntzaile, eta ganera, uriko neskatilaren batzuk. Maruzia neskatila ausarta bitartekari, enlaze. Izen horregaz baino beste honegaz ezagunago zana, arean, Maru Mosumerke.

Epaikariaren arazoa zertze orduan, sekulako eztabaidea sortu zan. Norbaitek, lehen-goak berak jarraitu egiala, eskatu eban.

Izan be, kargu horretan, diktadura aurretik, unada harentan eta ostean be, arean errepublika aldian, gizon berbera egon zan.

Horraitino, Braulio Mokorzabalek berba-eskubidea, hizpi-dea eskatu eban, aldezaurreko gai antzera.

— Hemen entzun dodanez, kargu horretarako norbait erdi aitatu egin da. Gizon hori, parkatu, jaun hori, atzo ez zan hona agertu. Ezta gaur be. Alabaina, eta batez be, hauxe agertu gura neban: gaur arratsaldean hiletea izan da eta lur emotea. Eta gizon hori, parkatu, jaun hori hantxe egon da, hiletan egon da, hilerrian egon da, eta bere burua ageri ageri guran egon da, guztiek ikusi egiela nahi baileuan. Jokaera egokia al da hori, hain zuzen be, gure garaitzearen ahala goratu behar zan egunean? Hona ez azaldu, eta hara joan bai?

—Argiro egin behar da berba —zinoan gizon batek—. Nor da urlia hori?

—Txomintxu.

—Txomintxu neutrala izan da beti —esan eutsan Gurbizek—. Urian ez dago beste bat...

—Jarraibide txarra dala uste dot —gehitu eban, hasarre, Mokorzabalek—.

Emakumeak eta gizonak eztabaida luzean sartu ziran. Epaikari nor izentauko, ez egoan batasunik.

Batzuen eritxiz Txomineri lotsea emon behar jakon. Baina noren eskuetan geratuko zan mezu hori, zerbait minbera zan zeregin hori?

Markosek bere burua eskeini eban horretarako. Lehenengo lerroko gerrari bakarra, bera zala-ta. Batzarrak, ostera, ez eban aintzakotzat hartu. Ez. Mezu agertze hori Gurbiz jaunak egingo eban, adinez handi samar zanak.

Markos Elua indar-gizon edo gudamutil barriekin batean urira heldu ziran gazteen artean agertu zan.

Alferez mailako izar bakarra paparrean, bere jaioterrian harro ez ebilen, ba!

Urian behin-behinekoz geratu ziran teniente eta abarrekin, zabalik egozan kafetxerik kafetxe, taskarik taska ibilteko geratu, lehenago ibili ohi zanez, hogeititurriko ur baltza edo zuria edan beharrez.

Kalean aurkitzen ebezan neskatilei eta andra gazteei be, min labanez berba egiten eutsen; politak baziran gurago, baina emakume gaztea izan ezketino... Hain zan gonazalea!

Aldikada batean, gerratea hasi zanean, beste batzuen artean Markos eta honen anai Ladis be, aurretik erabili ebezan, gura ta gura ez, faszistak zirala-ta, sakuak harez eta lurrez beteten erabili be, babeslekuetarako ganeko izan eitezan eta ge-

roago, gudoina hurreratu zanean, lubanen laguntasunerako sakuak beteten. Harik lasterrean mutil eta gizon gazte batzuk kartzelara eroan ebezan unadan, anai biok begien bistatik alde egin eben.

Mendirik mendi ihes egin ebela; kostaraino heldu eta itsasoz joan zirala; gauza garbirik ez ekian inork urian. Ordenajagolak haen bila be ibili ziran. Alperrik, ostera.

Mogimentua hasi zaneke aste negargarri haetan, alde batean eta bestean hainbat lagun hil ebezan. Gudoinetatik aparte, hainbat heriotza.

Orain, Markos agertu arren, ez ekian inork Ladisen barririk.

— «Alferez izar txiki bakarra paparrean» — esan erorien uriko batzuek —; «arriskuan maila handiagora heldu izan baltiz, nork sosegauko ete eban Markos hori, aspaldiko ikaslea, munduko karrerarik luzeena hasi ebana...».

— Burua, galanta dauko ba — gehitu eban norbaitek —.

— Bai, baina haizez beteta.

Burua ez eukan txikia, baina bera be handi-handia zan, gizon luzea.

Urian geratu zan tropa aldea, egoteko ta lo egiteko eskoletan jarri eben arren, hurrengo egunean mutilei plazan bertan egin eutsen arrantxu banaketea, bazkaria.

Gerrari pilo handia batu zan plazan; urian geratu zan aldea.

Uriko ikusguratzuenak, neskatoek eta andrazko batzuek hara jo eben, eta umeek, eurrezean.

Ekarri eben lapiko baltz ikaragarri haretan, Markosek buruntzalia sartu, eta gero, mundu guztiaren aurrean, ahora eroan eban, soldautentzako jatekoa ona egoanentz jakiteko, militar arauei adi.

Inguruetako ikusgura guztiak begira egokiozan, eta Markosek, ausart eta eupalari, hagin-jokoa hasi eban. Gonadun batzuk marmarrean hasi ziran.

—Markos gurea da hemen nagusi — esan eban Maru Mo-sumerkek —.

Ahoan, eukana maiazkau eta iruntsi ondoren, buruagaz itxurakeriazko zeinua eginez, ona egoala eta arrantxuari baie-tza emon eutsan.

Orduantxe hasi zan banaketea.

Soldauak, hurrengorik hurrengo, aluminiozko bakotxa bere platera eskuan, errazino eske joiazan lapiko biribilaren ondorantz, erreskada luzeetan.

Gerrian dindilizka eroiezan koilarak euren kaketxetatik askatu eta han hor hemen, inguruetako jesarlekuetan ala lu-rraan jesarririk, soldauek gosea arinduten jardun eben.

Edari banaketea be, egin eutsen. Ardaoa bakotxak bere potixetik edaten eben, nahiz-ta gura baino lehen agur esan.

Lehenengoko patata-saldea iruntsi ondoren, hondakinik ete egoan, gosetiak eta jate onekoak erregantxe bila sargen-tuakana aurreratzen ziran, eta jakina, Markosgana. Tente eta horra! jupiterkuma zala sinisturik egoan, nunbait.

Geroago, bigarren janari bila joiazan. Arraina eta ardikia, patata txirtxikatuakaz. Hurrengo, mahai-azken, bananak izan ebezan.

Uriko femeninakoek gudamutilei ospakari lez, kafea ta paitarra eskeini eutsezan. Nahiz-eta elementuok tropeak be-rak ekarriak izan.

Atxaganeko jauregian egoan komendantzi militarra herri-ko agintaritza nagusia zan, iskilodunen lerroan eta baita aba-rraan be. Udaletxean indarrik ez egoala uste eben uriko as-kok.

Atxaganean, behean, sarrerako jagola iskilodunak egozan, eta mahai pare bat, urikoen menean edo.

Goian, barriz, urirako komendante militar jaunaren despa-txua, aginpide toki gorena, eta aurrean, bitarteko gelea eta kan-porago, itxaroteko lekua, eta hemen jesarleku batzuk. Boni Ga-rralda zan nagusia, kapitan mailara heldu hurren egoana.

Ganeko egunetan eta asteetan, uritik legez eta behar dan moduan urten ahal izateko baimena, hortxe eskatu behar zan.

Erregimen barriko ziranez berbatik-ara, errez errez jaso ohi eben ibilagiria, salbokonduktoa.

Ez ziranez, ostera, ibili ahal izateko, zidor estuagoa izaten eben, sasiz edo behintzat asunez beteriko estarta medarra.

Baimen-eskaleek behean hartzen eben papertxu bat, eskari-papera, zertzelada batzuk idatzita eta seilu barri bat jota. Seilu-jote hori letraz buruz-beherako gerta ezkerro, jakinaren ganean horrelantxe zertua, eskuan eroianak ba ekian jakin, han goian azterketa luze ala laburragoaren hasierea izango ebana, eta geroago, nagusiaren sermoe gazigozoa edo garratza; eta ondoren baimen-papera lortutea bazan, tira! edo halan izatera, ezetzeko berba mingotsa jasan behar, eta ibilagiri pape-rik bage kaleratu beharra eukan. Azken gertari hau, gitxitan jazo ei zan.

Garralda jaunak lehenengo zerean, begirakune gogorreko gizona zirudian. Ingurukoen esatez, horraitino, ez zan horren zorrotza eta bildur emotekoa. Hasi barritan, urikoek ikara larri izan ziran. Zaharrenek, ostera, barruko astuna eurengan arindu egiten zala susmau eben. «Garralda... Garralda... harako...».

Goian, bitarteko gelako idazkari, Maribel egoan, urian inoizka egon ohi zana, baina gerrateak Donostian hartu ebana. Dama Susana eta Maribel, urikoek beti alkarregaz ezagutu ebezan.

Maribel neskatila liraina zan, baina ez luzea, esateko. Era bidetsua, berbetan eta egitadetan. Baltzerana. Dama Susanaren antzerea edozeinek susmetako moduan.

Kaleko ordeneari egokionez, bai bigarren lerroko txapelgorriak eta falangistak, bai txapelokerrak, batzuetan guztiok alkarren ondorik ibiltzen ziran, batez be plaza zabalenean eta kale nagusian. Egoera osoko aldakuntza txikerrak besterik ez ziran.

Mogimentuko neskatila banakak, alde guztietan ziran ageri, euron artean Maru. Abuzil gonaduna, eritxoen uriko batzuek. Gehienek, barriz, haren izen-erdi edo ezizen osoz. Beste batzuek M. M. aitatu, eta alkarrereri «mamua» esanik, errez uler-tzen eben. Eperdiz arina zan, bularrez astuna; berbetan bizi-bizia. Gizonentzat zerbait erakargarri eukan; ezin ukatu.

Azken gerrarietako urian geratu ziran hiru lau eguneko unada haretan, harako militar izardunek, Markos euren artean, herri-ko oilarrak zirudien. Eta ganera, eurekin, Tomas eta Tadeo.

Honeen ostean, txapelgorrietako eta falangista sargetoek.

Tomas eta Tadeo, Aldaikoen senitartekoak ziran, eta Mogi-mentuko Gizarte-Babeseko zereginetan zerbaiten arduradun barri jarri ebezan.

Urian oilar antzekoak... Falta ziran, halabeharrez, bertako gazteak, eta itsuen herrian, otxolua errege.

Oztoztakoa zan herriaren egoerea.

Oztozta jan, ozta-ozta lan, ozta-oztan berba egin.

Oilar antzeko gazteok kalerik kale ibilten ziran, gonadu-nak nun ikusiko. Tabernetan sartu-urtenen bat egin, eta den-da inguruetan edo eleizondoan begira ta begira, neskatilarik ete egoan.

Neskatilak urrundurik egozan gehienbat, batzuk gudua baino lehen erbesteratuak; beste asko, gehienak, iheste es-turazko haretan atzerriraino be joanikoak.

Uriko agintarietako eta honeen senitartekoak eta politika-koek urrundurikoen aurkako berbak esan ebezan. Hona, emakume askatasun zaleak zirala, mutilen ondorik aldeginak, eta ez mairu azal ilunen bildur ziralako.

Izardunok hasarre antzean ebiltzan. Markos zer esan ba-koa. Urian, egotez ba egoan neskatilarik, haentzako lagin eta gehiago be, berbetan eta barriketetan jarduteko.

Situazino barriko neskatilo-neskatilekin arin aspertuten zi-rala zirudian, eta beste batzuk be, gura ebezala. Erreskadea handiagotutea, izenak eta irudi atseginak gehitutea opa eben.

Horrelan ba, Markosek, bere gerlari lagunen bihotz hilak goratu eta zuzpertzuan egin gura ebazan.

— Emakumea etxe barruan ito egiten da — inotsen bere lagun izardunei —. Agertuko dira; ardura barik egon. Azalduko dira egun asko baino lehen, orain hor etxezulo dagozanak.

Zerbait ba ekian, arean bere.

Azoka-etxe inguruan aurkitu ebezan neskatala aldra batzuk. Hor eta han hiru lau lagun gonadun; alkarregaz berbertan ziharduen, eta Markos aurrendari zala, mutilak gonadunekanatu ziran.

— Aspaldiko lora ederrok! — esan eutsen herrikideei —.

Neskatilok alkarri begiratu eta irribarre murrizta egin eben eta sudurak astindu.

— Hain politak izan eta... zuok orain be, lehengo lepotik burua.

— Ez be! — erantzun eutsan haetarik batek —.

— Horren itsuak izatea, be!

— Hara...! Han daukazuez itsu ez diranak.

Izan be, alborago, beste aldra bat egoan, eskuetan eta otzaretan banderatu barri-barriak eta txapel horiak ebezala.

— Goazen haengana — gehitu eban teniente batek —. Hamaika kota garaitu dogu, orain hemen emakume memelotxu batzuen irainak zertzeko. Oraindino hemen, Markos, ganadua zibilizateke daukazue.

Eta gizeozko izardunok besteenganatz hasi ziranean, neskatiletarik batek bai esan be:

— Horra hor berori! Memelotxuak dino? Berorrek daukoz horrek ikomelauaren begiak!...

Damuz joian besteakana Markos, bapere gogo barik. Liraiñak laga eta mandotik astora joiala uste izan eban.

Bihozpean min hartu eban, bere buruaren erismenari egokionez.

Aldezaurretik bere lagun-ezagun izardunei zera sinistuerazoten jardun, eta horra!

«Gure uritxura gaitezanean, han ikusiko dozue, han, Eden barria. Hango neskatilak, hango!... ñol... eta guztiak neure esanera. Berberdira orduko eskeinka, hartu nagizuka. Ikusiko dozue».

Eta, ea ba! Ez zan egia.

Artoak heldu barik egozan; ama... ez egoan etxean.

Hasarrekuntza horretan izardunetarik batek:

— A la mujer y a la cabra...

— Cuerda larga — gehitu eben Tomasek eta Tadeok —.

Tomas eta Tadeo be, ez ziran edozein.

Famili oneko eta lehenagoko sendi gogorretakoen ondorengo landarak ziran, euren karrerak eta ikasketak gerra aurretik amaitu ebezenak. Baina ez lan, baina bai jan... aurrea! zaharragoen lepotik.

Aldi hatan, anartean, gizarte mailak iraun zirauen. Goiko, erdiko ta beheko.

Goikotxuen mailan bertan, moeta biko jentea egoan.

Orduko liburuek, Erdiaroa aintzina amaitu zala inoen. Alabaina, lehenak zelanbait irauten eban, eta iraungo be.

Horraitino, goiko maila horretan uriko umeen hizkeran haundiki eta aberats, esangura bardineko berbak ziran. Eta horrelan ez izan. Umeen gurasoek ondotxu ekien, jakin.

Dirua eurrez, ez beti errez, irabaziz irabaziz, mordo gizenaren jabe egiten zana, dirudun egiten zan, eukitsu. Aberats, berba baten esateko.

Baina haundikia, haundikietarikoa zan beti, dirutsu jarraitu ala ondasunetan beherakadea egin, eta urterik urtera murritzuz gerta. Honetara heltzen zana handiki txiro, zulodun bihurtu arren.

Eta Tomas eta Tadeo haundikien senitarteko ziran. Markos bera bien arteko zan, erdi handiki, erdi dirudun. Aitonon seme izanikoen oinordeko ziran. Besteei sorbalda ganetik bakarrik begiratuteko gogoa izan ohi ebenak, baina hainbesteraino heltzen ez ziranak.

Ezin ukatua arean be, uriko jente herrizalearen aro adiskidetsua eta alkargarrria haen gogo harroaren zapaltzaile eta hezle gertetan zala.

Horregaitik, pertsona puztubera honeek kaleak betean ebiltzala ikustean, norbaitek, urteetan astun zanak, esan be bai:

— «Hemen doguz ostera be, «pabo errealok». Ufl...».

Gurbiz jaunak Txomintxu kalean ikusi dauanean, ibiltelean, zerbait zertu beharra adierazo deutso. Txominek adiguritsu hartu dau eta honezaz eta horrezaz berbetan jardun dabe.

Alabaina, Gurbizek barruan pixua euki ba, eta al bait lasterren arindu gura.

— Txomin, udaletxeko batzarrean zuri berba egiteko mezua edo... leporatu deuste.

Barre pare laburrekoak egin ditu Txominek:

— Jeje... jeje... jeje... Berba egiteko, ala niri lotsea emoteko mezua?

Eta Gurbizeri arpegira begi-begira jarri jako. Honen beko-kiko azalean izurrak agertu dira.

— Zu ta ni, Gurbiz, ez gara atzo goizeko umeak. Geure bizitzan asko ikusi dogu, baltzak, ixildu beharrak, gorriak. Asko ikasi dogunik ez neuke esango.

— Ez zara orain historiako kontuak niri esaten hasiko, ezta?

— A, historigile beti hasibarri hori!

— Ez inor mindu, arren.

— Historia, Gurbiz laguntzarra, geuk egin daroagu... horretarako gauza bagara. Eta osterantzean, zirtzileriak besterik ezin...

— Uriko... parkatu! berbea moztu deusut.

— Jarrai, jarrai, mesedez

— Uriko epaikari barriaren izentapena aitatu zan bart, beste zer askoren artean.

- Eta... nor ipini dozue? Ala, ez ete dozue oraindino ipini?
 —Kargu horren arduradun izateko norbait aitatu eben.
 —Eta aurkakoak ahoa zabaldu, eta
 —...!
 —Ba nekian, jakin barik.
 —Hiletea izan zan atzo urian.
 —Notizierua dirudizu, adiskide.
 —Eta han, hiletan eta hilerrian be, burua agiri-agiri...
 —Elorrioak!... Zerau esango deutsut: gurea lango uri baten eta hain herrimaite ongile izan dan gizon zintzo baten hiletan, gizezkorik lau katu baino ez... Lotsagarria!
 —Egokitasuna...
 —Bildurra!!! —deadar egin deutso Txominek batbate-
 ra —. Bildurra eta eritxi maila bakarra.
 Han hurrean doazan emakume batzuk atzera begira jarri dira, gizonok euren artean zein eztabaida ete darabilen jakin-
 guraz.
 —Gauzak ez dabiltz ondo, Gurbiz. Asmo soilak dirala-ta, gizonak alkarren arerio bihurtu gura izatea... gura izatearen haizea bera be... Ai, ai, ai! Egokitasuna zuzenbakokeria dan artean, ez gabiltz ondo, gauzak ez dira artez ibiliko.
 Berbok esan eta Txomintxuk bere bideari ekin deutso.
 Gerotxuago, urrunagotik dinotso Gurbiz jaunari:
 —Ogi zuria, gaurko. Etorkizun baltza, biharko.

Gurbizeri ez usteko izan jakoz, Txominengandik entzun dituan berbak, euren alkarrizketa laburrean. Lotsaemoilea, bere asmoz eta eritxiz baliaturik, Txomin gura eban lurrera eroango ebalakoan egoanez, honek oster a kaz gora bota deutso adiskideari honek aurretiaz gertauta eukan barriketea.

—«Ankea sartzea egin dodala deritxat» —esan dau Gurbizek bere kolkorako —. «Agure hori karatxa baino gogorra-
 goa da, tarantak joten dauanean».



III

Egunak aurrera.

Uriko kaleetan sekulako ixilunea. Lehenengo egunetan urian geratu ziran soldauek, egunsenti batean alde egin eben. Orain lagun gitxi dabil. Asago, kamioiren baten tarrantotsak. Mutiko batzuk okerreriaren bat nun eta zelan egin asmau ezinik, baterik bestera, jantzi zazkarrak soinean, zapata zulodunak oinetakotzat, lehen euria botalan izan dan arren.

Uriko abadeen artean behin-behineko eleizgizon buru aukeratua izan dan don Zenon-ek, bazkal-ostean ohi dauan losumatxua egiten dauan bitartean, haren etxebizitzan norbaitek atea jo dau.

Euria da, sendo izan be.

Neskame lodia aterantz doa, eta honek daukon erdiko zirikitu langatxudunetik galde egiten deutso:

— Nor da?

— Gurbiz jaunaren partez nator.

Neskame lodiak atea edegi deutso.

— Don Zenonegaz berba egin gura leukela eta ea noiz etorri leiteken.

Heldubarri dan neskatilea etxebizitzara sartu da. Jesarri danean, mirabe gizenak aldegin-ala, hormetan dingilizka dagozan kuadru koloretsuei begira dago.

Baina laster azaldu da abade-kriadea eta ba dirautso:

— Arineko zera al da?

— Bai, ba; nahikoa arinekoa dala esan deust.

Barriri joan eta bihurtzerakoan:
— Lauretan jagita egongo dala, esateko.

Uriko erloiuan lauren dangadea izan baizen laster, hots-egin dau ateko aldabatxuak.

Barrukoak atea edegi dau eta horra hor, sartzeko prest, Gurbiz zalduna.

— Aurrera, jauna.

Mirabe lodiak alboko atetxu bat edegi eta heldubarria haraxe daroa. Harik behingoan:

— Kaixio, Dario! — dirautso abadeak —.

Gurbizen urteak eta abadearenak antzeko samarrak dira. Hirurogetaz, bakotxak.

— Berba egin behar dogu, don Zenon.

— Artega zakustaz.

— Bai. Irabazi ezkerro, horra! irabazleari arazo eta morapi-loak jatorkoz bizkarrera.

— Estaduko arazoak, zuok... Estadu-gizonok polito atonduko dozuez, horraitino.

— Beste batzuen laguntasuna be, behar dogu. Berbarako, zuona.

— Ez dauko Eleizeak hor zereginik.

Uriko abadeen buru izatea suertau jakonari, Gurbizek egoera barria azaldu gura deutso.

«Agurak, atsoak, emakumeak eta umeak eurrez dira urian. Gizonak, gizon sasoikoak, mutil gazteak, jakina, ez dagoz etxean. Gerrateak uxatu ditu. Senarrik asko falta da. Dagozanan herri-lanak egin behar izango dabez. Lan horrek, herrira bihurtu diran lehenengo gizonak duban egin behar. Kaleak garbitu, bonben bildurrez egin ziran kalearteko aterpeak eta babeslekuak kendu egin behar dira. Eta ixilik. Auxilio Soziallean zaharrei ta umei batez be, eta neskatu-mutikoei jaten emoten jake. Premina ugari. Egoera atsekabetsua. Agure batzuek ez dabe etxetik urten be egiten. Andrarik gehienak eleizetara doaz...».

— Eleizeak modu zeragoan esku-hartu behar izango leuke-
la, dinoe.

— Gure obispo jaunak...

— Herriko jentea, bildurrez baina, eske hasi da. Niregana
bi ta hiru baino gehiago heldu dira, dagoaneko.

— Zeren eske?

— Zeren eske!... Epaietak laster ugarituko dira. Bilbo las-
ter jausiko da. Jokabide, siniste-modu eta abarren abalak, al-
dezko paperak emon beharko doguz. Atxarten berandu ibili
ziran eta lagun mordoska bat estu bai estu gerta.

— Abalak...

— Bai, horreek emotea. Alkateak eta Tadeok uriko mogi-
mentuko buruak... eta abade nagusiak, agintedun diranez,
portaera agiriak, izapide ta kondukta paperak gertau ta eskei-
ni beharko.

— Abade nagusiak?

— Bai. Zeuk.

Saman garramaztua baileuan, abadeak ez tul antzekoak
egin ditu.

«Gerrate barraban honek goimailaratu nau; eta zetarako?
Nasai bizi nintzan hau!» — dino berekiko abade samin-
duak —.

Ixilunearen ostean, barrero ekiten deutso Gurbizek.

— Entzungor ezin egin zinei.

— Gauzak... konponduko dira.

— Ez, don Zenon. Azpian dagozanak bildurrarren dabiltz.
Gu, oster, ez gara orain ezereen bildur. Horraitino kezka hor
dagoz eta jaramon egin behar. Han, gure arteko barriketan,
bart bertan, bide bikotxa aitatu zan.

— Bide bikotxa? Zerurakoa eta infern...

— Ez da horrelangorik.

Gurbizek zehaztasunak agertu deutsoz, kondukta paperak
atonduteko bideak. Bakotxaren jokamoduari dagokionez, he-
rriak eta Eleizeak euren argitasunaz zehaztau beharko. Urli-
a, sinismenduna ete zan, eleiz-zale? Hori, alkateak, buru lokalak
eta laguntzaileek zertuko leukee. Urli bera, politikaz eta gi-

zon-portaeraz zelakoa zan? Paper hori... eleiz-gizon nagusiak idatziko leuke.

— Zeeeer? Politika jokaerea nik adierazo. Zer diraustazu? Polita kontual... Ez da, baina, zeharo arteza bide hori. Holan-gorik! Behar-modurik kaskarrena abadearentzat?

Luzaroan jardun deutsoe barriketeari abadeak eta alkate-ordeak. «Basoilarra» makalik dabil eta ez da unadatzuan udal-letxera agertzen. Guzurrezko gaixoa ete dan be, esan izan dabe.

Gurbiz joan danean, don Zenonek Aitearen egin dau. «Oz-toztako egoera honetan hau ete da...».

Urian noizean behin, kanpai-aldia izaten da.

«Urlia uria hartu dogu!» Dilin dalan, dilin dalan...

Eta santu-irudi bako prozesinoak eratuten dabez.

Maiatza joan zan. Eta bagilaren erdi-alderantz, bizkai lurretan burrukea gero ta gogorragoa. Egazkinik ez, kainoe gitxi, ingenieru-buruak urdinen aldera planu ta guzti ihes egin... Horixe zan egoerea herrizaleen menpeko lurretan.

Barri itzalak etozan, gizonik eta mutil gazterik ez egoan urira. Mendiak galdu, eta uriak. Gizon gazteek... bizirik iraungo ete eben azkenengo ahalegin odoltsuetan?

Egun batean, sekulako kanpai-hotsak entzun ebezan, hai-zearen bazterrak guztiak durundiz bete arteraino.

— «Bilbo hartu dogu!».

Uriko gehienek, ostera, hauxe inoen:

— «Ai, gure gizonak, gure semeak, gure senide ta auzo-koak!»

Eta uriko andra gazteek negar egiten eben, negar atsoek, negar neskatilek. Agurak zotinka hasi ziran, malkorik ez euken-ta.

Aurreko asteetan uriko andra ta neskatila batzuei buruko uleak moztu eutsezan, lehenengo aldian kargudun izan ziranen emazteei eta alabei, eta gaixozain bateri be bai. Buruan, goiko aldean ule txistan batzuk ebagi barik laga, eta uleok, manifestazinoetarako, kolore biko zintaz txoria eginda agertu behar izaten ebezan.

Moztuok deia hartu eben; arean bere, egingo zan santu bako ibildeun horretan, ulea mozturiko horreek agiri-agiri joango zirala, mundu guztiaren aurrean irribide barragarri izan eitezan.

Itziar ozta-oztan salba zan, aita hilbarri zala-ta. Ule moztailleek eztabaidak izan ebezan. Edu eta Bibi, Itziarren neska lagunak arriskuan ibili ziran luzarotxu. Ibiltelekuan, «azkon» mutikoeek nesken ule puntei ikutu eta sarritan esaten eutsen:

— Honeek uleok laster... rast, rast! eta goian bakarrik ulezko gangurra, txontearen antzera.

Neskek begirakune iluna mutikoei, baina bildurra gorputzean. Ganera, burumotzek eskolak eta abar garbitu behar izango ebezan. Inoiz muxularrua edan beharra ez zanean, tiral!

Bilbo jauste edo hartze horrek sekulako irakina sortu dau. Zortzi egunen buruan, auzo herrietako urlia, eta sandia eta berrendia erail dabezala zabal izan da urian.

Fitxa baltz-baltzak daukezanak Deriora, hilerriko hormatzar, aurretiaz negargarrikiro ospatsu zan haretara eroango...

Oraintsuegi gerta zana, itzulietara izango. Lehen alde batekoak jausteko; orain, beste aldekoak dira jausteko.

Takarra takarral... zulora eta kitu.

Oztoztako egoerea, gero eta larriago. Bilboko Auzitegian paper gitxi behar, txit laburrekoa danean. Gasteiztik be, barri txarrak datoz.

«Paperak behar dira, abalak, agiriak, azkar, esturaz, gaur bertan bihar baino beharrago. Bizia dago arrisku gorrian».

Txominek, Gurbizek abalak emoten zazpi ahaleginak egin dabez. Alkateak et Tadeok be zirkin egin dabe, urikoei lagun-du guran.

Horraitio...

Alkate barria jarri dabe. Eta urirako Buru barria. Ez Basoi-larra, ez Gurbiz, ez Tadeo.

Esku gogorragoa behar da.

Bilbo hartzeko, odol ugari ixuri izan da, uste zan baino askotaz be gehiago kostau izan da, gizonex, ondasunex, armaz eta tresnaz, eta denporaz.

Alkate barria Osiñe da. Ez da uriko semea, aspaldian hor bizi izan arren. Uriko Buru barria be, bera.

Goitik mezu, irakaspex eta agindu zorrotzak ei datoz. Bigunkeria kaltegarri dala. Ez da errukirik behar. Ahaztu egin ete dira lehenengo aldian kartzeletan, bidertzetan eta ontzietan hil ebezan gizon piloak?

Uria laga eben sendi batzuk, urira eta euren etxeetara bihurtu dira.

Etxe kontu hau ez da beti egingarri gerta, beste batzuk sartu eta barruan dagozalako.

Beste alde batetik, gizonak ezezik emakumeak be, kartzeletara eroan dabez, banaka ala aldran. Begoñan Oruen txale-tak entzute handia hartuko dau.

Auzi laburrak, esturazkoak, gero ta gehiago ta azkarrago. Auditore jaunex paper artean itoteko bildurrez dihardue joranezko ekinean.

Jentea hor dabil nori erregu egingo, nori mesedea eskatuko, dardaraz, zalantzan, tirabira eginiko batela itsasganean lez.

— «Gizadiaren pekatuak dira oker guztien sustrai eta jatorri — esango eban hurrengo domekako sermoe motxean gazte-

laniaz don Zenonek —. Lehen haizea erein zan, entzule maitok; haizea erein zan. Eta orain, orain... orain, ekatxa ganera etorri jaku. Geure arima argalak garbituteko bide bedegarra izango ete da? Geure garramura ta grina guztiak behin betirako tranpa-zuloan sartutea lortu ahal izan dagigun... izango ete da? Zuzeneratuko ete gara?... Andra Marixe izan bekigu, horraitino, beste une txar eta larri askotan lez, gure itxaropena. Ahozpeztu gaitazan haren errukiaren pentzudan, eta bako txak berak ixilean otoi egin...».

Eleizan egozenerarik batzuek, negar eta negar urten eben handik.

Begietako iturriak agortu egingo zirala uste izatekoa zan.

Bilbo jausi eta ganeko egunetan, lagun ugari heldu zan Komendantziara, uri nagusi haretara joan ahal izateko ibilagiri eske.

Batzuk gurari hutsez; gehienak horraitino, preminaz, joan beharrez.

Senideen barri jakiteko; eta han egote ezkerro, haek ikusi guran.

Eta morroilopean egozanei janariak edo jantziak, edo garbitasuna eskeini guran. Edo itxaropena eroan nahirik, soil-soilik. Ahal zan apurra egiteko.

Egunerik egunera afusilauen izenak entzuten ziran. Biztanleria dardaganean egoan.

—«Hori hil dabenean, erru handirik bagako hori garbitu dabenean, gureari... zer ez deutsoe egingo, kargua euki eban-eta».

Uriko batzuk izu-laborrian ebiltzan.

Egunak luzeak ziran, gabak luzeago, seme-alaba guztiak etxetik kanpora eukezan gurasoentzat: adibidez, bata hortik hara, bestea atzerri lur garratzean, seme bat kartzelan, eta hurrena gudoinean, lehenengo su-lerroan.

Gertari hau sendi guztiz ezagun bateri jazo jakon urian.

«Ai, menperatuaren errukarri», esaera bihotzausigarri hori

historiaren joaneran noizean behin barriro ta barriro gerta ohi zan.

Eta oraingoan be bai, zoritxarraren handiz.

Mundua andra alargunez eta umezurtzez beteko zala zirudian.

Lehen aldikoak gitxi izan bailiran, heriotzea barriro be, etxerik etxe, aterik ate heriotza eske hasi zala edo.

Balbearen kodainak geldi egoteari iguina eritxolako, seguru asko.



IV

Odol eta kartzela eta langile-sailetako zigorretaz aparte, diru-nekeak sortu ziran, eta ondasun kentzeak.

Erantzupen politikoak zirala-ta, diru-nekeak.

Bakotxa bere bizitzan oraintsuko eta aspaldiko jokaera politikoak aztertu, eritxi batean epaitu, eta dirua kendu.

Aurretiko urteetan norbaitek urlia alderdiri hauteskunde-etan botoa emon ete eutsan susmoz edo usainez soilik, gizon baten politika joerea tenkortzen eben. Botoa emoteak bakarrik be, alderdikide lez eristeko balio eutsen ba, horren baten, udabarri haretan nagusi jarri ziran agintariei.

Arlo honetan be, zeharo ala erdikako galtzeak ekiditeko, zigorpe-arriskuan gertetan zanak, bideak urratu behar eban; abalak eta paper mesedegileak hortik edo hemendik lortuteko saiatu beharra eban.

Lehen errexixau jarduna gerta zan antzera, bigarren al-dian bardin, baina okerrago.

Lehen behin behineko erabagi gerta ziranak, oraingoan behin betiko ariurria izango eben, uste ebenez, ehun bat urtean gauzak aldatuko ez ziralako.

Ondasunen jabetasuna errezkiro uxatuteko modu barriak egozan.

Errubide latzena, eskuak odolez zikinduta eukitea zan. Horrek zigor nagusia eskatzen eban bertatik: arean bere, bizia galtzea.

Beste maila bat, urteetan eta urteetan askatasuna galtzea zan; kartzelan, langile-sailetan...

Eta hirugarrena, biziare bereiz diran lurreko ondasunak, lanaren bidez, trebetasunaren bitartez edo aukera ta argitasuna lagungarri izanik baturiko gauzak, edo gauzen jabetasuna ukatutea eta kentzea, gauzak apiztutea, diru-etorbideak ixtea... harik-eta eurek ezarririko isunak eta muntak pagau arte.

Erabat esan, kentzea izurri barria zan, gaixoaldia, buruen eta eskuen sukarra, kalenturea, erpeak zorrotzu beharra eta zana zala, harrapau beharra.

Kendu hau, kendu hori, kendu bestea.

Kendu behar horrek, kentze ikaragarria ekarren, aurretiaz ernamin egoan erabagi-gei gogor eta ankerra.

Bilbo jausi eta lehenengo aukeran, Bizkaiari eta Gipuzkoari foruen eta lehengo aukeramen zabalagoen hondakina kendu eutsen.

Itunben Ekonomikoa zan eskubide hondakina zirt zart kendu eutsen agintari barriek, ebazpen latz baten bitartez.

Ganera epaiaren lehenbiziko hitzetan, euskal lurraldeen aurka, iraina, laidoa, gordin gordina arean bere, gorrotzko joraketea ageri zan idatzita.

Kendu.

Berba laburra, motxa, baina ondorio izugarria barruan ekarrena.

Sugearen edena, kuruminoaren miztoa, pozoiares kutsua.

Eta hori, noiz?

Hain zuzen be, karlistek irabazi eben gerrate bakarraren ondorengotzat.

Kendu, bai.

Irabazi...

Historiak esango eban geroago, epe laburrean esan be.

Ausaz, garaitzaileak haize bihurtu ete ziran.

Historiak esango eban geroago. Ez dau bere tokitik hutsik egiten eta.

Antzineko politika jardunetako erantzunak zirala-ta, agurak eta atsoak be, zigor irabazle izatea gerta eitekelakoan, zigorra, diru-zigorra edo diru-nekea merezi ebanari ezbairik bage zart! ezarteko, gobernukoek erabagi zehatzak hartu ebezanean, diru-etorbide ixte hori egiteko modua hauxe izan zan: sorrera lekuak gogor lotutea.

Eta halan, baltzuen eta konpainien irabazi-zatikinak, geldi. Bankuetxeetan gorderik eukazanari bere diruen kontrola ezarri, eta erredituak be geldi. Gogortuta jarri.

Garaitzaileen aldeko izan zanak, lehendik ala azken orduko aprobetxategi zanak, labur esateko, pekatuak ez eukanak, ai, horreek eskuratu ahal izango ebezan zatikinak, ondasunak, erredituak...

Auzipe egozanek, konpainiatik, Bankutik, Aurrezki-Kutxatik ezelango dirukinik ezin eskuratu, epaia agertu eta ondorioen aginduak zintzoro bete arte.

Diru kontu luzeetan abogadu askok lana lortu eben. Goitik hasiriko zehaztapideak atonduten, bihurrituten ala bigunduten, bezeruen interesen alde. Horraitio, gerrate auzi garratzetan, militarrek ziran salatari eta epaile eta defentsa-gizon be.

Eta garatzetan, garatz barrietan eta zaharretan, eskoitarrek euken bide zabala, beste pentsakizuneko ziranei lantegi, lan-tresna eta jabetasuna haen menetik urrunduteko. Oilo lumaketa ugariak gerta ziran orduan.

Kentze arlo horretan beste zer bat be jazo zan.

Garaitzaileek uritxura sartu barritan, eskoitarrek ez ziranen bizilekuak arakutzen jardun eben. Uriko mutikoren bat, «azkon» gaztea, txapelokerra lagun ebala; etxerik etxe ebiltzan. Honeen antzean beste hiru lau mutiko eta hiru lau txapeloker lan bardinean, bakotxa bere kale-mordogan, edo iñoiz, hain etxetara, halango mutikoa; gizartean, gerrate latza izan arren be, atzerapide eta txera bereziren bat sortu ohi dalako, gizonen bihotzetan.

Arma bila ebiltzan, paper bila, arean, euskal-liburuen bila. Barriren barri Inkisizino baltza ernerazo guran edo, batez be herriaren kultureari buruz.

Uriko batzu-batzuk ordurako, erre ebezan etxean eukezan

euskal-liburu asko, edo zuloren batean sartu, bildurraren bildurrez.

Etxe arakatzaille eta biderakusleok azkon-kumak ziran, bizarra urtenurren euken mutikoak, geroago udalgizon eta abar izateko, hasierako politika gertaera eta ekintzako merituak zertu ahal egiezan.

Atso-agurak besterik ez egozan etxe batean, beste liburu batzuen artean, bat aurkitu ebela eta, egundoko poza edo, erakutsi eben etxe-aztertzaileok. «Hau, interesantea da» inoan txapeldunak.

Liburua, trofeo itzela bailitzan hartu eta eroan egin eben.

Handik denporetara, seme gaztena etxera zanean, aita zaharrak esan eutsan:

— Ba dakizu honeek sartu aurreko azken bezperan zure liburu batzuk arinak arin eta esturaz erre genduzana, seme. Etxeko inork etxean pistolarik edo beste iskilorik laga ete eban galdez ibili ziran. Ez egoan etxean ezetariko armarik, eta horixe esan geuntsen aztertzaileei. Eta orduan, paperak edo liburuak ikusi gura ebezan.

— Ta?

— Begira ta begira ibili ziran etxeko leku batzuetan, ez daretan, eta azkenean txapelokerrak liburu bat aukeratu eban, hain zuzen, gaztelaniaz idatzirikoa zan.

— Hori dok ederra!

— Ba dakizu zein? «Errusian zelan bizi diran». Komunismoaren aldekoa bailitzan.

— Liburu hori, hobeto esan, liburuska hori, argitaldari katolikoak egina zan eta!

Iskiloak eta tiro-armak batu egin behar ziran, eta horretarako ahaleginak behin eta berrero egingo.

Horraitino, liburu eta idatziak aspaldietan bezauta eta menperaturik eukiteko gogo, jaurpidearen jokaeratarik bat zan.

Asmo bat bakarra jainkotxu antzeko mailara jaso ezkeru,

asmo horren araez, intsentsuaren orde z liburuen sugarra eta erreusaina izango ziran halango opagai errezak eta hoben-garbitzaileak.

Zabalkunde paperik aldean erabiltea, arma bat sakelean eroatea ainean zigor-bide gerta ohi zan.

Antzeko zerbait jazo ohi zan geroago be, zentsura arazo horri dagokionez.

Euskalerriko ipar-hego mugan, etorrenak ekarren atzerri hizkuntzan idatziriko edozein liburuk baimena ala galerea merezi izatea, mugazain iskilodunen arduratan haen batean gerta ohi zan-eta.

Toledoko harako itzuleen Eskola ospatsuaren izpirituak bizirik zirauan, nunbait, mendeen mendetan.

Horraitino, hizkuntza barrietara aldatua.

Alde horixe.



V

Garagarrileko arratsalde luzea astiro doa. Bero dago. Eguzkia nagiro dabil eta Txaparraga mendiaren ganeko beste alderantza daroa bere ibilereak.

Bidezabalaren ondoko solo txiker batean emakume gazte batek patatak ataraten dihardu. Dirudianez laster seinatuko dago. Hauts koloreko batea soinean, lan hori neketsu jako.

Patata-ostroari ezkerreko eskuagaz oratuten deutso, eta terekadea eginez, lurretik eperditik atara eta alderdi batera botaten dau, eta jardunean, ostro erdi-igerrak erreskadan jarri daroaz.

Gero potxi-zuloa atxurragaz zabalagotu eta patata piloa argitara dakar.

Lur nabarraren barrutik urre-koloreko garau biribilak jatorkoz, begien pozgarri. Patata zuri ederrak, nun edo han, gorriak be bai.

Neskatotxu bi dabiltz hara-hona emakumearen inguruan. Lau eta bost urtekoak dira.

Emakume gazteari izerdia dario bekokitik behera. Soinekoaren besoagaz legortuten dau noizean behin.

Bidezabalean gora, ibiltaldian, gizonezko batzuk datoz; berbetan dihardue ibili-alean. Haetarik bat abadea da, don Zenon.

Zeruan hodei zurizkaren batzuk agertzen hasi dira eta haizea apur bat hozkirriago dator.

Honetan, abadea bide-alboratu da eta emakumeari dirautso:

— Arratsaldeon!

— Halan dakarrela — erantzun deutso atxurdunak —.

— Senarraren barririk, Iñazi?

— Bai, atzo izan dogu. Han dauke Santi, Logroñon.

— Preso dago — dino neskato txikienak —.

— Ixilik zu! — erremuskadea egiten deutso izekoak —.

— Eta osabea?

— Osabea... Karmelon dago. Jakingo dau berorrek.

Ixilik geratu da don Zenon.

Gerotxuago ba dirautso:

— Solo hau zuena al da?

— Ez, jauna. Baina laga egin deuskue, ataraten doguzan patatak geuretzat emonez. Ez dogu orain beste ondasunik. Oztan bizi gara.

Barriro be, ixildu egin da abadea. Alabaina, behingoan haxe dirautso:

— Gauzak... konponduko dira.

— Bai; ez dakit noiz ez zelan.

Don Zenonek harrezkero ez dau murtik egin, eta joan doa bidean gora bere lagunakana.

Estartan zehar andra edadeko bat dator. Solora heldu baino lehen, ume biek garraixi egin dabe:

— Amama!

Eta amama heldu da. Eta amama, amantalaren azpitik zarpan eskua sartzen ikusi dabenean eta zerbait ataraten dauala susmau, erdi kantari, pozez dinoe:

— A, e, i, o u.,, ama meriendea biogul

Bidean gora doazan gizonak, bat-batean geratu eta atzera begira jarri dira, emakumeei eta umei begira.

Amamak ogi-tato bat atara, zatitu eta umei banandu deutse.

Honeek begira begira dagoz, zati bata bestea baino handiago ete dan. Alkarri begirakunea egin eta jaten hasi dira.

—Zati txikerregiak, laztanok, area bere — dirautse amak —.

Gizonek euren bideari ekin deutsoe.

Beribil handi bat dator urirantza, barruan hainbat txapelgorri eta bidaztiok agur-agur egin deutse, eskumako eskuak jasota, abadeak izan ezik.



VI

Udala aldatzeari buruzko erabagi zazkar hori ez jako Gurbiz jaunari bapere atsegin izan.

Mingostasunez dabil udalgizon izatetik baztertu dabelako.

Gurbizek eskoitartzat eukan bere burua. Gizon ikasia zan, jakintsua haenbaten, batzuen aburuz. Berbetan atsegina eta lagun zaharrek in berbalduna. Dario haren izena. Hiru-lau arlotan zuzenduten eban bere bizimodua.

Horrezaz ganera, ba zituan bere arazotxu kutunak. Antxi-netako gorabeherak, hau da historiako joan-etorriak zertzea gustetan jakon. Edesti luzeren bat halangoren batean argitaratuko ete eban aituten emoten ekian bere hurko lagunei eta adiskideei.

Eta etorkizuneko zerak be, etorkizun laburrekoak hain zuzen asmau edo susmau zale izaten zan. Arean bere, meteorologia azi-orraziak.

Biharamoneko eguraldia zelangoa izango dan, batzuetan igerri.

Gune argietan eztabaidarako erne egoten zan. Ixilaldiak be izaten ebazan, bakar bakarrik ibilteko unadak. Horrelakoe-tan haren ingurukoek «txoria mudan dago» esaten ekien.

Etxagerratearen lehenengo aldian, uritik kanpora bizi izan zan, arreba baten etxean. Badaezpadan han iraun eban. Uria eskuz aldatu eta behingoan agertu zan jaioterrira.

Osiñeren jokabidearen etorkizunaz zalantzan egoan. Kezkaz ebilen eta andra Anastasiagaz berba egitea erabagi eban.

Gurbizeri Udaletxeko fitxerua ikusten eta zertzen ibiltea galerazo egin eutsoen. Bitarteko on bat aurkitu gura eban, bere burua baztertu samar ikusirik.

Epaikari izateko aitatu eutsonean, turrit! esan eban, Txo-mintxuren berba zorrotzek barruan zauzkadea egin izan eutsoelako edo. Eta orduan, Tomas izentau eben.

Markos herrira agertu zan barriro, izarra bere paparrean.

Horraitino, izar txiker batekoa zan beste norbait be, urian egoan, zauritu ondoan osapide atsedenean.

Komendantzi militarrean nagusi egoan tenientearen anai gaztena zan, Santxo Garralda.

Iztarrean min eginda, osatute aldia emoten etorrena zan, eta makilea erabilten eban min harturiko iztarraren lagun-garri.

Santxo mutil ederra zan. Gazte bizarduna.

Gonadunek laster arin begiz jo eben. Neskatilek eta loran egozan neskatoek be bai.

Beste alferrez hori nor zan, Markoseri Tomasek eta Tadeok jakinerazo eutsoen. Talde honetako boskarren laguna Urkitza jauna zan, uriko mediku barria.

Kafetxean batu ziranean, barriketa luzea hasi eben.

Gerrateko egitadak, Markosen ahoan, ehiztariek kontau ohi dabezanen antzekoak ziran, itzelak, amaitu ezinekoak.

Ibiltelekura joan ziran geroago. Neskatarik arean bere ez. Orduan, Gizarte-Babestokira joan ziran.

Han aurkitu ebezan Aldaiko anderetxuak eta Latsartenekoak, eta dama Susana eta andra Anastasi.

Halango bisitea izateagaz emakumeok poz handia agertu eben. Barriketa gozoetan, mutilek, urian dantza-soinurik ez plazan ez beste inun ez egoteaz tamala erakutsi eben.

Afaitarako ordua zala-ta, mutilok neska laguntzea egin eben, baina aldran, guztiok bikotxetan eratuteko ezagupiderik ez euken-eta.

Neskatilak euren etxeetan laga ebezanean, mutilek alkarregaz barriketan jarraitu eben.

Eta Markosek, politenagaz joateko eskubidearen aukerea hurrengoan berberak ebala, adierazo eutsen bere lagunei, uriko mutilik jatorrena zala-ta.

—Ba dakiguz zure zaletasunak eta gurariak, Markos —esan eutsan Urkitzak—. Horraitino, harako izter-eskubidea be, ez dozu zeure alde eskatuko, Erdiaroan lez, ezta?

Urkitzak, fisiko lez, ingeles berba horrezaz baliaurik, Al-daiko eta Latsarteneko eta Gizarte-Babesean ebiltzan neskatilak edo lodiegiak, txikitxu biribilak edo lar estu, mehe, zorrotzak zirala epaitu eban.

Santxok irribarre egin eban eta urikoen eritxiak ikasteko aukera egokia zala uste izan.

—Arimako fintasuna, ostera, ez da hazur-maminetan susmetan —esan eban Tomasek—.

—Hori esan ba —gehitu eutsan Tadeok—.

—Horrezkero, arimatarrak zaree zuok batipat —zertu eban zirikari, Markosek—. Baina, egia esan, Jaungoikoak ez eban gizona neutro mailako egin.

—Ar eta eme egiten zaituet —ganeratu eban Urkitzak—.

—Zera, Urkitza, egia al da noizbait mediku bat, zirujau bat gizagorputz batean arima bila ibili zala, eta topau ez ebala?

Barre egin eben beste lagunek.

Eta Urkitzak, argiro eta bare-bare, hauxe azaldu eutsen:

—Medikuak dirala ta ez dirala, esames itzelak ernerazoten dabez mundu zabal honetan. Arimea, berez, izate materiala ez bada, zelan arraio aurkitu eukean ez zirujau harek ez bestek, hazur, mamin, kirio, kozkon, odol, odolur eta gizen-giarretan?

—Aiko! nahikoa dok. Ez deuskuk anatomia osoa guri orain azalduko, eztok?

Biharamonean Santxok Urkitza aurkitu ebanean, medikua hiru neskatila dotoregaz barriketan edo erdi paseuan ebillen.

— Hona hemen Bibi; hona Edu eta hona Itziar. Jaun hau, Santxo Garralda da, munduko infanteriarik oneneko alfereza. Parkatu; artileriakoa.

— Urte on askotan! — esan eban alferrez nafarrak—. Bart neskatila batzuk ezagutu, edo behintzat, eurekin berbetan jardun genduan. Neskatilarik asko ez dagoala entzun neban.

— Lehen gehiago. Orain, mutilik gitxi, ostera — esan eban Edu —.

— Santxo — inotson Urkitzak, begi bategaz keinu eginik — honeek horratino ez dira Aldaikoen eta Latsartenekoen sokakoak. Honeek beste... auresku batekoak dira.

— Dana dala, Urkitza, beste... auresku haretan neska politik ez ete egon, aitatu zenduan. Egia al da?

— Bai zera! Garaitzaileen aldeko diran neskatila politik ba dira. Gure hiru adiskideei apur bat hasarre eragiteko, eta adarra jotekotan esan neban.

— Eta Markoseri, zein... gustetan jako?

— Zein? Horreri edonor — ebagi eutsan Bibik —. Txori ibiltaria da. Horrezaz zeozer ba dakigu. Markos, gerrate aurrean, Aldaiko neskatilarik nagosienagaz hasi zan lehenengotan. Geroago, hartu-emonak hotzitu egin ziran.

— Gogait egin, edo.

— Eta ba dakizu zergaitik? Esango deutsut. Ladis, Markosen anai gaztea, Ladis señorito anarkistea Latsarteneko erdiko alabeagaz urteten hasi zan, eta Markos, ene bada! orainarteko guztian bekatxaren menpeko bizi izan da-ta, inbidiaz bete eta Latsarteneko beste alaba gazteagoaren atzetik ikus-ten genduan.

— Beraz, Markosen anai hori beste...

— Uf! Odolean izango dabe alkarren antza, osterantzean...

— Eta begiko kanika zurian — gehitu eban Urkitzak —.

— Eta Markosek geroago, zer?

— Latsarteneko neskatilea, zera, Ladisen laguna zana, gai-xoaldi luzeak jo eban; eta orduan, ba, maite-arlo hori laga egin eben. Eta Markosek be, haize barriren batek eraginda edo, ha-

ren aiztearenganako garra amatau egin eban. Andra Anastasik, Latsarteneko anderetxuen amak, Markoseri ez eutsala sekula parkatuko, esan ei eban.

— Horrelan ba, Markos...

— Gonazale itsua dozu. Hiru sendiok politikaz, aizkorea ta kirtena lez diran arren. Markosek sendi bientzat kaka daukan ezkeru, lora barriak gura leukez bere urian.

Barre algara zaratatsua egin eben gazteok, eta mutilek neskatilei etxera lagundu eutsen.

Bakarrik bihurtzean, mutilok, kale erdi ilunean, Maru Mosumerke topau eben.

Une batean geratu eragin gura hareri Urkitzak, baina emakumeak, «Orain ezer be ez» —erantzun eutsan—. Eta joan egin zan.

Urkitzak orduan Santxori:

— Hauxe dozu hemen Mosumerke, harako Etxebarriko Zizili...

— Harek emoten dau ixil-ixilik.

Santxo lotara zanean eta argia amatau, logurea urrun eba-la susmau eban.

Alderdi batera etzun, luze; gero, beste alderdira. Alperrik. Ez etorkion Marixe Bekaineko.

Bularrean atzaparrakaz tanbolina joten hasi zan; eta doinu ta esan hauxe gomutara jakozan:

«Neure maite polita,
Donostian nago;
ifarra gura neuke, maitea,
mendebala dago».

Loa gura ta logurarik ez. Eta ohea gizonarentzat ames-bide da-ta, eme-irudi-eskale da-ta, egun haretako barriketak gogora azaldu jakozan.

Santxo uri handian ohitua zan, eta uri txikiagoetako siko-logia, berarizkoa zala susmau eban.

Leku txikerragoko giroan, giza-jokabidea ikasgarri zan.

Uri handian hainbat gauza, beti ez baina sarri askotan, errez estalduerazoten dirala. Edo behintzat, itxuraldatu. Ja-zoera ta azi-orrazi guztiak beste batzuei ezkutetea ezina izan arren.

Alabaina, guztiek alkar ezagutzen daben uri txikerrago batean, nahiz-ta uri hazi samarra gerta, lotura gehiagoko es-tura-aroa sortu ohi da; eta goiko mailetako jentearen gorabe-hera larri edo ziztrinen barri zehatzagoa, azkenengo katuak be, jakin egiten dau.

Santxok pentsamentuok bere burugunean bira-biraka era-biltzan.

Uri txikietan hiru lau sendi dira jauntxotxiki langoak; bai-na jauntxu izan arren, ba dabe euren nagusitasunaren pare halango zerbitzu-buztarria, iztarbegia, txarto ikusi izana, sa-rritan.

«Eta horra Markos... herrikideen esames bihurtuta. Hemen, ganera, oraingo zerau dala-ta, zati bitan banandurik dagoz ge-hienbat uri honetakoak. Zati bitan, baina nabarmenkiro ez-bardinetan. Zelebreena, horraitio, bai Markos, bai Urkitza... biok...».

Eta loak hartu eban.

Santxo Garralda ikaslea zan, karreraa amaitu-hurren egoan, gerratea hasi zanean. Gudoinean, geroago, zauri handi zertzea gerta, eta hor ebilen ibili, makila sendoa eskuan.

Egun batzuk joan dira. Urian mutilik gitxi dago. Neskabila politikak, bai ostera.

Santxok bere buru barruko errotan eio daroa:

«Uri honek gerrateko lehen aldia be ezagutu eban, baina beste modu batera. Orduan, nagusi antzeko, gehiengoa ei zan. Gerogarrenean, gerrateko bigarren mandan... gitxiengoa nagu-si bihurtu da, uritik kanpoko lagunen indarraren, diruen, gu-rariaren eta grinen bitartez. Jauntxukeria barri baten bitar-tez».

Uriko militar gorenak, anai lerdena dauko orain bere etxean, bere alboan. Urikoak, egoera barrikoak, ostera, ez dagoz lo. Zer susmau eta zer ikusi ete dabe?

Aurrerengo dabiltzanek komendanteari, lehenengotan berba erdika, geroago brast! salakuntzea egin deutsoe.

—Zure anai gaztea, uriko edozein neskatilaren ondorik dabil. Horraitino, ez, gero, neskatilarik beroenakaz, baina...

—Ta?

—Santxok ez ditu bereizten «gure» neskatilak eta «gorrietariko» neskatilak. Polita izan ezkero, hor doa.

«Ene ba, Markosen antzera».

Tenienteak irribarre luzea egin dau, belarririk belarrirainokoa. «Polita izan ezkero... Neu be, politen zalea izan eta naiz, ba! Alabaina... eskandalu politikoa izango ete litzateke Garralda komandante militarren anaiea...».

Goragoko salakuntzearen betegarri, neskatilen izen erreskadea idatzi dabe, eta komandante jaunari bialdu deutsoe.

Izen erreskada baltza, laterrien arteko gerrate latzetan eratu eta erabili ohi danaren antzekoa.

«Hobendun» diran neskatilen izenak, arean bere, orandino Jordan errekan garbitzeke dirauen izenkadea.

—Hementxe daukat, Santxo, zuretzako bialdu deusten... arimearen errekomendazinoa — dirautso anaieak —.

—Zeeer? Zelan?

—Izenak dira, uri honetako gonadun batzuen izenak. Orain benetan berba egiten deutsut. Gonadunak dira, baina ganera... «emakumeak». Eta... kontuz zu honeekaz ibiltzerik!

—Paradisuko emakume pekatariak.

Santxok zigarrotxua izetu baino lehen, anaieari eskeini deutso.

—Zeuregandikoa dalako, erre egingo dot.

Anai biok dagoz ke barrien artean ixileko antzekoak garanduten. Santxok izenak irakurten ditu, iraisean.

— Asignatura barri hau ez dago osorik — dirautso Santxok bere anaieari —. Osotuteko, beste erreskada bat premi-nazko da. Bai. Eta besteak, emakume aingeruak edo aingeru emakumeak? Nun dozu horreen izenkadea?

Komendanteari, aitari noizean behin entzuniko esanaldiak jatorkoz gomutara; eta Santxok entzun degiozan, bere kautan bailiarduan, baina berba argi argiro eginez dihardu:

«Aita, aintzine, gaztetan, 1914-1918 gerrate aurreko udaldi batzuetan, senide batzukaz uri honetara etorri ohi zan. Aitari entzun behar!... Uria alaia zan, hemengo jenteak pozaren iturria edozein jazoeratan aurkitzen ei eban. Lanetiko irabaziak gehituten ziranean... Eta herri-jaietan... Edo kanpoko norbait urira heldu zala eta haren omenez kaleetan eta plazan soinua jotzen ebenean, eta txistularien txirulirua entzungarri zirane-tan. Beste musikarik egon be, ez egoan eta....! Herri osoa erro-meri, uri baketsu, anaikor... demokraziz beteriko hau. Eta aita-eta, pelotan jokutzen eben, eta sagardoa edaten eben eta dantzan egiten eben.

Eta orain... harek ez, Iruñan dagoalako, baina nik neuk da-kustaz kaleak hutsik, bazterrak ilun, plazan inor be ez. Ez dago ezetarikoinurik, ez dago barrerik...

Kanpaialdiak zertzen doguzanean, lau katu doaz kalerik kale, indarrez, bildurrarren joan be.

Egunero jatortaz urikoak nahitaezko mesede bila, ibilagiri eske.

Oztoztan bizi ei dira, ondasun barik, gizonezko barik, pe-naz beterik, noiz zer entzungo.

Aldi batean... hemengo neskatila garbi lirainak edonun agiri ei ziran; eta mutil sendo eta zintzoak, guztiok barre egite-ko prest kaleetan, eleizatik urteeran, plazan, zine-inguruetan. Tabernetan eta sagardaotegietan handikien semeak eta langi-

leenak eta bitartekoenak alkarren ondoan edaten, barriketan; eta pelotatokian, leku zabal zabalean, alkarren arteko jokaldiak atonduz. Haen sasoiak».

Santxok entzun eta entzun.

— Orain, Santxo, dana aldatu da. Eta okerrena, okerrena zera da. Jentez uriko gehiengo diranok gerratea galdu egin dabela... eta ez dabela ulertzen. Galdu dabenik ez dabe ezetara be sinistu gura.

— Galdu? Jokoa al zan, ba? Jokoa talde bik hasten dabe eta egiten dabe. Gerrate hau hasteko... talde bat bakarra gertau zan, bestea lo egoan artean.

— Eta!... Liburu okerren bat irakurri dozula, egingo neuke.

— Bizitzako liburua, my brother!

Afalondoko barriketaldia amaitu dabe anai biok, eta lotarra doaz.

— Gabon, Boni.

— Ondo lo egin, Santxo.

Bat batean...

Loran dagozan neskato neskatilak batu dira Santxoren inguruan. Anaiea ez dago agiri; ezta aita be. Bera da une horretan Garralda bakarra. Evaren alabek besaulki eder batean jesarri eragin deutsoe.

Zabal zabal dago jardin apain baten erdian.

Eme lirainok jantzi motxak ditue soinean, goitik behe samar, behetik goi samar. Hazur koloreko jantzi arinak, barrukoa be, erdi agiri jarten daben jantzi meheak, euliaren hegalen antzeko.

Dantzariak dira, eta hor dagoz gertu jauzika hasteko zeinua Santxok noiz egingo.

Hurren dagozanak lirainak dira, oilanda gazteak. Itziar, Bibi, Edu eta beste bat.

— Oraintxe! — oihu egin dau mutilak, eta neskatilak dantzari hasi dira.

Ingurutxo barri bat da. Lehenengo biribilkoan lau neskok dihardue atzera ta aurrera, oin puntetan dantzari, jauzi eta salto, jira ta bira, besoak gora, besoak behera eta oinak eta iztar ederrak... nekatuteke, zuhatzen adar-artean sortuten dan soinu gozo eta ernagarriaren esanera.

Bigarren biribilkoan, neska gazte mordo handi, berrogei, berrogetamar... Lehengoan antzera, baina soineko loditxuagoz, batzuek eskuetan zinta zuriak, beste batzuek gorriak, eta enparaukoek aretx-adar kimu orlegiak. Noizean behin, kantu bizigarriak eta zantzo alaiak, eta bandera baltzak eta gorriak be, astinduten dabez.

Une honetan Garralda zaharra aurreko etxe bateko balkoe luze batean agertu da, ete honen ondorik, bere seme tenientea. Zapi zuriak eskuetan, agur-agur baketsuak egiten deutsez neskato dantzari.

Hirugarren biribilkoan Aldaiko anderetxuak, txapel horiak buruetan, eta Latsarteneko anderetxuak, alkondara urdinak jantzita. Guztiok gona bardinez jantziak, belaun ingururaino labur. Honeen konpasaren eragile lez Maribel, Komendantzian behin bakarrik ikusi dauan neskatila baltzerana, bandera txiker bat eskuan.

Alborago M. Mosumerke, arrana dakar eperdiganean eta gura dauanean popeari eraginez, dalan-dalan soinua sortzen dau. Bular gizenetan, txilin bana zintzilik. Hiru biribilkoen ingurumarian bira handia egiten dau.

Urruntxuago andra Anastasi eta dama Susana datoz, zidarezko zigor-makila bana eskuetan. Besoak goratu eta makilakaz batera besterako zinuak eta pariztak egiten dabez. Garralda zaharrak eta Bonik balkoitik alde egin dabe eta barrura sartu dira.

Dantzan geldiunea egin da. Hirugarren biribilkoek itaune egiten deutse andra Anastasiri eta dama Susanari:

— Nor joko dozue?

— Markos, buru-buruan —dino andra Anastasik—.

— Hemen ez dago, barriz.

— Ba... aguro ekarri egistazue.

— Ezin, baina...

Emakume gazte guztiak dantzan hasi dira barriro. Horraitino, dantza azkarra da, sekulakoan arin arina, arrapalada antzekoa, zorabiozkoa. Biribilketa nahastaua da.

Lehenengo dantzarien erastuna ezkerretarantz dabil; hurrengo eskumatarantz; azkena, ezkerretarantz. Gero, danak geldi.

Bapatean andra Anastasi joan egin da eta dama Susanari bidea egin deutsoe, guztien artetik doa, Itsas Gorrian israeldarrak uraren erditatik joan ziran antzera.

Dama Susana, zidarrezko zigor astun dirdizaria eskuan, aurrera ta aurrera doa. Santxo buruan joko dauala dirudi. Neskatila guztiek deadar larri, zoli, minezkoa egin dabe:

— Uiiiiii!...

Baina dama Susanak zidarrezko zigor astuna lurrera jaurti dau, eta Garralda gaztenari bekoki erdian mosu egin deutso, eta mutilak dameari eskuan mun.

Berehalakoan lau maitagarri jatsi dira aretx-ganetik eta dama Susana lauren artean hartu eta aidean eroan dabe. Pozik doa damea eta guztiei haizezko mosuak bialtzen deutsez.

Bigarren eta hirugarren biribilkoek be, behingoan alde egin dabe, itsumustuan lez; eurekin doa Maru, arranotsez eta txilinotsez. Maribel, ostera, lehenbiziko biribilkoengana joan da.

Bost neskatila besterik ez orain, dantza dantzari hurrengorik hurrengo banan banan datoz eta Santxori matrailetan mosu bina egiten deutsoe.

Mutilak, guztiak eta bakotxa beso artean estutu gura ditu, baina eskuak gogortu egin jakozala susmau dau, besoak txinurrutu. Gura, eta ezin.

Santxo izerditan dago itzartu danean.
Oheko burrukoa dauko besartean.
Umeeek kalean kantuz dihardue jolasean:
«Kikura
bikura
lakirikon;
zinko
binko
engalapon...».



VII

Santxo jagi, garbitu eta jantzi danean, berbetan jarduteko gogo bizia dauko. Balkoera urten dau, balkoe luzera. Haize hozkirria dabil.

— Boni, hemen bai aro ona. Zatoz.

Anai gaztearen esana gogara hartu dau, eta lanaren jarraipenari ebagi txiker bat egingo.

Santxok, Bonik bart aitaren berbakaz esanikoa, barriro entzun nahi izango leuke. Atsegin izan jako, uriari dagokionez, Garralda zaharraren harritasun eta maitetasun agerpena. Harako uri alai eta atsegina, orduko mutil sendoak eta lagunginak, orduko neskatila ernagarriak.

Eta eskaria egin deutsan ezkeru, Bonik bartko berbak edo antzekoak esango deutsoz eta Santxok pozarren entzungo.

Horraino, honek, bere amesa gorde egin dau, beretzat bakarrik izango; ez deutso inortxuri jakinerazoko.

Mutiko soster batzuk agiri dira etxaurrean bertan, ibiltelekuaren hegalean.

Balkoian dagozan gizon biei begira hasi dira.

Balkoipera hurreratu eta ahotsa goratuz, iduneko zanak lodi-lodi dabezala, ozenkiro berba egiten dabe:

— Hor balkoian dagoan gizon handiagoa Pilatos da.

— Ez da, Herodes baino. Palaziokoa.

— Bai, Herodesek aginduten eban, alkatea kentzen ebe-
nean.

— Eta bestea nor da, bizarduna?

— Hori... Judas izango da — esan dau txikerrenak —.

— Ez da horrelan. Gure aititak dino ze, lehen, komendan-
tzia itsasoko gauzatarako izaten zala. Eta orain, barriz, gure
herrian edozetarako dala, eta... kaminuak jagoteko...

— Bai, kondutua behar dala Bilbora joateko, ta Donostia-
ra...

— Orduan horreek kamineru barriak izango dira.

Eta mutiko batek arrapaladan, zarataka kantari:

— «Larituri! Ahuntzaren esnea!...» haizeratu eban, eta bes-
teek zarataka gehitu «larituri, larituri, larituri... Aurrera!», eta
balkoian egozanak euren berbetea entzun ebala susmau dabe-
nean, ezkerreko besoak eskumakoakaz behetik gora jo, eta ba-
rezka itsumustuan joan dira.

Kontuak kontu, Santxok egun horretan kaleetan zehar
ibilteko gogorik ez dau barruan sentidu.

Irakurteko libururen bat, bere gogarakoa dana bilatu gura
dau. Despatxu-aurreko zerera doa.

Maribel, ordurako hantxe, bere lanetan. Paper batzuk hor,
libururen bat hemen.

Lehen baino politago eretxi deutso Maribeleri. Neskabila
atsegina, nunbait be, baltzeran hau. Emakume eratsua, egoki
danean irri gozoa ezpanetan, begien sakonean halango bareta-
suna.

— Etxe honetako liburutegian, irakurteko dan zer egoki-
ren bat egongo da, ezta?

— Giltzapean dagoz hor liburu ederrak — erantzun deutso
neskatileak —. Etxea erreki-xau zan arren, liburutegia orainar-
te errespetau egin dogu. Zer gura zenduke, ba?

— Elertiko zerbait, errez irakurtekoa.

— Olerti ala elebarri ala...

— Ba, bardin samar deust — mutilak bestela baitakoan

esan, eta neskatilea dagoan idazgelako aulki bigun batean jarri danean, Maribel zapalda txiker batean zer dagoan begira hasi da.

Mutila bat batean jagi eta neskatilearengana hurreratu da. Honengandik hurrerago eta halango usaina sentidu dau Santxok.

«Emakume usaina da, gizona zkoa erakarten dauana. Beste gizon baten alboan egotean susmetan ez dan usain antzekoa. Bestelangoa da. Usain beroa, usain hezoa. Potixeko usain gozoak aldatu gura izaten dauana eta nahastau. Emakume gaztearen lurrin zehe berezkoa».

Liburuak alkarren ganean dagoz, eta batzuk atzekoz aurrera. Santxok liburuon eraketea atonduten lagundu gura izan deutesanean, bien eskuak trabau egin dira; haren eskua- ren epela sentidu dau mutilak.

—Parkatu — dirautso esturaz eta arrapaladan Maribelek —.

Mutilak buruagaz ezetz dirautso, ez dagoala ezer parkakizun.

Eta Garralda gaztenak, neskearen eskuagaz alkar jo dauan bere eskua sudurraren pareraino jaso dau eta usain egin.

Neskatileak begi-ertzetik so egin deutso, ezer esateke.

— Zera... hemen doguz batzuk; azpian dagoz.

Eta Santxori hiru liburu eskeini deutsoz. Bata, «Guduko eta maitetasun poemak» da, bestea elebarria da, eta hirugarrena kontakizun laburrak dira, hain zuzen, edesti atalak.

— Zein da... zerena?

— Hori, bakotzak berak daki.

Neskatileak liburuok eskuetan daukaz, eta mutilak zerok hartzerakoan, barrero be Maribel eskuan jo, eta liburuok jaus- tean brastadea egin dabe salan.

Zaratara tenientea agertu da atean, eta neska mutilok liburuak jasoteko, bata hor bestea hemen, lurrerantz makurtuta ikustean, dirautse:

— Zeeer? Ugarasio jolasean, ala?

— Jausi egin jakoz — erantzun deutso Santxok —.

— Eta zuk batzen lagundu, ezta? Horretarako ez dago iztareko minik.

— Barrero be, mina opa al deustazu, anai?

Boniren barre gozoa. Eta jarraian dirautse:

— Ez horrelangorik, Jaungoikoarren! Nigaitik ez zaiteze lotsatu, horraitino.

Horixe esan eta barrero, bere despatxura sartu da nagusia.

Une horretan gazteek ez deutse alkarri begiratu. Neskatilea bere lan-mahaiaren aurrean jesarri eta liburu ta paper artean dau bere zeregina.

Santxo, liburu ezezagunei lehengotan egin ohi jaken ganeoko begiztaldia egin guran hasi da, orriak zizki-zazka iraulten.

— Maribel...

Neskatileak behingoan erantzun deutso, jakinguratsu.

— Zer?

— Zuk... zer ikasi dozu?

— Filosofia eta...

— Letrak — amaitu dau Santxok —.

— Argia zara, e?

— Ez zu aina.

— Nire irakasle izan al zara?

— Ez. Ikasle banintz...

— Zeeer?

Santxok sorbaldei gorantz eragin deutse.

— Harrezkero — gehitu deutso Maribelek — liburutegizain izateko nago gerturik.

Ixilune baten ostean, mutilak:

— Hau, zera, edestia... historigileentzat, eta arean, politikoentzat, nahiz-ta honeek haren irakatsi argiei jaramon lar ez egin. Horraitino, sarritan, guzurrezko historiak. Egilea nor dan, hobeto esan, zelangoa dan. Eta idazten dan asmoa, zein dan. Aker antzeko historigileak be ba dira.

— Zelangoak, Santxo?

— Okerrak; akerraren adarrak langoak.

— Parkatu, mutil. Baina lana egin behar dot; oraingotu egin beharra, egun batzuetan kanpoan ibili naiz ta. Beste uneren baten gura bazendu...

— Zer, ostera?

— Literaturaz berba egitea.

— Bai, bai. Ederto. Gai ernagarria da, zirikaria. Batxiler alditik harrezkero ez dot honetariko liburu askorik irakurri. Arlo honetako gai batzuek sentimentua bigunduten euskuen, ez da horrelantxe? Harako Kalisto ta Melibea, Abelardo ta Eloisa, eta Erromeo ta... Antzineko gaiak.

— Betikoak.

Eta Santxok, lan egin behar dauan neskatileari baketan laga deutso, eta leiho ondoan, beste jesarleku batean, irakurten hasi da.

Orrialdeak pasau-alean, neskeari begirakunea egiten deutso.

Maribelek, batzuetan erdi kantari, bere arloari deutso, makinaz idazten, eta noizean behin bere buruko uleak erdi orraztu antzean, ziri eta biri, eskuak erabiliz.

Tarteka marteka, etorri datoz behetik gora, ibilagiri eske, urikoak; emakumeak batez be. Komendantearen despatxura daroaz Maribelek, eta une labur ala luzeagoaren ostean, kanpora datoz, eta paper barria lortu ondorean, joan doaz mailadian behera.

Maribelek gutun azal batzuk bete ditu.

— Korreorako dira — dirautso mutilari — baina gaur behean lagun bat bakarrik dago eta...

Santxok bere burua eskeini dau, idatziok buzoera sartzeko. Besteak baietz langoa erantzun, eta Santxo kalera doa zeregin hori betetera.

Bazkal-ordurarte etxetik kanpora ibili da Santxo.

Sentimentu barriak daukazala igarten dau. Bakarrik egoteko gogoa, eta aldi berean inogaz egotekoa, susmetan dau.

Inogaz..., norbaitegaz; lagun jakin bategaz.

Lehen Itziar... Edu... Bibi eukazan gogo-gogoan. Harrezkero, alabaina, komendantziako goiko baltzerana.

Uri hau polita zana, aitak esan ei eban.

Ta bai. Polita da, atsegina da.
Horraitino orain, politagoa, atsegina goa. Bakarra, besterik
ez langoa.



VIII

Burutasunetan dihardu don Zenonek etxean.

Eleiza handiari handiegi deritxo. Hainbat urtetan hortxe ibili eta ez konturatu. Bere zeregintxua besterik egiten ez eban eta.

Inoiz be uste ez eban mailara, bat batean berbera heldu izana! Beste hiru abade zahartxuagoei, bera baino lehenagotik eta erreskadan gorago egozanei jo ta pasa egin, eta parrokiako sailean lehenengo geratu.

Aurretiaz herriko ta inguruetakako eleizgizonen batzarretan ez gailendu, eta horra, oraingoan, goizetik gabera, hitzetik hortzera, bikario. Brist! eta gora.

Eskoitarren matxinadearen ondorioak. Iraultza urdina.

Urian hainbat abade egon, eta orain, batzuk atzerriratuak, eta etxea kartzela dabela egonikoak eta komentuetan sartuerazoak.

Ez dauko don Zenonek zaletasun berezirik; ez da irakasle, ez ikastun, ez hizlari jaseko, ez historigile ez izadiko zeren ikertzaile, ez musikari. Bai zera musikari! Kantuetarako entzumen-doe aldrebesa dauko.

Sermoa egin behar izaten dauanean, jai handietan inoiz be ez, entzuleak be arbin eta artega jarten ditu, sermolariaren larritasunak eta estureak artegatu be. Kulpituan eskuak erabilten torpe samarra da, esaldiak azkar amaitu beharra izaten

dau, bernetan itoteko bildurra baileuan. Eta hori, noizean behingo sermoiak baino egiten ez dituala.

Pixu astuna heldu jako bizkarrera. Haren lepoa ez egon ohituta.

«Eleiztarren politika jokabideaz paperak nik be emon beharra! Horrelangorik nok aitatu dau, aitatu be. Alkatea sakristauko; ta abadea ertzaintzako? Abadeak zedulak emongo, eta alkateak paskoazko txartelak bananduko?»

Brebiario totoloa eskuan hartu eta zara-zara irakurten hasi baino lehen, ahots handiz esan dino:

«Oh, tempora! Oh, mores...».

Neskame loditoneak berbok entzun, eta ba dino:

— Gure abadea hutsari berbetan dabil. Gizajoa... ez da lehengoa.

Horraitino, abadea buruhausteren batek estututen ete dauan jakinguraz eta bere etxeko nagosiari zelan edo halan lagunduteko asmo onez, egoera arbin haretan, abade jaunari adorea baretuko leuskion zerbait eskeini behar deutsola otu jako zerbitzariari.

Behingoan esateko gogoa dabilkio mirabeari bere barruan, baina abade jaunak errezoak hasi eta horretan jarraitzen dauala ikusirik, unetxu batean itxarotea erabagi dau.

Berba egin beharrak zirikatuten dau, ostera; eta besterik ezean, sukaldean baztertxu epelean dagoan katu baltz ederrari berba egin deutso.

Honek, barriz, begiko kanikako lerro estuen betazalak goragotu, eta ez jakin zergaitik, bere burua arteak hartu ezinik lez jarri dau eta sutondoan garran-garran lo egoan lekutik bapatean zapart egin eta arineketan, don Zenon dagoan etxakira joan eta miauka eta marramiauka hasi da.

Dirudianez, ixilduteko asmorik ez dauko. Abadeari salmodia barriren bat eskeini guran edo; hain zuzen entzumen traketsekoa dan gizonari.

— E, zera! — dei egin deutso mirabeari —. Katu hau hemendik...

Eta orduan, neskameak, abagunea galdu barik dirautso abadeari:

— Jauna, lehen ezer eskatu al dau berorrek? Ezki-ura edo?
Ez deutso erantzun.

Baina, bere kolkorako bai esan: «Zeruan bizi da gure kria-
dea».



IX

Egunak aurrera joan dira eta Iñaziri seinatuta egiteko unean laster jatorriko. Barruan daukonak eupadea noiz egingo deustanaren begira dago.

Bakarrik dago etxean. Egun barriaren lehenengo orduak ihes egin dabenean, goiz beranduan, ama jatorriko estu ta larri.

— Barri txarrak daukaguz, Iñazi.

— Zer, ama?

— Zurrumurru gaiztoa, herrian honezkero zabal ibiliko da. Gure seme Antonek sekulako fitxa txarra ei dauko.

— Zelan jakin dozu? Baina fitxa hori... urirako bakarrik izango da, ezta?

— Ez, horixe! Ez, enetxual! Hori edonora joango da.

— Eta nire senarrarena?

Amak ez dau horri erantzuten jakin.

Atea jo dabe, eta bildurrez, ixilik geratu dira ama-alabak.

— Iñazi!... — dei ixil larria egin dau mailadian emakumeak —.

Atea edegi eta abuzil zaharraren alabea da.

Neu natxatortzue, baina ez nagiala inork zuekin berbetan ikusi ez entzun.

— Fitxa gaiztoarena esatera al zatoz?

— Hori baino txarrago. Gure aitak han, inor be konturatzeko entzun dauanez, uriko gizonen artean bost edo sei heriotz-epai, dagoaneko aldaezinik zertuko ete diran.

Hiru emakumeok negarrari emon deutsoe, zizpuru galantak egin ez. Gizon doakabeen errukarria!...

Heldubarriak alde egin dau eta harik lasterrean kanpaiak dinbili danbala hasi dira.

Zorioneko kanpaialdiak.

Zoritxarreko kanpaialdiak.

Norentzat dan.

— Beste uriren bat hartu dabe — dino Iñazik —.

Eleizako atean egon dago don Zenon, ez kanpora, ez barrura.

Hiru lau andra eleizara sartu dira, plazatik, kale nagusitik eta abarretatik ihes egin guran.

— Jauna, baina noiz...

— Gauzak konponduko dira — dirautse abadeak —. Gerratea zenbat eta laburrago izan, hilak hainbat gitxiago.

— Eta arriskuan dagozanak, heriotz-epaia daukenak, jauna?

— Paper hobeak egingo doguz.

— Baina, beranduegi, jauna. Lehen paper txarrak eginaren errua, zeinek ordainduko dau? Alargun barriren batek?

Gerratea hasi zanean zinegotzi zan baten alaba biak, olgetan benetan amenazu txiker edo larriagoak jasan ondoren, behinola, salakuntzea izan eben eta «Bildurtegi»-ra eroan ebezan, jagola zibilen etxera. Hemen, numeroetatik batek, bere kabuz berba gogorak esan ondoren, hauxe adierazo eutsen neskato haiei:

— Zuen giza-endea lorrindu egingo dogu, behin eta betiko. Zuen ondorengoak... odol nahastauko egingo doguz. Geuk.

Berbok entzuten lotsarren egon ziran neskatoek eta handik ikaturik urten eben.

Hori jazo ta gero, zerau gertau zan. Komendantziako jauregian etxe-garbitasunaren ardurea ebana herriko alabea zan, hain zuzen be neskato bion ama estimau bai estimau eukana, lehentxuago egin eutsazan mesedeak zirala-ta.

Garbitzaile hori neskatoei lotsa emote eta agiraka gogorren jakitun gerta, eta bertatik, jauregian eta herrian nagusi zan komandante militarri berari berba egin eutsan, eta jazorikoa zeharo azaldu. Tenienteak uriko txapelokerrei dei egin eutsen, eta inguru osoan militar agintari nagusi nor zan, barriren barri adierazo.

— «Eta beraz, aurrerantzean, salakuntza guztiak lehenengo honaxe heldu behar dabe, Komendantziara, eta behingoan, ganera. Kontuz ba, zeuon eskubide ta eginbeharretaz gain ibilterik».

Modu horretako salakuntzarik ez zan unada luzean jazo. Neskatoek arnasea hartu eben, garbitzaileak jakinerazo eutse-na entzun ondoren.

Zigor-zemai handien eremuan, behar bada, ez eban inork harako Talion legea aitatu izango.

Alabaina, horrelango zerbait jazo zan.

Heriotz-epaie gizon mordoska bat gerta arren, hilerazoteak mehaztu eta bakandu egin zirala zirudian.

Inazi seinan noiz egingo egoan. Don Zenonek, senarraren alde paper gehiago eta hobeak, mesedegarriagoak nun eta zelan eta norengandik lortuteko ahaleginik bizienak egingo ebezala eskeini eutsan. Zeregin horretan lagun, Gurbiz izango jakon.

Epaikuntzea denporaz atzeratuteko edo auzia barriro egingeko ahaleginetan jardutea. Odol-ixurte hobenetaz eskuak

garbi euki ezketino, heriotze-arriskurik ez egoala edo. Sinistu gura ziran esanak.

Horixe adierazo eutsoen, Gurbizek uri nagusira osterea, arineko osterea egin ondoren. Alabaina, jaun hau orduan, ezetarik kargurik bage egoan.

Zoritxarrez, batzuentzat, alperreko ahaleginak izango ziran.

Bildurra ebilen kaleetan, etxeetan. Handiagoa, gordinagoa, itzelena horraitino, kartzeletan.

Giltzapetuek, egunsetiko argi barria burdinartean susmau eta are ikusten eben ginoan, hogeituroko itxaropen barriaren zatikina euren alde eukela sinistuten eben, eta sentiduten eben.

Zelako zartakadak bihotzak, iluntze bakoitzean, zurrumuruak gela batean eta bestean hasten ziranean! Uleak lastu, arnasea estutu, odolaren tintina asaldau... eta gomuta mingarriak; emaztea, seme-alabak, gurasoak, etxeakoak, neskatila ezkoegi maitea...

Egun barriaren
argia ikustean
itxaropena dot
biztuta barrenean;
ilunabarrero
samina bihotzean:
nagoan morroiluz,
besterik ezinean...



X

Komendantzia laster kenduko ete daben, entzun da urian. Horrezkero, «Bildurtegi»-koen eskua indartsuago izango da, barriro be.

Beste albiste hau be, zabaldu izan da, arean bere, urion berton edo auzo-herrietan edo urrunago gazte batzuk ezkutaut dagozala. Azkenengo kintak deitute aldian jakin izan da profugoak eta abarrak dagozala. Honeek, arrapauak izan ezkero, langileetara eroango dabez edo desterrura, edo kartzelara be, ez jakin ba; kuarteleko ziegara behintzat.

Langileen sailetan, bizimodu gogorra. Desterruan, dirua aukeran euki ezkero, ez bizimodu txarra be. Nun dago, ostera dirua?

Foralen eta mikeleteen txapel biguna aintzakotzat hartua izan zan aspaldi; ustez, buruan jarten hasi ziranetik. Horraitino, jagola zibilen txapela, bere taiuari adi, bardingea dalako, hortik sortua ei da txapeloker berba hori.

Langile-sailetakoek herririk herri erabilezan, han urrunetan beti be. Gorriak zirala, inpernuko barrabasak baino txarragoak zirala entzun behar izaten eben edonun. Tokian tokiko sermoiak jasan behar izaten ebezan, baina sermoe bardinak, ostera.

Uritxo batera heldu eta han urrunean, hurrengo domekan iparraldeko mutil gorriok eleizara joiazala ikusten ebenean, lur urrunetako jenteak aitearenka hasten ziran. Halangorik! Urikoak kasik joaten ez, eta heldubarri barrabasak...

Eta egunak egun, langile behartuok orfeoia atondu eta meza nagusia sekulakoan abestuten ikusi ebenean... ezin sinistu, ikusten ebena ezin sinistu!

Inoiz kanturik entzun be ez zan uriko eleiza hotz eta hutsan, gorriek bi, hiru, lau ahotsetara kantetan...!

Eskuak odolez zikinduta ez eukitearen ulertzapena, antza, legearen edo agindu-emoilearen menean eta eskuan egoan.

Batzuentzat, herri-jagola izan zirala-ta, dudarik bako hobena egindakotzat etsi behar zan. Odolak odola zor, edo haren baten. Beraz, lehenbiziko epaikuntzan zigor nagosia. Batzuk, ez eben parkamenik izan; beste batzuk, bai.

Horraitino mendian gerrari lau ala izardun izaniko batzuek, lehenengo epaikuntzan, zigor nagosiaren epaia irabazi eben.

Jazomen batzuetan auziketa barria egitea lortu izan zan, eta sarrienik, epaia beheratutea, makaldutea. Inoiz, ostera, lehenengo epaia bera barriztetea jazo izan zan, hau da, heriotz-epaia ez aldatutea.

Eta hirugarrenez epaiketa egitea be gerta zan; eta orduan, betiko kartzalea edo hogetamar urtekoa ezartea.

Itxaropen tantaka bizi izatea zan, suero dalakoa, odol-gazura zanetan tantaka hartzen dauana bizi ohi dan antzera.

Kanpotik etorrenak, bihurtzerakoan, zibilen kuartelera agertu beharra eukan. Anartean han fitxarrik euki ezik, orduarik gorakoan eukiko eban.

Uritik alde egin ez ebenak, kezka horrezaz etxekotuta, gura ta gura ez, egozanean... ihesi joan ziranak urira bihurtzean, euren ardura barriagaz ilunduago egin eben egozanan egoerea.

Hara egiteko agerraldiak mailaz-maila eratuta egozan. Batzuk egunero joan behar ziran «Bildurtegi»-ra; beste batzuk, egun birrik behin, eta igandean jai; hurrengoak, astean birritan edo astean behin. Hamabostean behingoak be ba egozan, edo hileroko agertu beharrekoak.

Jazoeren joaneran aldakuntzak izaten ziran, gehienetan epeak luzeagotuz.

Iñazik seinu egin eban. Mutiko polita. Auzoko emakumeen esanez, aita berbera. Amamaren berbetatik, amaren antz-antzekoa.

Don Zenonek behinola agindu eban lez, berak bateatu eban.

Aitabitxi-amabitxiak eta umea eta hau eroian andrea eleizara heldutakoan, abadeak, don Zenonek itandu eutsen:

— Sein honeri, zein izen ipiniko?

— Umearen amaren osabeak idatzi deusku eta izen bat aitatu, eta horixe ipiniko jako: Bittor Joseba.

— Ene ba! Zelan izen... biko hori? Eta... euskal-izena...

— Jauna, ez dakit berorrek gogoan daukan — erantzun eutsan seinu eroian andreak, hain zuzen umearen amamak —. Izan horreek ebazana gure osabearen ikasle zintzo bat izan zan. Abade eginbarri Arabako Maroñon hasi zan arima jagola. Matxinadea hasi eta etxean idazki edo gutun batzuk aurkitu eutsoezala-ta, komunistek harrapau eta gerrogo «Cabo Quilates» itsasontzira sartu eben, beste batzuekin batean.

Udazken haretan bertan, urrian, komunistek barrero be, ontzia euren menpe hartu, eta egun batzuetan kubiartan biloiz biloiz erabili ondoren, eta mangerakaz ur hotzez burutik behera busti azkenaren buruan, tiroka hil eben jente mordo; eta honeen artean Bittor Joseba, gaxik bagako eta errurik bagako abade gazte, lureko aingerua.

Don Zenonek, sentimentuaren handiz, buruari beherantz-gorantz eragin, eta seinari izen biok ezarri eutsazan.

Gurbiz eta Txomintxu, alkarren lehian, prest egozan gilzapetuen alde ahal ebena egiteko: paper barriak egitea, abalak eta abar.

Gizonok eta beste pertsona batzuk, herritarren zaurien gogazgarri eta osagarri gerta ziran.

Horregaitik, ondo eginak bihotz esker onekoak aurkitu ebazan, gerraldiko eta osteko laztasunak zelanbait arinduz, gizabidea zeharo lorrindutea gerta ez zedin, eta herritar guztien arteko aspaldietako adiskidetasuna ta gurari ona, bai os-tera.



XI

Jai egunen iluna, uritxuan! Astegunen antzeko ziran.

Arratsalde eta iluntzean ez zan inor plazara joaten. Jakina, ez egoan ez musikarik, ez txistu-soinurik. Gerratea amaitzeke egoan.

Anartean, urian ez egoan dantzaleku itxirik. Garizuma luzea, benetan.

Kafetxeetan, tabernetan batzen ziran kintapeko mutil gazteak. Azkenengo sagardaotegia be, itxi eben. Neskatilak, arratsalde lehenean, igande ta jaietan eleizara joaten ziran, eta geroago, etxera, edo neska lagunen etxeetara, txandaka.

Irrati entzungailuak gerrateko lehenengo aldian batu egin ebezan, eta lagun asko hain barik geratu zan geroetan be. Zinera be, ba egoan joera apurra; dirurik ez, ostera, zineetara joan ahal izateko.

Horretaraxe galdu zan aldi haretan aspaldietako ekandua, arean bere, jente gaztea jai arratsalde eta iluntzetan plazartzeko ekandua.

Neskatilak eta neskatoak eurek bakarrik plazara joateko joranik ez, eta orduko prakadun gazte banaka eta gaztetxuen antzera kafetxeetara, barretara eta tabernetara joaten hasi ziran.

Hasibarritako erdi lotsea ta atzerapidea alde batera jaurti, eta aurrerantzean, gazteek alkar aurkitzeko tokiak leku itxiak, taberna zuloak eta abar izango ziran, eta ez ordurarte lez, uriko plaza nagusia.

Kaleko argiak gero ta motelago, ilunago, edatetxe barrien antzean. Kaleak be, konpondu ez, eta gero ta zaharrago, maskilduago, apurtuago egozan, zulo eta koxka ugari ebezala. Euria zanetan han hor hemen ur potxingoak, ume ez-jakinek euren oinetakoak txipli-txapla eginez hondatuteko, eta zahar-ragoek laprast egin eta min hartzeko arriskua izango ziran. Udalak diru neurtua euki.



XII

Alderdi zaharreko auzoan txakur batek zaunka ta zaunka ziharduan.

Mirabe gizen bat etxeko mailadian behera arrapaladan jatsi zan, esturaz eta berbartua bailegoan; beheko bizitzako andreari adierazo eutsan:

— Don... don Zenon... hil da!

— Ene! Zer diraustazu? Noiz, nun, zelan?

— Za... zatoz gora, mesedez.

Emakume biok goiko etxebizitzara igon eben.

Han egoan egon, lurrean, gogortuta, don Zenon zanaren gorpua, begiak zabalik, belarriak zorrotz.

— Bazkal-ostean... ba dakizu... lo sumatxua egiten eban. Bazkalduta, ni, sukaldera joan naiz; ha bere gela handira. Tresnak egin dodaz, harrikoa; zer batzuk josi eta abar. Eta... orduak aurrera, ta abade jauna agertzen ez. Joan natxako, atea jo dot, behin, birritan... hiru bidar... Alperrik. Ateari sakatu deusat eta dana ixilik.

— Eta orduan?

— Don Zenoneri ate-ondotik dei egin deusat, ondorenik бага. Begira ta begira eta ohea hutsik. Mahai-ganean brebierio lodia edegita eta alboan paper zuri handi bat, idatzita, letraz beterik. Jesus maitea!... nik dakidanez etxetik ez urten... eta nun?... Ohearen beste aldera joan naiz, eta hortxe, lurrean luze.

— Baina, hilda?

— Oraintxe dagoan lez. Ikusi zeuk!
Albista ez ustezko eta ilun honek zartada galanta egin
eutsan herri osoari.

«Bikario barria hil da».

«Don Zenon hilda topau ei dabe».

«Gizajoa».

«Gure Jaunak emongo deutso benetako epaia».

«Batzu-batzuentzat Goiko abisua da».

Abade, sakristau, medikua... izan ziran, hilbarriaren etxe-
ra lehenengo heldu ziranak. Hurrengo, Gurbiz jauna. Eta
Osiñeren partez herri-jagola bat, zer gertako.

Medikuak gorpua gane-ganetik ikertu eban, eta baietz, hil-
da egoala ziurtau eban. Abade-kriada morroskanea, sukal-
dean, larria eginda egoan, eta hari be, jaramon egin eutsan
osagileak, Urkitza jaunak.

Etorri zan abadeak azken-orduko untzinoa egin eutsan
don Zenon zanari eta ohi dan otoia zertu.

Gero, guztiek alde egin eben; Gurbizek ez, ostera.

Neskamea bere senera zanean eta arteak hartu, Gurbiz
jaunari, ekian apurra azaldu eutsan.

Ikusgura, brebiarioa non egoan eta harako paper zuriak
zer inoan jakin nahirik, Gurbiz han joan zan mahai alderantz.

Brebiarioa ikusi, paper zuria eskuetan hartu, soineko jakea-
ren goiko sakeletik antiparrak atara eta irakurten hasi zan.

Neskamea begi-begira egokion, arbin, larri eta jakinguraz.

— Ezer idatzi al dau, jauna, azken-ordua ebala susmaurik?

Gurbizek ixilik ziharduan irakurri ta irakurri, eta ez
eutson behingoan jaramonik egin.

— Sermoe bat da — erantzun eutsan geroago —. Baina ez
dau hau harek, don Zenonek idatzi. Hemen... karta-azal bat be
ba dago egon. Ba barruan... baita! papertxu bat dakar.

Papertxua irakurri-ala, Gurbiz jaunaren bekokia tximurrez bete zan, eta bekainak batean gora, bestean behera, ebilkiozan. Ixilunea.

— Kartarik hartu al dau gaur?

— Bai, jauna. Goizean gizon batek karta bat ekarri dau. Kanpotik datorrela, esan deust, eta haxe niri emon, agur egin eta joan egin da.

Azala eskuan hartu eta neskameari erakutsiz:

— Hauxe ete da?

— Baita. Horixe da, izan be.

Papertxua ahots goratuz irakurri eban Gurbizek:

«Askatasuna galdutako abade lagunak, askatasuna moduren batean galdu ez dauan abade lagunari. Otoi luzea egizu lehenengo, eta gero beti zintzo jokatu. Gure Jaungoikoak ez dau legerik aldatu. Seminarioko «Urliatxu»-k bakezko agurra zuri».

Bai papertxua, bai sermoia euskeraz idatzita egozan.

Gerrateko bigarren aldiko unada hatan Bizkaiko uritxu eta baserrietako eleizetan be abadeek euren sermoiak Cervantesen berbetan egiten hasi ziran, goragoko zeraren ebazpenez. Arimak, sarri, hizkera jator eta egokirik bage geratu ziran. Pentekostes barria, nunbait, baina azpikoz ganerakoa.

— Beraz, sermoia da... ez testamentua.

— Bai, alabatxi. Ez da azken borondate papera. Sermoia da, arean bere, «Artzain ona» dauko izentzat. Irakurri ete dau don Zenonek?

— Baietz esango neuke, jauna. Behin eta barrero be, irakurri dauala. Lau bidar dei egin deustat mahaira bazkaiten etor zedin. Eskuetan, paper luze horreek eukazan, eta jatorduan ez dau gaur bapere barbarik egin. Aspaldion... horrelangoak sarri izaten dira, gogo bako jate murrizak; eta ez jat harrigarri gerta.

— Barruko harra!

Gau haretan erabateko haizea, brastadakoa sortu zan. Uri-koek alarau, txilio, aiene eta intziri mehe ta luzeak ikaraz entzun ebezan. Infernuko atsoak, pamerialak eta arima fielak teilaturik teilatu ebiltzala esan eitekean. Leihoetako atetxuak blisti-blasta ibili ziran, haizeak eraginda.

Gerogarrenean, bat batean, ixiltasunak bere hego arin, ikutugatx eta ikusiezinak zabaldu ebazan.

Uriko jentea luzaro egon zan lorik egiteke.

Arimaren bat ebilen hara-hona bidea erratuta.

Uriko atsorik goiztarrenak albakoa, albako kanpaia entzun ebenekoxe, jagi, jantzi eta eleizara joan eta otoika hasi ziran.

«Arima galdua ibili da bart hor, teilaturik teilatu, intziriz eta negarrez».

Egun barri horretan, inguruko baserrietako abadeak batu ziran eleiza handian, don Zenonen hileta elizkaria zertzeko, bazter haretako behin-behineko artzipretea be, berbera zanez.

Bost edo sei abade zahar eta sasoko batzandu ziran.

Elizan hutsune handiak egozan inor barik.

Agintari egozanak eta honeen laguntzaileak han agertu ziran, eleizkariari ospakizun jasekoa emon nahirik. Herriak ez eban erantzun.

Gurbiz eta Txomintxu alboko jesarlekoetan alkarren ondoan egozan.

Otoiak amaitzerakoan, kurutzedun eleiz-mutilak, abade zahar batek eta anderuak, gorpua eroiela, igon eben hilerriraino.

Igotaldi horregaz amaitzen zan don Zenonen histori motxa, edo historiarik bagako historia.

Geroago, Gurbiz botika batera sartu zan. Botikarioari harako papertxua erakutsi eutsan. Botikako barrukoaldera joan

ziran, han astiroago ta nasaiago irakurri ahal izateko, bai papertxuak inoana, bai «Artzain ona» hitzaldiaren zatiren bat edo beste.

Irakurri-ala, denda jabea artega, urduri jarri zan. Gurbiz ixilik egoan. Handik apur batean esan eban:

— Papertxu hori idatzi dauana, susmoa dot, susmoa... Ez. Horren idazlea zera dala egingo neuke... Bai; berbera. Hor gizon zintzo bat egoan, gizon zuzen bat... nahikoa ez ete zan? Eta hasiera hasieran ez genduan artez jokatu, ez genduan neuririk emon. Motx lotu ginan.

Une honetan Santxo sartu zan botikara.

— Ave Maria...!

Barrukoen barbaroa ixildu eta botikarioa agertu zan eta aurkez-mahairaino heldu.

— Erbestean izan naiz atzo eta gaur — esan eban Santxok — eta lehen, urira naizenean, betitsu hutsik dagozan kaletan, han hor hemen hiru lau laguneko aldrak, eta txutxuputxu berba ta berba ikusi dodaz. Itandu, eta don Zenon bat batean hil eta hiletea izan dala. Bart ibili dan haizea be, aiatatu deuste.

— Bai, eleizan baino lagun gehiago dago kalean, gaur.

Santxok eskuan eroian makilea bazter baten laga eban eta aulki baten jesarri zan.

Gurbiz be, agertu zan, barruko atean.

Santxo jakingura egoana igerri eta Gurbizek zertzelada gitxitan azaldu eutsan.

— Don Zenon... hilda aurkitu. Bai. Gabeko haizea, oster, ba... horixe baino ez da izan. Haizea. Herriak horraitino, zeruko mirariak edo gura ditu; baina horretarikoak baino ez diran mirariak sarri izaten dira. Ba dakizu, uri koskorretan antzinetako siniskerak.

Ixilune motxaren ostean, botikarioak gehitu eban:

— Jakintzea izan behar da gure gidari, eta ez sineskeriak.

— Zera, sorginak eta, infernuko atsoak eta... ibili ei dira teilturik teiltatu, arima galdu baten ondorik edo — esan eban Gurbizek —.

— Eta arratseko gaberdian be, ausika jardun ebela, zaun-

ka ta zaunka. Esamesak, asmakizunak. Gauza larriagorik ez bailegoan.

— Alabaina, ez da ahuntzaren gaberdiko eztula — inoan Gurbizek — modu horretako heriotzea, eta horrelango gizon batena.

Zertzelada gehiago egoala eta harako papertxua eta «Artzain ona» hitzaldia, biok eskuz idatziak, erakutsi eutsazan gazteari.

Oharra irakurri eban Santxok.

«Askatasuna galdutako abade lagunak, askatasuna moduren batean galdu ez dauan abade lagunari. Otoi luzea egizu lehenengo, eta gero beti zintzo jokatu. Gure Jaungoikoak ez dau legerik aldatu. Seminarioko «Urliatxu»-k bakezko agurra zuri».

Eta gizon zaharrago biei begiratu eutsen.

— Hainbat gauza lerro gitxitan! Jokabideren bateri buruzko salakuntzaren bat agertzen ete dau?

Gizon bien zalantzea argitu guraeza susmau eban nafarrak. Orduan hau gehitu eban:

— Gauza bakanak jazoten dira uri honetan! Ganerakoan, Artzain onak ez eban inoren kontra gerraterik ez gorrotorik sortu.

Uriko komendantzi militarrean agerraldi pozgarria izan dabe. Garralda zaharra heldu da, semeengana. Honeekin, eta bere sentimenean estimau eukan urian egun batzuk emoteko ustean.

Ba eukan gogotxua hemengo kaleetan ibilteko, hemengoan artean egoteko. Kaleko harriak zapaldu-ala, gomuta zaharrak irakiten hasi jakoz. Toki hau, bazter hori, harako...

Bai, hor dagoz, lehengo tokian, lehengo antzean... etxeak, hormak, batzuk zuriak, besteak ilunak; teilatu gorriak, zuhartzak, alde zaharra... ez dira askorik aldatu. Bost sei etxe barri, hogetaz urteak iragan arren.

Horraitino... herria erdia edo haren baten hutsik dago, ka-

leetan haizea besterik ez dabil, biztanleen penaz intziri egiten dauan haizea.

Orduko ezagunik gehienak, urteen bultzadaz, hilak; beste batzuk desterrata, giltzapean edo urrunera aldegin.

Etxean egoteko gogo sortu jako bere barruan.

«Nun da aspaldiko lagunartea, adiskide-aroa; nun, gizon zintzoak, gazte sendoak, neskatila garbi alaiak?».

Alabaina, dama Susana aurkitu dau ezagunena, eta andra Anastasi. Zumel be, hil zala; Txomintxu batez be etxezulo bihurtuta, eta urlia ta urlia, erbestean. Orduko osagileak, lantegijabeak, olajaunak, abadeak, nun...?

Arratsaldean Santxo, Maribel lanean dagoala, ondora joan jako.

— Berbaldia eskini neutsun lehenagoko baten, Maribel. Edo zeuk neuri, bardin da. Ez dakit. Literaturazko iruzkina egitea. Eta, liburuok bihurtzen deutsudaz, bide batez.

— A, bai. Irakurri al dozuz?

— Bai, olerkiak politak dira.

— Zegaitik? Ba ete dakizu? Elederrezko azterketea egingo deutsut.

— Ba... zelan esan baneki... Zera, lehenengo ta bat, argiro idatzita dagozalako. Eta hizkera jatorrean, bizian, benetakoan. Ba dakit iluntasun joerea datorrena. Inork ulertzen ez dituan lerro eta lerrokkak idazteko seta eta tema zitaltsua, nunbait...

— Sentimenturik bagako poesia, ez al jatzu atsegin?

Buruko poesia beste maila bateko ete dan uste dau Santxok.

— Horraitino, elebarria era ta modu askotakoa da. Hor be ba da irudimenik eta sentimenturik. Historia, ostera, histori zehatza legorragoa da, gizonen egitadak azaldu arren. Biografi lanek irakurle ugari lortu daroe — gehitu deutso Maribelek —.

— Eta, zegaitik?

— Historia zehatza ez diralako, zera esan gura dot, azaleko edestia bakarrik ez diralako.

— Eta nobelea zer da, zure aburuz?

— Asmakizuna da, idazlearen lana; bere alorreko solon

erein, jorratu, landu eta bildu ohi dauan jazoera luze ala laburragoa.

— Beraz, hor, asmamena...

— Bai, asmamena dabil nagusi. Halan be, zeharo benetako diran gaiek eta zertzeladek hornidu legie kontakizuna.

— Jostunaren kutxea ete dan be, entzun dot nik, Maribel.

— Idazleak horretarako behar dan doe berezia baldin badau, elebarria benetakoagoa izan leiteke.

— Horraitino, idazleak asmau...

— Gizonaren jazoeren barrukoa bilatzen dau.

— Eta horko lagunak, benetan izan diranak horretarako hartu eta erabili ezean, irudi huts ez ete dira, Maribel?

— Idazleak emongo deutse bizia, barrua, asmoak, grinak, benetako gizon edo emakume bihurtzeko ainean.

— Beraz, historia halango estadistika soil gerta daitekela?

— Ausaz, bai, sarri askotan. Greziako burruka batzuetako gizonen kopurua ba dakigu. Gizon bakotxak, ostera, bere ibilaldia, bere buru ta bihotza, joan etorriak ditu, eta histori handian ez...

— Alabaina, ezin gizon bakotxaren historia idatzi.

— Ez; baina elebarriko gizonak eta andrak, haetariko bakotxak gizaseme baten zera emoten deusku, eta guk, irakurleok aintzakotzat esten dogu eta arduraz baina zaletasunez sartzen gara haen barruan, eta besteren pena, atsekabe eta besteen buruhaustek gure geureak arindu egiten deuskuez. Edo gura badozu, haen lagun eta kide egiten gara, eta okerre-tan eta zorionetan partaide izatea gustetan jaku. Eta hortxe datza elebarriaren erakarpena, gure jakingurea zuzperturea, irakurte guraria biztutea.

— Eta harako ospatsu jarten diran memoriak eta...

— Ez dago zuribiderik, idatziriko guztia egia ete dan. Memorigile batek, besteren azi-orraziak zuzen esan daikez, ausaz, ahal dan ginoan eta gura dauan sakontasunean. Halan be, bereak ezkuta, bestelakotu edo guzur-jantziz eskeintzen badeuskuz... nun dago historiaren benetasuna?

— Eta kontakizunetako lagunak, batzuk bai, baina besteak...

—Jakina; bardinak ez gara-ta. Batzuek nortasun bedegar, nabarmen eta indartsua agertzen dabe. Beste batzuek, ez. Munduko edo bazter bateko pertsonak izango dira, eta ez dira bardinak izango. Sokatirarako edo estropadetarako hamabi edo hamalau mutil sendo ez ditu inungo idazlek nobela batean pertsonai bardin antzeko jarriko, edo guztiak banan banan berezikiro ikasiko eta pertsonai lez erabiliko. Hainbeste be, ez. Aspergarria litzateke.

—Horrezkero, histori-antza makaldu edo...

—Zera izan behar dozu buruan, elebarria arte-lana dala, ederbide dala, eta bere legeak dituala. Ez da batailoiko soldautzat lapiko handi batean baktoxarentzako jateko aparta gertautea.

—Teatroan lez, lehen-mailako lagunak eta...

—Horrelangoren bat. Batzuk nagosiago, argiago; beste batzuek makalago, ilunago. Batzuen barrua ikusi gurea sentiduten dogu, norbait nabarigarri danean, baina ez edonorena. Ume baten buruan edo zoritxarrez gizon edo andra burumakalaren barruko joerek eta asmoek ez deuskue gehienbat halango erakarpenik agertzen ez zirikadarik eragiten.

—Labur esateko, irakurgaiak horixe dira, denporea emoteko ederlanak.

—Ikasteko be bai, ostera. Eta ederbideotan zehar ibilteko. Eta nun eta noiz be, aitatu behar da nobelan, osterantzean porrot egingo dau idazlearen lanak. Nun hori, guzurrezko izan arren; noiz hori, idazlearen buruan eratua gerta arren. Besteen oinazeak, jazoerak, pozak eta penak...

Garralda zaharra despatxu sarrerako ate nagosian agertu zan eta Maribelen azkenengo berbok entzun ebazan. Jakin ekian, seme nagusiak esanda, baina gazteok alkarren ondotxuan barriketa gogotsuan aurkitu ebazan.

Santxo pozarren egoan eztabaida txikerraren inguruan. Pozago, ostera neskaitila atseginaren ondo-ondoan egoalako, harako haragiaren erakarpen ixila be sentiduten ebala, hara-

ko usain bereizia; eta batez be eta guztiz be, lehendik ezaguna zan erakarren aintzinetikoaren ikutua ebana zalako edo, beste nunbaitetik eta zerbaitetik etorrena.

Eta bat batean aitak:

— Santxo, ba al dakizu Maribel laster Madril aldera joango dana?

— Noiz?

— Madril hartuz batera. Gu, barriz, Santxo, lehenago joango gara Iruñara. Zure anaiek esan deustanez, hil honen azkenean lagako dau Komendantzi hau.

Aita despatxuan sartu zan. Santxo harrituta lotu zan, braustadako barri atsekabetsu ziran albista biokaz.

Eta berehala, Garralda tenientea agertu eta esan eban:

— Maribel, amaitu da gaurko zeregina. Joan zeintekez.

Neskatila baltzerana kalerako gertetan hasi zan.

— Maribel, geroago, nun?

— Ez, Santxo, gaur ez. Dama Susana nire begira dago. Bihar.



XIII

Don Zenon zanaren hileta eleizkizunetara uriko lagun gixi agertu zala-ta, Osiñe hasarrealdiak hartu eban.

Alkate eta uriko Mogimentuko buru zanak, herriaren ardurarik-eza eta borondate epel eta zarkila susmetan ebazan.

Herriak jaurpide barriari gora eskasa emoten eutsalako, barrua asaldauta egoan. Eleiza galanta, hutsik, plazan inor be ez. Asteguna ala jai eguna izan, bardin.

Kaleetan horraitino, jentea lotsea galtzen hasi ete zan; aldra txikitxuetan barriketan jarduteko, lar eta gehiegi, horraitino. Ez zan hainbeste, baina Osiñeren optikan halantxe zan.

Abertzaleen batzetokia izan zan etxe zabalean Azkonak eta Pelaitxuak batu gura, eta jentea ihesi.

Garralda tenientearen noizbaiteko berbak buruz ikasi, eta Osiñek, bereak bailiran esango ebazan sarritan:

— «Galdu egin dabela, galdu!... eta ezin sinistu dabela». Bai jente setatia, buru gogorra. «Eta sinistu, egin gura ez...».

Osiñeren estrategia.

«Gizarte-Babeserako bale barriak, txartel bereziak egin behar izango doguz. Eta nagusiei, eleizako atean banandu. Eleizara ez doanari... laguntasunik emon be ez; goseak hil dagizala. Neskato-mutikoei, barriz, datozala haraxe, Gazteri-Indarrera datozala, jan gura badabe, eta bestela hor konpon, doazela larrara bedarra jaten».

Udaletxeko batzar aparteko batean, Osiñek berba horree-

kaz hasi eban bere hitzaldia. Zinegotzietz ganera, erregimen barriko laguntzaile abarrak be, batzarrean egozan.

— Neu naiz hemen, neu, uriko alkate eta uriko mogimentu buru. Nigaz ez dagoana, nire aurka dago; beraz, mogimentuaren aurka. Neu naiz mogimentu bakarra...

Maru Mosumerkek irribarre gaiztoa egin, eta.

— Turrit! — adierazo eutsan alboko bere lagunari —. Besteok ez ete dogu zirkinik? Agure horrek gauza ona zer dan ez daki.

— Ixilik, harik-eta neuk amaitu arte.

Eta jarraitu eutsan:

— Uri honetan alkatea alkate. Herri jagolak, zaintzaile besterik ez dira. Horregaitik eta horretarako irabazten dabe soldatea.

Batzarreko lagun guztiak bata besteagaz berbetan hasi ziran.

— Guztiok ixilik! — deadar egin-ala, txilina jotzen zihar-duan —.

— Hamar zinegotzi gitxiegi bada, hogeitau egingo dodaz.

Piter zinegotziak, bere begi txikerrak txikerragotuta, barre algarea egin eban.

— Ez barrerik egin, Piter; gauza honeek barre egiteko ez dira-ta.

— Hogeiko udala? Hori guzti hori lar da. Jo dagigun harira, nahastau egin gara-ta — zertu eban Benito Mokorzabalek —.

— Zu, herriko polizia sekreta egingo zaitut.

— Barrab...

— Zer dinozu?

— Barrabaskeria, esan gura neban. Hori, dagoaneko be ixileko polizia da-ta!...

— Iperdikarea, zu be ixilik — erantzun eutsan —.

Ezizen hau zinegotzietarik batek eukan. Ez zan herrian bakarra txorien izena ezarririk eukana. Txio, txepetx, zozo, okila, mozolo eta abar egin egozan.

Gizarte-Babeseko emakume ausartak eztabaida garra-ztean sartu ziran, alkatearen haizeen aurka. Herriari emoten

jakoan jateko murrizak, gitxitu barik, gehitu egin behar zira-
la aitatu eben, jentea herrira apurka apurka bihurtzen hasi
zala-ta.

—Ez gatoz bat, hor presidentziak erdi-esan dauanagaz.
Lagundu ahal bada, lagundu. Ahaleginak egin, behintzat. Eta
ostantzean, sarratu, eta kittu!

Goseak unada haretan eta ganeko urteetan areago, zer
pentsau itzelak sortu ebazan. Janarien urritasuna izan arren,
zorriak eta azaleko gatzak ugaritu egin ziran. Ugaritzeok, ba-
tez be, langileen sailetan eta gudoinetan burrukan ziharduen
gazteen gorputzetan gerta ziran. Tifus exantematico eritxoan.
Kartzeletan be, agertu ziran patariok.

Soldauei eta milizietako mutilei, sarna hori kentze asmoz,
gudoinean bertan eta bigarren lerroan bertan osapide hau
zertzen eutsen; arean be, ukondoaren barruko aldean da-
goan zan loditik odola atara, eta odol horixe bere jabeari
eper-maminean sartu barriro. Botika gasturik bage; txiringea
erreminta bakar, eta sartu honi, hari, eta beste ehun lagune-
ri, egunero.

Zorriei izen barriak ipini eutsezan; lehenengo aldia gomu-
tauaz, «trimotor»; geroago «txubais».

Soldau batzuek mairuen berbakera tintila entzuteko auke-
rea izan eben; urdaiari «galufo» esaten eutsoela.

Barreikarria zan. ¡E, Paisa! Gualo, gualo majalandutxi».

Eta mairuek, peninsulan gizon zuriak menperatzeko Afri-
katik ekarririko azal iluneko gizon haek, iztarrarteko prakak
zabal luzeak eukezanak, soldauei eta milizietako mutilei gu-
doinean bertan, jateko eta edateko gauzak saltzen eutsezan,
zabalkunde deadar mehez adierazorik: «Txikolate, aanis, koo-
nia, galeta, papel escriba mujera, novia»...

Zorro astuna bizkarrean eta besoan, trintxera ostean ber-
tan ibiltzen ziran, euren salgeiak eskeintzen.

Saleroste ausarta zan. Ez jakin gudoinetan monopolio an-
tzekoa ete eben.

Dana dala, diru apurra sakelean edo aldean euken sol-
dauek eta milizietako mutilek, gosea arinduteko eta gorputza
alkoholez berotuteko aukerak izan ohi ebezan.

Gerrarien artean gauza ugarien euki ohi ebenak, legionario
ospatsuak ziran. Uri txiker batzuk hartzerakoan, teladendak
eta garbituteko, ez ziran besamotxak. Gero, gauzaz beterik,
preminan egozan uritxueta neskatilei jantziak erregalu
emoteko prest egoten ei ziran, jakina, narruaren truke.

Aginduak agindu, bat, guztiz zehatza heldu jaken behinola
mendietan, troketan eta lautadetan gerran ziharduen milizie-
tako mutilei. Goizetik gabera hauxe entzun, sinistu eta bete
behar izango eben: «Miliziak be, bat dira». Alkondara urdinak
eta txapel gorriak bat izango ziran. FET.

Bestalde, margariten eta neskatila alkondara urdinen age-
rraldiak pozgarri izan ohi jakezan gerrariei. Izan be, mendi go-
renetako egotaldietan, mutilek asteak aste, ez eben gonadunik
ikusteko aukerarik. Horrelan ikusmena ta irudia zeharo galdu
ez egiezan, mendiko txaboletan, harriz, zogiz eta arbola-ada-
rrez eginiko txoznetan, edo besterik ezean lonaz eraturiko
txoznetan, nundik edo handik lorturiko emakume irudien ar-
gazkiak ipinten ebezan, sarreran, barruan, toldo-azalean atxi-
kita edo arbolaren baten enborrean. Irudietako gorputzak zen-
bat eta biloizago, gurago mutil urrunduek.



XIV

Gerrateak gazteriari ezarten deutson neke gogorraren ondorenez, heriotzetarik bereiz, beso bakotxak, anka moztuak eta be, ba etozan jaioterrira. Erruki bako jarduna, sarri askotan errurik bakoa gerta arren.

Corputz gitxituok gerrateko lehenengo eta bigarren aldiko ondorenak ziran.

«Ama saminduen semeak alkar hiltzen» —esan ohi eban Txomintxuk —.

Eta beste laterri indartsu batzuetakoek nahastean sartuta ziharduen, asmo eskerga ikaragarriak geroago egitada bihurtzeko bide ta jokaera latzenak atonduten.

Baina beste batzuk, ez etozan.

Ez ziran etorriko, ez kartzeletatik urtenda, ez gudoinetan gerrea osasunez atzenduta.

Etorri ala ekarri, alde handia egon.

Norbaitzuek, gudoinetatik asago, uri bakez beteetan, horma zaharren kontra jarriko ebezan, epai zorrotzak beteak izan eitezan.

Soldau aldratxu bat, abaderen bat, eta hilgeia, gizon gaztea, ume txikien gurasoak inoiz, tiroz eratsiko ebezan.

Uriko seme bi holantxe.

Heriotza barri bi.

Odol hotzean; amurru beroan. «Gora Euzk...» Tarraaa...

Goiza heldurren zanean, gorriune epelak lur gogorrean. Geroago lurra bere azal gogorra edegi, eta barruko magal

epelean, gizadiaren ohe luze zabal sakonean, maitero hartuko ebazan. Lurra izanik, lurrera bihurtzea.

Horraitino, ezetariko gaixotasunik bage, zulora.

Bilboko abran, ontzietan, gerrate hasierako udazkenean, urikotzat egozan gizon bi, urian bertan atxilo hartu ebezenak, hil egin ebezan lehenengo aldikadan.

Baina hirugarrena be, hila gerta zan: Bittor Joseba.

Alabaina, ezkutuen ezkutu, misterioen misterio, hirugarren martiri hau aingeru kitugarri gerta edo, ez eben urikorik beste inor afusilau.

Halan be, urietan ba ziran aho zabalez berba egiten ebe-nak. Anai artean gorrotoa eta kaltea eta mina gehitutearen zale ziranak.

—«Hor aurretik ibili diran guztiei, berezkoa da merezi izan daben zigorra emotea. Gogorrena, errukirik bage».

Alabaina, auzi eta epaikuntza jasekorik bage, gerrate hasieran, alde batean eta bestean gizonak erail ebezan.

Geroetan, halango odol-ixurtea ez baina, pozoidun berba erionak izan ohi ziran han hor.

—E?... oraindino be, bizirik zagoz zu?

—Ba... ikusten dozu.

—Zu baino hobeak lurpean dagoz-eta.

—Baina ni, politikan ez naiz inoiz...

—Zure edatetxea, zer zan? Gorrien habiea, gorrien batzelekua.

—Gure taskara edonor etorren; bai ezkerreko, erdiko, eskoiko, bai anarkista, bai monarkiko.

—Ummm... Dana dala, begien bistatik urrundutea hobeto izango zuretzat.

Eta horrelango zeharkerako zemaiaz jabetu ondoren, bakotxa bere uritik eta ingiruetatik anka egin ebenak be, izan ziran.

Norbere azal fina tiroz bahe-zulo bihurtzeko arrisku usainak berak be, oinak bizkor erabilten irakatsirik.

Gorputz osasuntsua lurreko harrentzat bazkari miazkagarri eskeintzea, inorentzat be, bapere gozo ez dalako.



XV

Egitegunetik asti luzea joan ondoren, Bibiren nebearen idatzia jaso eben etxekoek. Langile-sailetatik aske laga ebela; baina lan barrietan hasteko.

«Laga genduzan pikatxoiak eta palak, eta kuartelera eroan ginduzen. Hemen, tratu hobea, eta jateko beroa egunero. Noizean behin, gorriak eta alperrak eta, ginala entzun behar izan arren. Soineko barriak emon deuskuez, kaki kolorekoak. Batzuek, estu samar daukez jantziok, beste batzuek nasaiegi. Truk egin doguz jantziok, eta orain, tira! Ezin konpondu izan dana, jostunagana joan da, jakina, kuarteleon berton. Uleok moztu arren, hor konpon!

Goizetan ibilaldiak egiten doguz; inoiz, gabaz be bai, euri zirimiria izan arren. Hazurrak sendotuteko onak ei dira gabe-ko euritzako ibilaldiak!... Barrerik!

Goizetan tiroak be egiten doguz, batzuetan, mantar biribil zuriei tiroka. Arratsaldean buru lana, eta fusilak zatitu eta osotutea. Bitarteetan, han patioan atzera ta aurrera, txotixa dantzan, batera ta bestera erabilten gaitue: «Un, do, es, aro!...» Eta bapatean, «eretxa... ie!!» Eta hor doaz eta hor goaz, batzuk alde batera, besteak bestera, ardi galduen antzera... Zigorrak be izaten dira oker egin dogula-ta; patioan asko eta arin-arin-ga ibili beharreko zigorrak. Kalabozo ilun samarra ez danean, jo ta aurrera!

Arratsean, kalera aldi. Lehenengo egunetan ez deuskue guri kalera joaten laga. Horrelangoetan, kantinara joatea da

konponbidea. Hemen zeozer jan, edan; eta zer egingo? eta... «gerrateko amabitxie» idatzi. Euskaldunok bakoiz bere herrietako neskatilen izenak emoten deutseguz alkarri. Atzo joan nintzan kalera lehenengoz, aske, eskoltarik barik. Ezin sinistu... Ezagunok alkarregaz ibili gara kaleetan. Neskatilek oraindino be berbete gozoa dabe, eta irribarre egiten deuskue... Aspaldion ahazturiko gauzak.

“ “ “ “

Karta luzea egiteko asmoz hasi nintzan. Ezin. Hementxe amaitu behar. Bihar goizean trenean sartuko gaitue. Gaur arratsaldeon ez dogu kalerako baimenik izan. Frentera garoez. Ez dakigu nora. Handik idatziko. Bihar goizaldean trenean eroango gaitue.

Agur».

Bibirenean mutilaren beste gutun bat hartu dabe, lehen-goaren jarraipentzat edo.

«Izan be, goizean goizetik eroan ginduezan trenen geltokira.

Hainbat denpora joan zan, trenari urteiera agindua emon outsoen arte.

Mutil batzuk jesarrita, beste batzuk zutunik, wagoe hobe ala kaskarragoan, ibiltzen hasi zanean trenak luzaroan ekin eutsan, esateko geldialdirik egiteke.

Arratsalde lehenean, eguraldi beroan, basamortu batean geratu zan. Trenbideak ba egozan egon, baina etxe soster bat besterik ez.

Gazteok, ordurako egarrituta, lurrera jaisteko gogoia. Osera, ez egoan han kantinarik ez kristinaurik.

Uremoile diran hodi lodi zabalak egozan, baina urik ez egoan agirian, eta soldauok itaunka hasi ginan.

Agindu estuak emon ebezan. Ez zedila lurrera inor be jatsi, egitada horrek ihesbide susmoa sortzen ebalako. Sargentoek

hainbeste bider kontau eta kontau jardun ondoren, ez zan itxurea, izan be, bidean ardiak galtzea.

Egunerako jateko hotza eta burruntzali bete ardao harturik geunkazan, eta horregaz iraun beharko.

Eguneko beroari eutsi ondoren, iluntzerantz, gure trenan ibiltzen hasi zan, zarran zarran bere burdinezko bidean zehar.

Geroago, lotualdi barria, baina geltokian. Eta batzun batzuk izentau, eta horreek joan ziran kantinarara ardao erosten.

Joan goaz, eta ez dakigu nora.

Hurrengorarte...».



XVI

Dama Susanak eta Maribelek etxe batetik urten dabe. Etxe horretan ez dira bizi. Santxok ikusi ditu urteten.

Geroago, hurrengo kalean, Markos hurreratu jake. Maribelen alboan joan da, kale nagusian zehar. Santxon barruan zeozer irakiten hasi da.

Haen ondorik joan ala ez joan dagoala, norbaitek besotik oratu deutso. Urkitza medikua da.

— Aspaldiko! — dirautso Santxori —.

Lapurretan aurkitu dabenaren antzera, Santxori zotin egin deutso gorputzak.

— Benetan be! Hori dinozu?

Egunokaz urian lagun gehiago gaixorik egon, eta Urkitza lanpeturik ibili da.

Santxok, kolkoan daukon sentimena ez deutso inori azalduko. Horregaitik, ez jakinarena eginez, galdetu deutso:

— Markos joan al da?

— Ez, Santxo. Hemen dago oraindino. Militar karrereari jarraituko ei deutso, baina ez dakit. Horren karrera, gona karrera da.

— Zelangoa?

— Orain beste neskatile bat gustetan ei jako. Lehengo batean, zoro zoro egoala adierazo eustan.

— Eta, nor dau maitemin?

— Maribel.

Taketagaz buruan jo izan balebe, ez zan Santxo ilunduago

geratuko. Horraitino, ezere ardurarik ez baileuan, itaunea egiten deutso medikuari.

—Zelan, ba? Oraindino ez al dau ikusi edo ezagutu... neskatila hori?

—Zelan ba? Esango deusut. Baina, aurretiaz, hauxe: zu gorra zara, e, Santxo! Mesedez zuk ez dakizu ezer; nik esanik, behintzat. Hiru lau bidar entzun deusat entzun: «Garralda hori —zeu, jakina — Maribetegaz berbete luzeetan ibiltan dana, jakin dakit. Hori, konturatu barik azaldu deust komendantzia garbituten dauan andreak». Eta orduan nik; «Ta zuri zer, Markos?» Eta harek, ohi dauan zabarkeriaz eta aho larriz: «Maribel gauza gozoegia dala heldubarri dan norbaitek... nafar batek eroan dagian. Eta ganera, herriko neskarik ez dau inork erbestera eroango neure baimen barik». Barre egin neutsan orduan, arpegi arpegira, eta hauxe esan:

—«Markos: ez dozu horrelango berbetarik benetan zertukol!».

—«Bai, ba».

Hori erantzun eustanean neu be, berotu egin nintzan, neu be herritarra ez naiz-ta.

—«Markos, bigarrenez ez deusut itanduko. Baina hauxe dirausut: Txatxu handi bat zara, ta ganera kirtena, kirten biribila, kirten... jatorra. Uri polit honetan kirtenagorik baldin bada, lurrak iruntsi nagiala».

—«Ez daukat hemen pistolarik... bestela...».

Orduan, Markoseri, bere aho zatarretik adurak eta bitsak urten eutsen. Begiak handiago jarri jakozan eta sudur-ziloak zabal zabal. Ukabilen bila ebilela be, susmau neban.

—«Ez dogu hemen pistolarik behar — esan neutsan, suak harturik —. Markos, hemen barrabilak nahikoa dira!».

Bapatean beste aldera begiratu eban. Inguruan inor ez egoala ikusi ebanean, Markosek anka egin eban. Anka egin eban, sabelpeko azala tximurtuta. Jakina ba! Onak gagoz, zekortxu baten adarkadei ez eusteko. Egundo...!».

Harrituta egoan Santxo, Urkitzaren kontaketa gordina entzuten.

—Ez dot jakin...

— Orain ba dakizu ba, Santxo. Emakumeek, sarri askotan, euren gorabeherak ez dabez gorde gura izaten. Zer dakigu guk emakumeen barril... Sikologi horretan sakondu guraz nabil ni, mediku modura. Baina, nik ninoana, gizonok, geure gauzok gorde egin ohi doguz.

— Eta, hasarratuta al zagoze?

— Nigaitik, bai. Baina harek nire adiskidetasuna ez galdu gura... Ba dira harro finak, zuhurrak, jakintsuak, azeriak gura badozu; baina hori, bizi-parkatzaile izanez ganera, harro astoa dozu. Horraitino ez da makala dalako, oilar izan gura leuken oiloa besterik ez dalako baino. Berba labana be, ba da; koipe hutsa. Nire adiskidetasuna ez dauko ez, galtzeko.

— ...!

Mundu zabaleango mundu txikia aurkitu guran hasi da Santxo. Bere inguruko mundutxua.

Maribeleri barriketaldiren batean entzuniko filosofiako eta elederreko zer batzuk datorkioz gogora. Histori liburua handiegia da gizonarentzat. Anekdota itsasoan bizi gara, arraina uretan lez.

Bai, gertaliskien munduan bizi gara. Horraitino, historia-ren zati zehe eta txikerrenak dira, gelatxu kiskirriak, zelula ia ezerezak. Historiako odol uriolean, ausaz, eskuagaz hartu ezineko diran gertaliski biziak. Edonori gertagarri jakoza-nak.

«Dama Susana eta Maribel etxe batetik urteten ikusi nik... Nor bizi da hor? Ene ba! Urkitzak jakingo dau. Uritxu batean nor nun bizi dan, abuzilek, abadeek eta medikuek dakie. Bes-tela baitakoan itanduko deusat. Eta lehen, ilunduta, Markos, beste alfereza, uriko txulo edo eupalaria, emakume haekin... eta ni, nafar arrotz hau? Harek pistolea, nik be bai. Eta zer? Ez dot pentsau gura. Alferez bi aurrez-aurre, pistola bana es-kuan... Ez, ez, ez! Urkitza, alabaina, ez jakon tximurtu. Hau be, gonazale gartsua da, baina gizonago. Euki behar dana euki arren».

Santxoren mundutxua zabalagotu egingo da.

«Eta aitak? Maribel Madril aldera al bait lasterren bialdu gura leukela dirudi. Zegaitik arratsaldeko braustadako albista bikotxa? Ha, Gaztelara. Zu, Santxo, neugaz Iruñara».

Santxok entzun, ikusi eta ixilik egon, horixe egingo dau. Ehiza-txakurra lez, susmoan ibiltuari zirikagarri deritxo.

«Lehenengo aukeran, bihar bertan, Maribeleri ea polizi elebarririk ete daukan... Baina Maribel neskatila polita da, atsegina, haziera onekoa... Alabaina, Maribel uso zuria Markos gabiloiak harrapauko?... Garralda aitak, ostera, Maribel urrunera bialtzeko asmoak ditu».

Alabaina Santxori, Iruña zaharrera joan arren, ez jako, ez dau uste — bai buruera ankerra, zitala! — Maribelen izakera txeratsua ahaztuko.

Baina eragozpenak, uda bero euritsuan perretxikuak lez, erneten ikusten ditu; lurganean sastrakak sortzen; bideak harri koskor oztopogarriz beteten.

«Alabaina, Markos gaiztoa da, zirtzila da, bilaua».

«Horratino, ahari-topekea jazo da, testigurik bagako topekea. Markos eta Urkitza. Eta topeka horren ostean, ahari bakotxak daki norbere barri, bestearen zer ikusian. Eta Markos ahariak... anka egin dau.

Eta, zer arraio! Neu be, ez naiz Urkitza baino ezago, gizon izate horretan».

Bestalde, Santxok, norbaitek eskeini eutson harako «uriko neskatila hobendunen erreskadea» gomutau, eta barre nasaia egin eban.

Urkitzari itanduteko eukana ahaztu egin jako. Maribelek eta dama Susanak urten eben etxe haretan nortzuk bizi diran. Baina emakumeok adiguritsuak eta jendakinak ziran ezkerro, ez zan harritzeko norbait ikusten haek joan izatea.

Itaunkerietan laban egitea zan, ausaz, eta Santxok azterre-
nak hartzen ekiteari ez eutsan egoki eritxi.

Bere bideari ekin eutsan eta arimea bare-bare eukala sinis-
turik egoan. Eragozpenak eta buruerak aurretiaz bilatzean
hasteari, masokismo joereari jarraitzea ete zan uste izan eban.

Jakite okerrak ezagumenera etorri ezean, gabaren aldera,
bakeari eta atsedenari ondo etorria emon behar jakela, baltz
baltz ikusteko grinea bazter batera eta urrunera jaurtiduten
ahaleginduz.

Egun bakotxak dauko bere dordoa.



XVII

Egunkarietan sarri irakurten ebena, albista hau izan ohi zan: «Gorrien lur-alderdian gosea da errege».

Horren ganerako Txomintxu Begibakarrak zerau esaten ekian: «Eta hemen, jateko gogoa».

Eta urian gehienbat horrelan bazan be, Osiñenean galanto jaten ebela ziran zaratak. Sendoa zan Osiñe bera, eta seme-alabak be, sarrera onekoak. Emaztea luzea ta estua zan arren, beste guztiak atze zabalak ziran, eperditsuak.

Osiñek oilotegi barria eta nahiko hazia ipini eban, uriko handiena. Haragitarako oilaskoak, saldu; oilandak oilotegirako gorde. Arrautzak erruz batzen ebezan, urian bertan eta kanporako be, saltzeko. Janaria merke bilatu eta aurkitu, eta egaztiak ugaritu eta ugaritu.

Horregaitik, urian zerau entzun ohi zan: «Osiñek daukoz arrautzak».

Uriko sendirik gorenatariko batzuk be, diru-etorritz eskas ebiltzanean, alkate egoanaren etxean ez ei zan ezer falta.

Esames gero ta zorrotzagoak durundia lagaten eben kaleetan, etxeetan. Hona, Osiñek uriko urak bere andaparara eroaten ebazala.

Herriko jente zehearen esanak ziran. Ostera, beste eremu batean, goi mailakoen berbetatik, Osiñek ez politikan ez herri-banakaritzan, katona be ez ekiala esaten hasi ziran.

Horrek Osiñeri amurru itzela emoten. Bera ez-jakina zala

esatea be!... Horraitino, lapurra ete zanekoa? Lar zan horrelan-gorik.

Arerio guztiak ezereztuko ebazan, apurtu, birrindu. Kolore bateko ala besteko arerioen kontra «Triskantzea» zertuko eban. Berbere lapikoko erasoaldi gogorra ta orokorra eratuko eban.

Bere lagun zintzoezin «mando handia» eratu eban. Aginpi-de indartsua, geroagoko Gestaporen pionero izango zana. Hasteko... hor eukan Benito Mokorzabala, ixileko polizia. Je-sarleku estu baten jesarteko lorrak izango ebazan; horraitino, sikologi uretan igari egiteko sinistu ezinean arrainduten zan, estutu, liraindu, sarkor egin.

«Kontuak kontu, senarrak poltsa»... arerioen larregikeriari aurka egiteko prestamenetan harrapau eban Osiñe, goikoen aginduak. Barriro be, ez egoan hauteskunde preminarik. Goialdekoen atzaparra nahikoa zan.

Atzapar horrek izentau eban alkate barria eta uriko buru barria, lagun bakar batean. Udaleko matxinada barria gerta zan. Osiñe etxera biloizik ez bialtzearren, sindiko izentau eben. Burlezar zirudian; dirukonturik ez eban eroango, udala-ren ikurrina jai handietan, besterik ez. Olagarroari erroak lotu eutsoezan eta kapelea irauli.

Tomas, alkate; eta Iperdikarea, txapelgorriak sartuta ha-rezkero karlista zintzo bihurtu zana, alkate bigarren; antzera-ko lanetan Mokorzabalen arerio itzela, nunzebarri ta gonakon-tuan, abila. Hauxe polizi nagusi eta bakar. Ikaragarria zan batasunerako joerea.

Komendantzia kendu hurren egoanez, jagola zibilen ahal-mena barriren barri sendotuko zala zan susmoa.

Makal eta indarga, eta halan be, bihurri egoan herria, in-dar bion artean zuzpeltu behar ei eban. Eleizgizonak sakris-tian egozan hobeto. Gauzak euren eretia euken. Limoia ondo biortuta zumoa kendu ezkerro, bota azala. Eta ereti hori zimel-du ezkerro, Goma jaunaren idatziak be, aginpide osoagaz jabe-turikoak, zentsuran baltz baltz edo zuri zuri jarriko ebezan, eta geroago, horra ba, ixilpean satorbide klandestinoz soilik ibili behar idatziak eskuz esku. Tamalez, hilik egoan, osteran-

tzean aukera hobea izango eukean don Zenon defuntu ederak barriro be esateko: «Oh, tempora, oh, mores...!».

Itziarrek, bere aita Zumel jaunak laga eban liburutxu bateko «orrialde urdina» irakurri eban:

«Gizonen eta lurraldeen batasuna. Inpirio zabal indartsuaren bitartez, Jaungoikoarenganantz». Hau guzti hau, lehenagotik dakigun zeraren oihartzuna besterik ez da: «Gu Euzkadirentzat; eta Euzkadi, Jaungoikoarentzat».

Eta mende-azkenetik entzuniko deadar ospatua eta aspaldikoa «Gora Euzkadi» izanik, horren ordeazko, falangista bilbotarrak itzuli egin dau eta horra orain: «Arriba Española!».

Eta herri-ekandu, ohiturak, dantzak eta kantuak be, aurreko urteetan separatismotzat etsiak, orain... folklorea indartzea ei da haei bizkorraldia eta eragina zertzea. Estaduko herrialde eta lurralde ezbardinen izaerea ez dala galdu behar, FE eta abarreko irakaskintzetan agertuko...

Orainarteko abertzale gehienek sarri idatzi ebena, bikoera honetara lotua geratuko: «Irakasleak esan eban» versus «Jose Antonio dijo...».



XVIII

Osiñe arteak hartu ezinik zertu zan.

Haragiaren azala urratu eta kirikoak zauri bizitan eukazala zirudian.

Zati baterako uste eban tronuari anakak grak-egin eta Osiñek bere hazurrak lurrari mun egiten ikusi ebazan. Ikusi ta ezin sinistu. Gorri-taldeko lagunak euken begietako lauso bardin bardina: «burrakea galdu, eta sinistu ezin». Sekule!

Erregimen barriaren alde harek berak eginiko lanak, bo-tauriko izerdiak, sakrifizioak... akabo guztiak!

Horraitino, bero berotan mendiak eta atxak lokatu behar ebazala otu jakon. Baztarrak guztiak nahastauko ebazan. Gora joko eban, zuzenbako erabagi horren aurka.

Andra Anastasik, dama Susanak... entzun behar izango eutsoezan bere koitak eta atsekabeak. Erregimen barriko lagun guztiak bere alde jarriko ebazan. Eta hori nahikoa ez izate ezkerro, a! orduan, erregimen zaharrekoen laguntasuna lortuten be ahaleginduko zan; «besteen» zale izan arren, urian egozan lagun artezen, izen onekoen, errespetoko gizonen artean... firmak batzen hasiko zan.

Jatorriz handiki edo hezkuntzaz goiko mailakoek ohi dabentzera, dama Susanak txeratsu eta arduraz entzun eutsan autorpen guztia. Ixilik, adi adi egon jakon, noizean behin buruagaz baietz esanez, baina ezetz be bai.

Dama Susanak ondo hartu eban, egia zan. Horixe zan Osiñek norbaitzuei adierazo eutsena. Alabaina, dama Susana-

ren onuaren guna ta muina, bere kolkorako gorde eban. Hona hemen dama Susanaren laburpena: «Ura joan ondoren, ez egik presarik».

Herriak, orduan be, zorroztu eban bere asmamena:

Arrautzak orain
prist eta prast,
gure Osiñek
hantxe laprast.

Komendantzian paperak eta zerak batzen eta gordeten hasi dira.

Azken egun bietan, Maribel erbestean egon da.

Santxok lanean aurkitu dau neskaita polita. Eginbehar ugari, zeharo arazopetuta dago.

Alabaina, mutila agertu danean, irribarrez.

—Egunon! — esan deutso —.

—Polizi elebarriren bat ete dozun itanduteko nengoan, baina orain... ez dozu astirik.

—Ez da itoteko beste, horraitino. Zera, polizi elebarria aitatu ez al dozu?

—Bai. Arlo horretan saiatu gura dot, beharrizana dodalako.

—Zeren edo zelango beharrizana?

—Maribelek dituan adiskideak zenbat diran jakiteko preminea.

—Uuuiii! Hona datozen guztiak nire adiskide dirala uste al dozu?

Ez daki mutilak nundik hasi, nundik jo. «Aitari itandu ez deusadana, zegaitik honeri itandu?».

—Eta edozeineri berba...

—Zeuri be, berba egiten deusut.

—Niri, hementxe, apurren bat. Kalean ba dabiltz ibili...

—A zelako misterioak! Hau, leku publikoa da; kalea be bai.

Santxo leihoan kalera begira dago.

«Emakume honek asko daki. Nik baino gehiago, eta ez dau esan gura. Beste inogaz berba ta berba ikusi ezkerro, barrua

hasarratuten jat. Eta aitaren berbak be, argiro esan bako oztopo ez ete ziran?».

—Maribel...

—Atsegin jat nire izena zure ezpanetatik entzutea, Santxo. Halango poz berezia emoten deust. Mutilaren ondoan egotean edozein neskatilak izan ohi dauan sentimen-ikutu ixila. Baina ez da arrunta, edozelangoa; sinistu egistazu.

Bakana da Santxorentzat neskatilearen autorpen hori. Baina adiskide autorpen soila da, arima fina dauan emakumearena.

—Erdi ulertzen dot, elelderreko berbakeran diraustazun arren. Horraitino, halango laguntzailea, kalekoa...

—Kaleko laguntzailea hain zuzen? Ez dakit nor aitatu gura dozun.

«Alperrik dogu gai honeri ekitea. Maribelek niri estaldu gurako zeredozer dauko. Ziur asko, Markos. Egunero alkar ikusten ete dabe? Iluntzean edo. Neskatila hau ez dot gaur bakarrik lagako. Markosegaz baldin badoa... Gauza izango ete da hau, niri arpegira harako «nafar hori» esateko?».

—Noiz amaituko dozu lana gaur iluntzean, Maribel?

Maribel ixilik dago unetxu batean. Ezkerreko besoaren ukondoa mahaiganean ipini dau, eskua gorantz jaso, tente, eta zabal zabal jarri, eta eskuan atzapar politen artean okotza eta matrailak dituala, burua atsedean egiten baileuan, begiradarik gozoena egiten deutso Santxori.

—Zein dan zoragarri oihartzun hori! Aspaldion ezagutzen zaitudala esango neuke.

—Baina, beste norbaiten berbea gozoago, nunbait.

Ixilaldia neskatilearen aldetik. Mutilak polizi izan gura leukela esan deutso lehen. Zegaitiaren zegaitiak jakin gura leukez, et buruhauste antzekoa igarten jako arpegian Maribeleri.

«Oraintxe jo dot untzea. Hor dago zauria, eta atzaparra zaurian ipini dot. Maribel eta Markos. Izenetan, hasierako ze-

rak be, bardinak dabez: Mar eta Mar... Astiroegi dabilenari, bestek kentzen erbia. Emakumearen zoroa! Ausartagoa gura dau. Mosuka hasiko ete natxako?».

— Itaune bat egin dodala-ta nago, Maribel. Iluntzean noiz...

— A, bai! Iluntzean norbaitek itxarongo deust eleizako atean.

«Etel Ez dot esan nik? Bera izango da. Markos. Lehengo batean izan zan antzera. Maribel, Markos eta... bai egia da, dama Susana be bai. Eta gero Urkitzak esana, autorpen haxe...».

— Zer pentsetan diharduzu, Santxo? Zegaitik dabil zure buru hori uste okerretan?

— Benetan okerretan neu geratzen naiz.

— Zereginik ez badozu, Santxo, zatoz gero neugaz. Hirurok ibiliko gara.

«Horixe ganera! Aurretiaz zelanbaiteko... Ut, ez genduke besterik behar. Inori otzarea eroaten lagundu. Tximista gorri eta Batista Basterretxeren berrogetamar mila demonino...!».

— Santxo, lo sorroak hartzen zaituala, esango neuke. Iruñara laster joateak ez al deutsu pozik emoten? Han, izango dozu... zera, ba dakizu.

«Hori be bai? Neure maitea han daukadala uste dau, eta hemendik urrunduteak ez deustala bapere ardurarik emoten».

— Baina, geugaz etorriko zara ezta, Santxo?

— Nahaste ikaragarriren batean sartu gura al nozu?

— Egun batekoagaitik ez jatzuz tabernarik tabernako lagunak hasarratuko.

Horixe esan eta sekulako barrea egin dau neskatileak. Barre gangarra. Maribelegan ulertu ezinekkoa. Harrituta, bekainak gorantz makotuta, begiratu deutso mutilak, ixilean maite dauan emakumeari.

«Nire horrenganako joera bigun, sentimen samurra. Bero-
rrek niri antzeko berbak lehen esan, eta orain... aldezaurreko
bestearen otsein egingo ete nau? Andrak haizeak ete dara-
biltz? Besteari zeloak emotearren ete naroa?».

— Tira, zatoz, mutil. Behar bada, ez dozu damu izango.

«Hainbesteko ziria sartu leist emakume batek? Zein dan

zoragarri, esan deust, zuregandik Maribel dei samurra entzutea... Barriketa hutsa, lehen eta orain. Eta ganera, agindu: «Za-toz, mutil!» Beste alferrez horrengana, zoramendira ete doa? Literaturazko maitetasuna edo dau nirekiko. Jo egingo dot! O, ezina dozu hori, Santxo! Pekaturik doilorrena izango litzakizu. Horraitino beste hori... hori bat, jo-jo egingo dot, hausi, birrin-du... gaur ilunabarrean. Pistolea hartuko dot; iguinez, ostera...».

Maribel apaintzera joan da kalera urteteko. Santxo bere lo gelara doa eta laster dator, iskilo txikerra atzeko sakelean, inork ez ikusteko moduan.

«Aurrera, Santxo» — dirautso bere buruari.

Neska-mutilak alkarregaz jatsi dira kaleraino.

— Bai, Santxo. Nigaz etorria ez dozula damu izango uste dot.

Eleizara hurreratzen dira gazteok.

— Kanpoan ez badago, barruan egongo da.

«Argitasunik ez. Beste munduko indar gaitztoek eratua izango da gaurko jazoerea. Halabeharra. Gura ta guraezkoa».

— Greziako tragediaz ez dogu oraindino barbarik egin, Mari...

— Laster egingo dogu. Sekulako aukerea izango dozu. Gurgaz egongo dan horrek, ba ditu horrelako zaletasunak.

— Hotz dago, ezta? — dino bat batean Santxok —.

— Hotz...? Ez, ez dago hotzik. Harritu egiten nozu, mutil, hori orain esateagaz.

— Ba ni, hotz naiz. Ala bero. Ez dakit.

— Sukarra ete dozu, ba? Lehen lo-sorro antzean hiru lau bidar ikusi zaitut, baina... Hobeto ez bazagoz, Urkitza bilatuko dogu geroago.

«Nahaste handiagoa. Horraitino... Urkitzak nire alde egingo leuke, ezbai barik».

— Ez dago kanpoan. Goazen barrura, Santxo.

Eleizaratu dira. Sartu barritan, dana erdi ilun. Aurrerantz doaz. Barruko iluntasunean, pertsona ezagun bat erdikusi dau Santxok.

— Ene! Begitu horra. Parkatu, Maribel, baina guztion onerako, horrexengana noa ni.

— Baita neu be, Santxo.

Han erdi ilunetan dagoana Itziar da.

Santxok bere gorputza jesarleku batean dan gino laga dau, neke handiz bailegoan. Bihotzak taupadak mehaztu gura ditu, bareagotu.



XIX

Zerbait besterik ez da Santxok argitu dauana.

— Kafetxu batek azkortuko nau.

Hiru lagunok edaritegi koskor batera sartu dira. Ez dago lagun askorik. Hara-hona dabil emakume zerbitzari barria. Maru da, buruko uleak tente eta erdi nahastau, biok batera. Ibilkeran, haren gorputzaren zirkinak nabarigarri dira; bera-riz egiten dituan gerri eta mokor-jokoak eta bularren eraginak. Ba daki gizona zelangoa dan.

— Zer gura dabe? — dirautse heldubarriei, honeek jesarri diranean —.

Ba doa Maru.

Santxok, berba egiteko gogo biztua dau. Egoera barriak emoten deutso bizitasun hori, ausaz. Maribelegaz bakarrean berba egin gura izago leuke, baina halahalan dago neskatila biren erdian.

— Hobeto al zagoz? — dirautso gozogozo, Itziarrek —.

— Moduetan...! Itziar. Zera, ez nago ni inoiz hemen, kafetxe honetan.

— Lehenago, zaharrak bakarrik etorten ziran. Orain apur bat barriztau dabe. Eta M. M. horrek be, ba dakizu, ba... jentea...

— Ixilago, Maribel.

— Gazteak erakarteko berezko gatza ei dauko.

«Azaleko gauzak esan eta esan dihardugu. Nire jakingurea asetuteko eretia noiz izango ete dot?».

Honetan gizon gazte bi sartu dira. Berbatsu datoz eta barra luzera doaz. Gizon morrosko itzela dago barra-ostean, beste batzuei zerbitzu egiten.

Alboko mahaitxuan dagozan hirurak, haen etorrereaz konaturatu dira.

Hirurok ixilik dagoz une honetan. Neskatilek sudur-puntak astindu dabez, iguinaren iragarpena eginik edo.

Santxok txikarea eskuan hartu eta drungu! ekarri deutsen akeitura edan dau.

—Kafe gozoa — dino —. Tira, parkatu, neskok, barriketa huts hau. Kafeak ez dau gozoa izan behar, ba.

—Esaerea da; gaua baizen baltz, kafea baizen mingots.

—Ene! Honantz datoz.

—Eta zer? Datozala. Haizea hartzen bialduko doguz. Ez Urkitza bera hain zuzen be; bai, ostera, dakarren lagunagaitik.

Bikotea kanporantz dator, eta

—Begiratu! — dino Urkitzak —.

—El trio de la benc...

—Ixi!

—Katzarra! Hemen dago militar bizardoa andratxu bigaz — dino Markosek, harropuz eta zirrikari —.

—Ixilik egon zadiz, kirtentxu — darantzutso Urkitzak —. Zera, Garralda; Donostiara bihar etorri gura izango ete zenduke, raketistak ikusten?

—Haral hemen egoteko egun gitxi dodaz, eta... Eskerrik asko.

—Atxarteko medikuaren burtariñean joango gara. Baten-tzako lekua dago. Bihar goizean goiz bisitak egin eta hamai-kak aldean... ba dakizu.

Markosek, baterik bestera ailart dabilen Maru-ri, tokirik bigunenean ikutu deutso.

—Tira, geldi, esku luze! Orain be, orain be...

Umore txarreko arpegiz doa Markos kalerantz, agurrik be egiteke.

—Ebatziko dozu, Santxo — dirautso medikuak —. Joatekotan, hantxe. Agur, laztanok!

Joan dira mutil biak.

- Markoseri ez deutzazue jaramon handirik egin.
- Gogaikarria — Maribelek erantzun —.
- Ase-ezina dan gizon pataria dozu hori — Itziarren eritxiz —.
- Zer da gizon pataria?
- Hor, oraintsu, egunkariko zer batean irakurri neban «Animal humano». Ez dakit gure hizkeran esangurako zelan dan: abere gizona edo gizon pataria.
- Hizkera arazoak be, arduratzen al zaitu, Itziar?
- Bai. Baina hemendik gorakoan, gizonaren arazoak izango doguz arduragarrien.
- Maribelek literatura lezino batzuk emon deustaz, eta orain zuk, filosofia ta hizkera arloko ebazkariak azaleratzen dozuz. Irakasle barria... Maribel joan doanean...
- Ez litzateke zuretzat irakasle makala izango — gehitu dau bertatik Maribelek —.
- Mutilak irribarre samurra egin dau eta neskatila bien arpegietarantz daroa bere begirakunea. Gerotxuago, ostera, irribarre jaiobarria histu egin da, ilundu.
- Alabaina, hemendik lehenengo noakena, neu izango naiz, eta laster, ganera.
- Penaz joango al zara, Santxo?
- ...
- ... eta zergaitik? Jakin ete ginei?
- Joakerea beti da larri. Urrundutea, gorrotorik ez daukeneztat, erdiragarri da.
- Barriro be, filosofia — dirautso Itziarrek —.
- Filosofia eta literatura, ederraren bila dabilenak begiko izango dituanak.
- Ederraren bila al zabiltz, Santxo?
- Zeuk dakizu, Maribel — ilun eta mingots tantaz, mutilak —.
- Tira, tira; ez gara hemen negarrez hasiko — Itziarrek eraginez —.
- Hau... urrunera joango da laster; eta han urrunean beste txoriren baten kantak entzun gura izango ditu, nunbait — azaldu dau nafarrak —.

Neskatilak alkarri begira jarri dira.

— Santxo, polizi barria — dino Maribelek —.

— Emakumeok, ba dakizue jakin.

Barre zirikaria egin dabe hirurok.

— Eta, gizona zer da, Santxo?

— Hori, zuok jakingo dozue. Hainbat arlotan gizonak, bai, zerbait ba daki. Baina bihotzeko arazo ezkutu miraritsueta, gizonaren jakituria, emakumearenaren erdi.

— ...!

— Bai, ez zaiteze harritu. Mutikook lo gagozan bitartean, neskatok zenbat ez dakie?

— Baina, geroago, mutilak, elementu makalak...!

— Jakina, emakumea da beti, galtzeko.

— Bai, gero? Gizona, alargunduten danean, beheak jota... Emakume alarguna, barriz...

— Umez beterik lotu bada...

— Orduan ez; baina ume barik eta diruz beterik gerta ezker, hor doa...

— Eta gero?

— Hotz ez dana, bero.

Santxok, etxerakoan, une batean, lagun izan dituan neskatila bie bere behinolako amesa esateko barruko zirikadea izan dau. «Umekeria hutsa, horrelangorik emakume bateri esatea. Oker ulertuko leuke gonadunek. Ganera, ames zaharrak ez dau balio. Ilun-arte buruerak zoragarriak dira. Askatasun osoko jazoerak. Horrelangoetan gizasemearen arimea biloiz-biloizik dabil, Afrodita liraina itsasoko uretan lez.

Baina askatasun hori ez dau gizasemeak menperatzen, landuten. Bere haizeak darabil, eta bere gogara, aske, jarei.

Itzarrik ames egitea, gozo izango litzateke. Amesen jaun eta — uhal — jabe norbera izatea. Gauzak norbere adimena-

ren esanera eta arauetara hezirik. Baina orduan errealidade soila izango litzateke. Eta errealidade soila zer dan, esan dabe esan: «Munduaren itxura benetakoa aldatzen eta disimuletan dauan pantailea». Horregaitik, itxura benetakora hurreratu gura, horra hor gizona amesak ames egiten.



XX

Donostiako raketistak, neskatxa guri, bizkor, ikusgarriak. Ikusgarriak eta maitagarriak. «Gerrateko amabitxi» izateko be, ez makalak.

Eibar inguruetaoak gehienbat.

Markosek, Urkitzak eta Atxarteko medikuak beribilean itsasalbora jo eben. Deba han egoan, ilun, inor baga, bere hondar baltzak be, saminez.

Itsasoa eder egoan. Itziar ondoko aldatzean gora «Talbot» zaharra, errenka, arnas-estuka. Baserritar bat buztarriagaz eta burdiagaz bidezabalean zehar, erdi-erditatik, bedar lorretan, akulua sorbalda bien ganean, eta akuluaren pentzudan, besoak zabal luze, Kristoren antzera.

— Et! Kontuz!

— Baserritarrak beti erditatik, arriskurik ez bailegoan.

Atxarteko medikuak bere bidelagunei:

— Goi horretan dago Itziar, ikasten etorteko bazter ixil eta baketsua. Horrelangorik ba al da Bizkaian?

— Itziar, izen polita neskatila polit batentzat — inoan Urkitzak, Markos zirikatu guran —. Zuk, ostera, Maribel nahia-go.

— Zagoz ixilik, Urkitza. Aukera bat galdu ete dodan nago.

— Tira, tira! Mundua geurea dok, Markos. Milaka eta mila-

ka mutil mendian eta abar, urrunean; eta gu, gona artean. Gonak kenduta...

— Ez uste. Eskolea behar da.

— Eta txanponak.

— Hauxe da okerrena — zirautsen Markosek —. Datorren astean barrero mendira joan behar dodala.

— Oraindino joan gura ez dozula? — itandu eutsan beste medikuak —. Zertu egingo deusugu zauria, gatza sartuko deusagu, eta horrelan gatzak hartuko deus barriren barri.

— Horixe! — inoan barre algaraz Urkitzak —. Gatza sartu eta gatxa sortu.

— Arren! Ez niri berbakaz morokilik egin. Mesedez, galeno jaunok.

Eta Zumaia txukuna, Orio, Getaria bere sagu ta guzti, eta Zarautz, gogoaren lapur antzera... eta, Donostia, Euskalerrietako uri politenen artekoa.

Pelotariak, plaza gizonak sakabanaturik egozalako, euskaldunak jokia behar eta, pelotari-emeak antolatu ebezan. Horra hor beste pozgarri bat gizezkoentzat.

Plazagizon galtzazuri luzedunen ordeazko, neskatxa gazteak, gonamotx edo galtzamotx, iztar guriak guztien ikusmenean. Pasarelarik bage, emakume lirainen joan-etorriak ikus-teko aukera mamina.

Agurak diru-trabesak garbitu eta etxera.

Mutil gazteak, ilunaren alde, errebistetako tipleen ordez, raketistak kalera noiz urtengo zain.



XXI

Adiskideak Donostian ziran iluntze haretan, Santxo taberna koskorrean egon zan. Argi motel samarrak barruan, hainbat lagun egoan. Guztiak gizonezkoak, erdi gazteak. Batzuk herrira helduriko askatubarriak.

Poza agertzen eben alkarregaz egozalako. Gizenez murri, arpegiak zorrotz. Neke, atsekabe eta ezunearen ondorengoak.

Santxo sartu zanean, han anartean ebilen barbaroa, ezagunean ixildu egin zan. Baina txiriboginak buruagaz zeinu egin eutsen, lehen lez hizketan jarrai egien.

Horren jakitun, gizateria barriro bizkortu, eta autuari ekin utsoen.

Santxok saminen letania entzuteko eretia izan eban. Gose egarriak, jantzi eskasak, garbitasunik urri, lurgane otza ohe epel orde, bildurraren eta jagola estuen menpean. Jagola azal zuriak, jagola azal baltzak. Hogeigarren mendeko ikuskari bakana, aita Santixagoren irudiaren eta zaldi zuriaren eta mairu ilunen altarak estaldutea, jagola laguntzaile ilunon barruak mindu ez eitezan.

Herriko semeen esanak entzun eta entzun egoan Santxo, ardauf nafarra apurka edan bitartean.

Atseginez egoan, bare bare eta bihotz zabal. Munduaren historia handiko esate harro eta biribilak alde batera laga, eta gertari txikerrak, istorioak entzuten arduratsu, grinaz, giroaren berotasuna bereganatuteko gogoz.

Une haretan herri hizkerea, ahozko literatura zelanbait esan, bizi biziro jasoteko aukera parebagea eukan.

Arean bere, eskolau txiker diran gizonen esate-modu giarra, gordina; hitz zorrotzak, berba motelak, esaldi luzeak, berba txorta txit motxak. Batean ozen, hasarre; hurrena ixilkiro, gozo gozo, apal; samurtasunez, atsekabez.

Itxurakeriarik bako berbetea, zuzeneko elederra, gramatikarik menperatu ezineko hitz uriola, indartsua, sarkorra, beta, durunditsua.

Bai, Santxo mundutxu barri batean murgildurik egoan une haretan; letrarik eta moldiztegirik bako egunkari gartsu, garbi, herrikoia zan harako batzar haxe. Halabeharrez, ez egoan orduan harrezkero diran magnetofon diralakoak.

Albista pozgarririk gitxi gerta arren, horraitino, gizon nekatu haek barre gozo zabalak be egin ebezan, jazarpena eta atsekabea garaituteko izan daiteken jorana eta bizi izateko go-goa eta garra eurengean ebela adierazo guran.

Handik aldegitan, batzuek alkarri hau esan eutsen:

—Eta bihar... han... alkar ikusiko dogu. Gabon, jaunok!

—Gabon, eta eutsi beti!

—Hori, hori!



XXII

— Agurraldiko bilerea basetxe batean egingo dogu — esan
eutsoen Santxori, uriko neskatilarik adiskideenek —.

Eta arratsalde lehenean, gazteok, uria ordu batzuetan
laga, eta mendiskarantz jo eben, tiroketarik ez zan mendis-
karantz.

Iskiloen ordeztu jaki puxkak eroiezan. Sagardoa, han base-
txean izango eben.

Uritik kanpora bidezabalean apur bat ibili ondoren, bide
alboko basetxe baten hurrean laga eban bere burtarina Ur-
kitzak. Zelan halan, sei lagun joan ziran barruan. Jatsi, eta
handik gorantz, guztiak oinez, burdibide meharretan zehar,
ekin.

— Izadiaren ederra! — esan eban Garralda alferezak — gi-
zonek zikindua eta itsusitua ez danean.

— O, izadi baketsua! patariz, piztiz eta abereztu betea — ge-
hitu eutsan burleztu Urkitzak —.

— Eta batzuk, anka bikoak — Maribelek bere aldi —.

— Aberetxu korbatadunak eta — barreikarri, Itziarrek —.

Edu eta Bibi atzeratuago etozan.

— Eee!... Otzara hau astuna da, gero!

— Ene, ba! Parkatu — esan eben mutil biek —. Eta honek
kendu eutsen otzarea neskatila nekatu bie.

Elorreta basetxeko txakurrak belarri ziburra euki, eta zaunka egiten hasi zan, arrotzak hurreratzen etozala susmau ebaneko.

Eta zaunkaka jardun eban, harik-eta etxekandra zabala atartera agertu zan arte. Talopalea eskuan eta atzaparrak arto-urunezko orez beteak eukazan.

— Oles! zintzo zintzo zatoze, e? «Txuri», ixilik! Arratsaldeon dakarreela. Ondo etorriak!

— Halan aurkituak.

— Sartu zaiteze barrura, ardura barik.

Atartean burdi bi egonean, aterpean, ezker eskumatara. Zurezko atehazurrari josita eta lotuta, Doniane lora-txorta igerra, lora txorta bedeinkatua, arerioengandik eta arriskuetaik salba-bide antzera.

Barrura sartu eta sukaldea, nahiko hazia. Barrurago, beste aldean jantokia, eta alboan, beste gela batean, sagardao-ueplak. Gilbor handi, biribil, taket zuzenen ganean nasai etzunda. Itsuturiko ziloetan ziriak eta zipotzak.

Jantokia eta edantokia: horma lau eta zuriak, leiho handi bat, kanpora bista ederra bertatik. Mahai batzuk biloizik egozan. Bat, horraitino, ganean zamau garbia eukala.

— Hauxe dozue egontokia, ene laztanok! — esan eutsen sei gazteei etxekandre maratzak —. Taloginen dihardut. Zeuok esango dozue sutan zer egin behar jatzuen.

— Zeozer ekarri dogu, baina izango dozu lukainka gozorik, etxekorik.

— Bai ba. Ederto, talo epelagaz batean lukainka zati txirikatuak, majo.

— Geroago, esnerik...?

— Bai, gura dozuena, hotza, berotua. Gatzatua be...

— Aufa!

— Hasteko...

— Pitxer bete sagardao.

— Ai, kaleko umeok! Egarberak zaree, gero!

Gazteen batzar maitekorra izan zan, mendi-bazter haretakoa. Basetxeko edaria gradu eskasekoa izan arren, gazteen sasoia aro egokia jarri eban batzanduen artean.

Bibik bertso txiker bat bota behar ebala, esan eban. Han Gros aldean, Zabaleta kalean eta ibilibarri ziranei eskeinia.

—Bota, bota! —erantzun eutsan Urkitza urduriak —.

Bibik, samea garbitu guran ejen ejen karramaztu eginik:

Donostiako raketistea,
gona motxa ta iztar luzea,
honetxek galdu deutsu bistea,
Urkitza gure lagun maitea.

Han egozan guztiek, barre purruztada zorangak egin ebezan.

Eta orduan, Urkitzak, nasai nasai autortu eban:

—Baaa! Urruneko intxaurrak. Arratsalde eta iluntzean ba... pelota jokoak. Baina gabaz, ezer bez.

—Txarritxu — esan eutsoen neskatilek —.

Eta Donostiako kanta guztiz entzunaren azken zatia abestu eban guztiek:

«... ondo
merezia. Bai.
Trunlara,
trunlara,
trunlara, trunlara, trunlara...».

Iluntzea ibarrean gora tontorrerantz hasi zanean, gazteek basetxekoei agur egin eta bideak behera joiazan.

Zeruan, Txaparraga mendiaren ertzean izar batek egundoko argi-keinuak egiten eutsezan. Haize epel samarra ebilen. Mendiko usainak, baso usainak iran zirauan.

Bideko erdi-iluntasunean, barriketa zoro arina gerta zan.

— Zeruan dagoan izar bakarra, nori galdu ete jako?

— Santxori, ala...

— Markoseri?

— Ut, ut, utikan, izardun horil...



XXIII

Edari mingotsa mustau behar dauala sinistu dau Santxok. Baliotsua jakon norbait laga beharra. Maribeleri agur egitea minbera jako.

Ez-jakin ilun horretan ezin jarraitu.

— Maribell

— Zer, Santxo?

— Zeugaz berba egin behar dot.

— Orainarte ez al dozu nigaz berbarik egin?

— Gaizto hori! Niri neuri ariman zauriak egiteko jaio al zinan?

— Eta zu, zetarako jaio zinan, argi dagoana ez ikusteko?

— Ez dago argi, baina.

— Ba dago, baina. Zoroko. Osotasunean aldi neketsua izan arren, egun atseginak emon doguz hemen.

— Akio makio, ekin erabateko berbak esaten.

— Hara, mutil. Dan dana estalki barik ikusi gura ete dozu? Ba... baietz. Norbaiti berbea emona nagoala, eta gure artean berbea...

— Santua da, hori ba!

— Une honetan min emoten deutsut, benetan estimau zaukadazalako. Zelan euki ez, ba!

— ...

— Orain ba, sinistu egistazu agertu deutsudana. Eta egunen batean, Santxo, gauzak jakingo dozuz...

— Noiz?

— ... eta orduan...

— Zer?

— Azalpen luzerik ez dozu behar izango. Guztiok bizi bageitez.

— Nortzuk gara guztiok...?

— Ba... zeu, neu, eta beste batzuk. Egun horren amesez bizi behar dogu.

— Zuk be, harako zerak lez: «gauzak konponduko dira...».

— Bai, ba. Konpondu jakozan hari be.

— Baina, zelan?

— Tira, Santxo; adore izan egizu. Nire antz-antzeko «gerra-teko amabitxi» izan zeinke... zeuk gura izan ezkerro.

— ...?

— Itziar.

Itzulasketa itzelagorik, sakonagorik ezin, une hain laburrean jazo. Jazo edo behintzat, hasierea zan.

Lortu uste zana, bide itsuan sartu, eta nafar gazteak alperrik dau aurrerantz gehiago egiterik.

«Baina zerik bakanena eta bitxiena, beste hauxe. «Estimau zaukadazalako...» horra hor nire ordeazkoa, bion adiskide handia.

Bizitzako mugetan eta bidaburuetan, brastadako aldakuntzak?

Egia esan, Itziar ezagun eta adiskide jatan, baina ez neban barruko beste halango bultzadarik izan. Ostera, Maribelegazko adiskidetasuna sendoagotzen hasi jatanean... Kutun-bidean aurrera ninoiala-ta nengoan, harako maitemina neskatile baltzeran horrengan behin eta betiko aurkituko nebalakoan. Amesak ames egiten nenbilen.

Lehenbiziko maitemin aldia, gehienetan iraupen motxeko lilura-bidea. Han gure Iruñan batxiler azken-urtean ezagutu neban neskatile zoragarria ikusten neban baktotxean, barruak glank! egiten eustan.

Ikusten ez nebanean, beste batzuei begiratzen neutsen, eta

politak izan arren, bihotzeko kilikili barik geratzen nintzan. Neure lehenengo maitemina zana egiztau guran, urratsa egiteko gertau nintzan egun haretan, oinpeko lurra bigundu egin jatan. Arrats eder haretan, mutil morrosko baten besondorik ikusi neban; joranez eta pozarren joiazan dantzaleku batera. Orduantxe izan neban, bihotzean nik, hasierako maite-zauria.

Eta orain... emakume barri hau. Barria ez, baina. Ikusi nebanetik, harrezkero atsegin izan jat beti. Egia. Horraitino...».



XXIV

Santxok, Gurbiz jaunari egingo deutso urian azkenengo agerraldia eta agurra.

Jaun honeri, gizon ganoratsua deritxo nafarrak. Urikoen artean buru jantzienetarikoa, edestizale ei da eta eguraldia igartea gustetan jakona. Gaztetan eta geroago be, hara ta horra ibili ohi zana, urian aldikadak, kanpoetan beste unada batzuk.

«Denduna aurkitu guran dabilen gizona dogu, oreka bila dabilen arima ezbaitsua. Zihurtasuna aurkitu ez dauana» — dino berekiko Santxok —.

«Eta ganera, jakingarri dan zerbait lortu daiket beronen-gandik. Zaharrak txotxindu egiten dirala, esaten dabe. Noan horrengana, hori jazo baino lehen. Txomintxu be, ikasgarria da; baina ez deust inoiz be aurrerapiderik emoten. Hortxe be, zeozer... Horraitino, hurrengo natorren batean, nork daki...».

Ibiltelekuan aurkitu dau Gurbiz. Sarri ibiltan da hor.

— Horra ba! Joan zoaze Garraldatarrok.

— Bai, aldako usoak lez. Hemen entzun dot esapide hau.

— Horraitino egotaldi aspergarria...

— Bai zera! Gogara egon gara hemen, gehienbat. Nire anaieak eginbehar garratza izan dau baina, halan be, ahalegi-nez...

— Tokiko gareanok poza izaten dogu, hemen egon dana-
rengandik gure onerako goralpenak entzutean. Ez da beti ja-
zoten... Berezkoa da. Toki txikiko... baserritarren harro-keru-
txua, burueretxi-sundea edo.

— Ez hain toki baserritarra. Ikusi dodaz hemengo etxe
ederrak. Piloa. Azken gizaldietan harria ugari landu izan dabe
hemen.

— Bai, uri zaharra da. Bizkaian nortasuna izanikoa.

— Ez, ez dau baserri antzik, arean be. Ohituren indarra,
ekanduak galtzeko arriskua, ostera...

— Bai...

— Horraitino, historia bera osotuago egin legiana, entzun
dodanez, neugaz berbetan diharduana ez ete da?

— ...!

Irribarre adiguritsua egin dau Gurbiz jaunak.

— Beti hemen egon banintz, horixe izan eitekean nire gura-
rietarik bat.

— Lehen egin ez dana, oraindik gorakoan egitea, ezina al
da?

Gizon biok alkarri begiratu deutse. Eta gelditu egin dabe
euren urratsaldia.

— Niri neuri be — gehitu dau Santxok — histori luzea ez
baina hemengo zertzeladak eta azi-orraziak jakin ahal izatea,
arean monografia egitea, gustauko litzakit.

— Bai, uriko herriaren izatea edo izate modua aldatutea,
ilun eta damugarri izango litzateke. Hemen hasi ginan gu zer-
bait egin guran. Osiñek baztertu ginduzan, eta horra ba! Hori
be, ankaz gora bota eben, eta galdu da. Udaletxea hemen...

— ... eta «Bildurtegi» han.

— A! Eta jakin dakizu hemengo argota...!

— Berba hori aitatu dozun ezkerro, gure hango, Nafarroako
agotak jatortaz gomutara.

— Egia. Egunak egun, euskaldunok agote mailara jatsiera-
zo gure ete gaituen, esango neuke. Eskubide eskasagoko bi-
hurtu. Beherago bota. Guk genduzan aspaldietako eskubi-
deak, aukeramenak, azturak... nora...?

Harritu egin da Santxo. Nabarmen harritu be.

Haizeak putz egin dau eta Gurbiz jaunak bere buruko ka-peleari eusten deutso, bolada barriren batek eroango ete deusion bildurrez.

— Gurbiz jauna, lehengo ilunabar batean taska txiker argi eskasekoan egon nintzan. Uste uste barik, herrira ta etxera heldu diran gizon gazte batzuen berbak entzuten. Zenbat premina, neke, oinaze! Behar bada, eta euren aburua da, zio barik, erru barik. Haen berba beroak, esaldi gartsuak, baina esan ba-kezaleak, batez be, bizigurako azalpen lauak. Demokraziak behetik gorakoa behar leuke, ezta?

— Hemen ba dogu demokrazi-zale itsua dana.

— Hor?

— Txomin. Ez da inongo alderdiko. Gizonaren aldeko ei da, herriaren aldeko. Eta beraz, herri guztien aldeko.

— Tamalez, berba gitxi egin dot beragaz.

— Etxezale ta ethezulo bihurtu da. Arrebeagaz bizi da. Zera... hemengo neskatilak be, ezagutzen dozuz.

— Enel Begi zoliak ditu jenteak, gero!

— Zahar izan arren, gizonak neskato gazteei begiratuteko ohiturea ez dau lagako, nunbait be. Eta neskatila politei begi-
ra jarri ezkeru, mutil lagunak be ikusi egin behar.

— Adiskide onak zertu dodaz.

— Maribel, Itziar...

— Horreek alkarren...

— Jakina. Alkarren adiskide handi dira, zer bardinekoak izan ez arren. Alabaina, zioa dago hor.

— ...!

— Maribel, alaba bakarra da. Itziarrek, ostera, nebea dauka, Jokin. Uria hustutea izan zanean hain zuzen aita hil, eta alde egin eban. Honeen aitaren hiletara Txomin joan egin zan, bapere bildur barik joan be.

— Eta Jokin...

— Karrera amaitu eta gehiago ikasteko asmoz Madrilen egon zan pare bat urtean, eta han ezagutu eban.

— Nor?

— Maribel.

— A...!

—Eta horra hor emakume bat eta erdi margarita bat barruko lagun izatearen zioa, senitarteko izateko bidean dagozan ezkeru.

—...!

—Bai, gizona! Uritxueta misterio antzekoak egoten dira, kanpotik etorribarri danarentzat. Bai, Garralda.

—Gure aita be, gaztetan, hona etorten ei zan.

—Bai. Garraldatarrak hemen ibiliak dira, sagardao edaten, pelotaka, dantzan. Ni urte haetan kanpoan ibiltzen nintzan. Horregaitik, Garraldarrak nik neuk ez nebazan orduan ezagutu. Entzutea ba zan; entzutea.

—Zeren entzutea?

—... Ez. Harrezkeru, zera, ez zirala agertu. Haetarik bat harik laster hil zan... Eta mundua mundu, orain... Hiru Garralda hona agertu, eta zuk... neskabila politik ezagutu.

—Histori txiker polita hasi eta amaitu egin dau Gurbiz jaunak.

Hau, mutilari arpegira begi-begira egon jako, ixilik, eta gero garrenean:

—Garralda, hasi eta amaitu, esan dozu. Horraitino zeharo atzena emotea ez dala beti egokien, esan daroe elelderreko kritikoe. Beraz, amaitu-hurren lagako dogu istorioa.

Gurbizek bapatean lotu egin dau bere mihina.

—Daitekena da, guk biok inoiz gehiago alkar ez ikustea. Zaharra naiz. Hainbestean... Agur, Garralda; zoaz ondo!

—Agur, Gurbiz jaunak.



XXV

Tiroketa eremuetatik urrun, ekonomi txiroko jokabide makkurrek iraun zirauren. Tratu jenteen artean, azerikeria eta indarra polito alkartzen ziran.

Gizenegi egonez ez zan urian inor hiltzen. Urdaileko minak erime gitxitu ziran. Aurreragoko unadako azken aldiko egoeraren antzekoa etorren.

Gerrateko lehenengo zerean, batez be gizon edadekoak hil ziran ugari. Gaixo barik, itxura baten. Egarriz, ur baltzaren egarriz edo. Egoan ardaoa eta ekarten zana, mendian burrukan ebiltzan gazteentzako zan, gudaletxeetarako eta gaixotegietarako. Aguretxuak ez jan, ez edan, ez barbarik egin, ez kalera urten. Eta ixilean, ixilean, hil.

Uriko etxeoandrak eta neskatoak baserri eta basetxeetarantz joaten ziran, eskale antzera. Gosea, itzela, eta dirua, urri. Kalean ez egoan ezer, eta gari-uruna, arto-uruna lortu guran; eta lursagarrak, indabak, arrautzak... zeozer.

Umerik gitxi jaioten zan. Halantxe beharko. Egozanak inoiz asetu barik hazten ziran-eta.

Urte luzeetan ez zan urian etxe barririk egin. Egozanak be, lar egozan. Hogetamazazpigarrenen udabarrian ihes joan ziranek, dana lagata, soinean soinekoak, esturaz eta bildurrez anka egin ebelako.

Uria erdi hustu zan unada haretan, barri-barritan, inor bageko etxebizitza batzuetan, ez barruko ez senitartekoak ziran txoriak ibili ziran. Aukera aukera, sartu besteren etxera.

Eta guragarri ziran gauzak eta guazatxuak bilatu, eta idoro ezketino, ixilik hartu eta inork ikusi barik, gabaren aldera egokiago, hegazkada arinean inoren habiatik norbere habiara, txori azkar haek ahokadea eroan ohi eben, behin eta barrero, halan izatera.

Horraitino, hormek be, begiak ditue.

Ondasunez aukera mamin samar egozanen etxeko mailadietan, batzuk beherantz, besteak gorantz. Eskilaretan beherantzakoak otzarak beteta. Gorantzakoak, otzarak hutsik.

— Nun topau dozue horrenbeste... perretxiku?

— Bigarreanean.

— Orduan, guk, hirugarrenean.

Inork ikusi ez ebezelakoan. Baina, begidun dira, hormak be. Eta harik lasterrean jakin zan karga-trenen joan etorria.

Lantegiek, zirkun zarkun, ez erabilen ganora handirik. Sa-soiko gizon batzuk albo herrietarantz alde egiteko gertu egozan, lanaren susmorik izan ezkerro. Beste batzuk, itsasorantz, marinela joan ziran.

Kaleak apurtuago, traketsago egozan, eta uriko argiak urri eta motel. Etxe eta jauregi batzuk erdi ezerezean saldu ebezan. Negua nahiz udea, bardin zan.

Bien bitartean, unada haretan, urikorik ez eben gehiago inor hil. Larrinaga, Gasteiz, San Cristobal, Burgos, Santoña... ziran bildurtegi latzenak, arriskutsuenak. Bizkai herriak zauzkada bizia sentidu eban, arean be, aurrerengo ibili zan bizkai-gizon gazte bateri heriotza-zigorra aldatu izan eutsolako. Santoñara bihurtu zan otxandiar adoretuari Erroman bilatu eutsan herrikide batek bitarteko indartsua, Ciano kondea hain zuzen. Eta ez eben hil.



XXVI

Santxok uritik alde eginda gero, «gerrateko amabitxi»-ri idatzi eutsan; Itziarrerri. Iruñatik lehenengo, Aragoi aldetik geroago.

Gutun batzuk zintzo heltzen ziran urirantzekoan. Gudoinetarantzekoan, barriz, batzuk aldendu edo atzeratu egiten ziran, estafeta aldaketak etenbakoak izanik.

Ganera kartak inork irakurtea ez zan bapere atsegin, gudoinetako zentsurea estuago egin eben-eta. Zenbat eta gitxiago idatzi, hoba.

Uri txikerretan, korreoko arduradunak egin eikean gura izate ezkerro, beste zentsura bat. Orduan eta geroago be, gutunazaleko erpaketa aztarrenek erakutsi ohi ebenez.

Bultzada ikaragarria hasi aurretik, atsedan egun batzuk lortu, eta Santxo, urira agertu zan.

Edu eta Bibi aurkitu ebazan kalean.

— Itziar han eukiko dozu, besteek laga eben anbulatorioan lan eta lan.

— Neure «gerrateko amabitxi».

Neskatilek irribarre egin eben eta alkarri keinuka harra-pau ebazan Santxok.

— Ixileko zaratatsua — inoan Bibik —.

— Antenarik ez bailegoan.

Santxori be barregurea etorri jakon, gonadunen gatzaz eta jolaserako bizarrak konturaturik.

— Gizonak eta mitxeletak...

— Hori aitatu dozun ezker, mitxeleta nagosia be hemen dabil.

— Markos?

— Berbera.

— Arraioa!

— Atzo iluntzean Urkitza, Itziar eta bera alkarregaz egozan — esan eban Bibik —.

Santxok batari eta besteari begirakune ixil luzea egin eutsen.

— Ez zaitex arbindu, mutil. Ba dakizu hori nor dan. Guztia gura dauanak, ezer be lortu ez.

— Itziarregana geugaz joan gura badozu?

— Bai, pozik be.

Atseginez harritu zan Itziar, «gerrateko besoetako semea» ikustean.

Biharamonean kalera urten eta Markos Elua aurrez aurre aurkitu eban. Agur gizalegetsua egin eutsen alkarri. «Barruan ziria, ahoan irria».

Harako kafetxe txikira sartu ziran.

Esneak egosterakoan goraldian morkoari ganez egin ohi deusan lez, Markosek, harrotasunez, zortzi puntako izar bi erakutsi eutsozan. Nafarrak, nasai eta patxadaz, beste hainbeste izar jarri Eluari begi aurrean.

— Bardin, enpate — esan eban han ebilen Maruk —.

Gero, betiko leloa.

— Gaztela aldean dago gure brigadea. Zuok nun kainoiak, Garralda?

— Aragoi lurretan.

— Madril geuk hartuko dogu.

— Hori mahai-azkena izango da. Catalunya hartu behar

izango da lehenago. Han izango dan triskantzea! Hantxe ikusi gura zindukedaz.

Markosek sorbaldak jaso ebazan, baina ez zan ixildu.

— Garralda teniente horrek, artileriako barri baino ez dakizu. Guk, oinezkook, halan be, egoera gorrienak eta baltzenak ikusi daroaguz beti. Lagunik gehien infanterian hilten da.

— Baaai, oinezkoak izan be, gehiago dira-ta. Horraitino... «ea, mutillok, jo aurrera hemendik zehar!» besteei agindu, eta sargentoak aurretik bota, eta lehenengo atxaren ala zuhatzaren gerizpean geratzen diran ofizialak ikusi izan dodaz nik. Atxaren ostean, edozeren ostean edo zuloan, sugea lurrari baino atxikiago, gizona dan ala zokil handi bat ete dan jakitea errez ez izanik.

— Baaa! Horreek, esanak dira, Garralda.

— Esanak eta izanak, neuk ikusiak dira-ta. Are gehiago, legionarioak eurak ez al dozuz ikusi, infanteriarik adoretzuen, ondoen ordainduak diran gerrariak, «Viva la muerte!» deardar zoli laburra egin eta zulorik txikerrenean, hormarik edo trabarik ezerezenean euren buruak ezkutetan eta gordeten? Eta luban-zorroen ganetik besoak gorantz jasota agertzen, bestek botariko balaren bat besoan sartzea lortu ezker, ospitalerako hainbat hilabeterako bideak atonduten, ez ete dozu horrelangorik ikusi? Nik bai.

Honetan diharduela, Urkitza agertu da; gaixoei agerraldiak egin bitarteko sartu-urtenean.

— Bat hori, izar biko; beste hori, izar biko. Bota bostekook! Halan be, nik gudoinetan jarraitu izan banau — esan eutsen Urkitzak — orainezkero, kapitanetik gora izango nintzan. Berrezko gatza behar!

— Zera, Santxo, ikusi zindudazan bart Itziarregaz — esan eban Markosek —.

— Hori dok ederra — medikuak zirikari —. Heldu-ala, santuari mun egin.

— Bai, baina hori — gehitu eban Markosek — neure baimenagaz da. Ondo dakizue herriko neskabila guztiak neure begira dagozana. Hemengo mutilik argiena neu izan naiz-ta. Karrera bi hasi nebazan.

— Eta bata be, ez dozu oraindino amaitu, Markos — hasarre samar esan eutson medikuak —.

Garraldak etxaramon egin eta goitik behera begiratu eutsan Eluari. Hau, horrezaz konturatu egin zan, eta

— Parkatu! — generatu eutsan Markosek —.

— Gizabide hobeaz zenduala uste neban. Aitaren eta amaren alperreko ahaleginek errukia emoten deuste. Agur, Urkitza!

Berba honeek ebagi eta Santxo joan egin zan kafetxetik.

Aurkitu dau aurkitu Itziar anbulatorioko ate aurrean.

— Atea berehala itxiko dot. Gero, arratsaldean, ostera be.

— Hor ikusi dot Markos Elua.

— Ta?

— Betikoa. Aho handia. Ez dakit zegaitik zuk... horreri...

— Nik zer?

— Ez dakit horreri zergaitik jaramon egiten deutzazun.

— Jaramon? Ahalik gitxien. Gizalegerik-eza ez erakustearren. Baina, ganerakoan horreri... Inork ezer esan al deutsu?

— Esan, esan... Berbarakoan, Urkitza, bera eta zeu oraintsu ez ete zaree alkarregaz egon?

— Hiru lagun alkarregaz bai. Baina Markos eta ni bakarrik... Tira, tira, Santxo! Zeozer darabizu buruan eta... zer esan ez dakit.

Mutila unetxu batean ixildu egin da. Urrunera begira dago.

— Parke aldera joango al gara, Itziar?

— Bai, ba dago astia, eta goazen.

Eta harantz doazala, mutilak ahopean kantuz dihardu. Gogo bako kantuak dira.

— Tamala da, Santxo, aspaldiko partez hemen alkarregaz egotea, eta betondo ilunez zeu ikusi beharra. Ixileko gauzaren bat ete daukazu, alkarritzeta hau hain ganora barik hotzizuteko?

— Ez, ez nik ixilekorik.

— Zeuk ez ete dozu neskatilekin berbarik egiten? Atzo bertan, biren erdian etorri zintxatazan. Adiskideak dira, baina emakumeak. Nigaz gogo barik bazagoz, ba... ba dakizu.

— Ez dakit. Ez dakit ezer be, txiki.

— Gogoia urrun daukona, hurrean egon arren, urrun balego lez da.

— Artez esan dozu, baina zati bat bakarrik. Gogoia urrun daukona, gogo horren atzetik joateko gertu dago. Hurre egon gurea daukolako, hurrera etorriko da.

— Inor nahastau gurarik zabiltz. Lauretan gaua eginda.

— Ez hasarretu, neure txiki hori.

— Neurea esan dozu. Geldi hor. Ni ez naiz inorena be.

— Hainbesteko ezetza?

— Bakarrik eta aske, bai ederto be! Ai, ai... Ba dakit nik. Batzuk txarto ohituta dagoz. Ekandu bakarra ezagutu dabe. Beti berba gozoa, beti txeratsu... azaletik. Ni, barriz, ez izan horren labana eta koipea.

— Itziar, zirikari hasi dodan barriketean, ez al dozu hasarrebide bihurtuko.

— A, ba... Preminazko izan ezkerro, zergaitik ez?

Santxok eskumako eskua zabalik jarri eta joteko egin ohi dan zemaia zertzen dau, olgetan-benetan.

— Bazter baten bagengoz...

— Ta ganera, inor jo be bai? Ba noa. Ihes egingo dot.

Santxok eskuturretik oratuten deutsu neskatileari, maitekiro.

— Ez ba. Oker zabiltz. Eta ez deutsut ihesik egiten lagako. Zatoz neureganago. Mosutxu bat egingo neuskizu.

— To, to, to, to!

Geroago, ilunabarrean, barruko iturri samurrean sortzen diran urak alkarrri eskeini deutsez, berba gozagoen bitartez.

— Horratino, «bakarrik eta aske, bai ederto be!» adierazo dozu lehen. Ez ete dago beste aurrerapiderik, txiki?

— Hori... geroak esango dau. Ondo portetan bazara, zure «gerrateko amabitxi» izaten jarraituko dot. Osterantzean...

— Osterantzean, zer?

— Zertzeta, burduntzian erreta.

— Aingeru okerra! Eta... gerratea amaitu dadinean...

- Amabixiren preminarik ez da izango, eta... kittu!
- Gaizto hori! Kurrikarako bizarrez orain, e?
- Zeu hasi zara trumon-haizeagaz, eta ekatxa batu dozu.

Teorema garbia.

— Beraz, ona izan beharra dot. Bestela, amabixirik be, ez. Ez da gauza handia, baina...

— Badaezpadako batentzat, nahikoa eta lar.

— Orain, adiskidetuteko... luze luze bat.

— Ez, gaur ez. Ez dozu merezi.

— Bekokian be ez?

— Uuum...

Izar txikertxuek dantzari ziharduen nir-nir urdin baltzaren zelaian, eta haizea, jakinguratxu, ixil eta geldi lotu zan, in-guru hatan zer entzungo.

Izar txikertxuen argi motelpean, gazteon eztabaida usaineko autua, bake haizeak eraginda, aldatu egin da eta gozatu.

Izadiaren bizitzan gauzen sorrerea, kozkontzea eta loratutea ixil-ixilean jazo ohi da. Gizasemearen entzumenarentzat, behinik behin.

Ixil bideetan ixilik doaz bitarteko gaiak, ixilik batzen dira, zaratarik egiteke dihardue.

Unada bakotxak bere neurria, lege berezia emongo deutse gorputzei eta atalei, are txikienei be.

Holantxe izpirituko gauzetan be. Izpiritu bizitzeak bere arauak baldin baditu, maiteminaeren joanereak be, bere eska-riak eta ezarpenak izan.

Akio makio jardungo dau alkarrenganako erakarpen txilina; horraitino, txilin zaratarik bakoa, norberak bai baina beste inork entzuten ez dauana.

Ostera, entzungatx dan txilin horrek ez dau beti doinu bardina kanporatuko. Eguraldiak jarrai ezbardinez nabardura ugari dauan antzera, maitegi-roak be ozkarbi eta goibel, diz-tirak eta lainoak aldarteka erabiliko ditu; aldarteka bere jantziak, begiak, hitzak, sentimenak.

Alabaina, eguzkia biloizik ala estalkiz egunero datorkigun antzean, maitatzaileak, iraun dirauan argi izpitxua gura izango. Eguzkiaren argi izpi bero samarra; edo behintzat, eta ameskoiago, iretargiak bialtzen dakian argi izpi mehe, misteriotsua.



XXVII

Gau batean, jagola zibilen etxe osteko mendiskan tiroak entzun ei ebezela, eta behingoan, alkatearen izenean bandoa aldarrikatu eben.

Etxean inork armarik baldin baeukan, hogetalau ordu baino lehen, jagola zibilen etxera eroan beharko eban. Azkenengo abisua zan.

Ordu horreek joan ondoren, jagolok etxerik etxe, haen bila hasteko aukerea izango eben. Gerratea amaitu ez zanez, gerrateko legepean bizi behar. Esana egoan. Hamar urteko kartzelea edo haren baten irabazteko modua zan, eskopetarik edo pistolarik, etxean edo soloko txabolan edo lantegian edo kobaren baten gorderik eukitea.

Mutil koskorrei kobak eta hartzuloak arakatuteko gogoa biztu jaken. Urliaren aitatik karlistadan gorderiko armak han, zereko koban egozala.

Bilatu egingo ebezan, eta idoro ezkerro, inori be esan be ez. Barriri ixilean gorde... eta hurrengo gerrea eurek hasi, baina irabazteko gerrea, ez galtzekoa. Ez be!

Azokako janarien salketan be, agindu zehatzak emon ziran, gauzak nun eta zelan erakutsi, ezkutauta ezer ez euki, salneurrien mugak, eta abar.

Baserritarrek, euren ortuarien eta laboreen piloak zenbat eta zelakoak ziran, argiro parte emon behar izango eben. Oserantzean zigor gogorrak ezarriko. Arrautzak garestiegi saldu

ebezalako, baserritar eta saltzaile batzuek muntea ordaintzen uri nagosira joan behar izan eben.

Beste alde batetik, urian albista pozgarria entzun zan.

Santiri eta beste batzuei, heriotzepai ordez, hogetamar urteko espetxealdia zertu eutsela.

Gurbiz jaunak zabaldu eutsen barri on hori haren etxekoei beste inork edo inundik baino lehenago.

Egun haetan Gurbizen poza handia izan zan. Gaztetu egin zala zirudian. Berberak, Txominek eta botikarioak eginiko ahaleginek ondoren mesedegarria izan ebelako.

Ordurartekoak nahikoa izan zirala uste eban. Eta aurre-rantzean, kaltebilako joerak baztertu egin behar zirala, makurkeriak ekidin, okerrerako bideak itsutu.

«Aitatxu laster etorriko da etxera» — esan deutso ama Inazik bere bihotzeko zatiari, bere Bittor Joseba tatanari —.

Itxaropena gura, eta ames egin behar.

Bittor Joseba oinez ikasten dabil. Eta hor jausi, hemen jagi, batean negar, bestean barre hor dabil, ibili, tikili takala.

— Egin taka-taka, maitea — dirautso amamak, negarra begian.

— Ta... ta... taaa...!

Eta eskuetan eukan pelotea jausi jako eta bironbolan doa ohe-azpira.

— Ta... taaa!

— Laster joango gara, laztana — orduan amamak — laster, aita ikusten. Aita, aita...

— Ta... ta... taaaa!



XXVIII

Gainbehera joan zan, halangoren batean, gerrate luzea.
Aldi laburrean hasi ta amaitu ustez erasorikoa.

Europa aldeko laterrietan lo egozan, lo gozoan. Alemanek iberialdean erabilen lorrinaz eta saiaketa sakon zabalez, ezjakinik itzelenean.

Ezertan ez sartzeko komitea, azkenean be, horretarako izango zan. Moduren batean zerbait egingo ete eban, baina kakazarra. Jateko apurrak bialdu, eta osakaiak, eta hor konpon.

— «Komite de No» horrek ezer, noiz egingo al dau?

— Oiloek arrautza baltzak erroin dagiezanean.

Horrelango esakunak, historiko bihurtuko ziran.

Halanbeharrak erabiltzan eskuarteak, indarrak, diruak, tresnak eta gizonak.

Batasunak, gerratea irabazi egingo eban.

Arerio guztiak zapalduak izango ziran.

«Euzkadi, esa horrenda palabra...» betirako baztertua izango zan, kantauri itsasertzean dagoan herri zaharraren lurretatik, paperetatik, berbetatik.

Alemanen egazkinak euren gogara ebiltzan Levante aldean, Iparrerago, Mantxa aldean.

Galtzaileak batasunik ezak hondatuko ebazan.

Han egozan Mediterraneoko lurraldeak, zati bitan banan-

duak. Iparraldera joko ete eben gudasailik sendoenek? Ala hegoealdera? Ala Mantxako uri gorenentz?

Estrategakumeek euren zozketak egiten ebezan.

Iparralderantz joteko, ibai bat egoan eragozpen. Ebro zabala muga izatea, hori laster amaituko zan, kosta ala kosta.

Mandoak eta zaldiak guztiak egozan deituta, arean be.

Mutil gaztetxuak eta zaharragoak etxeko ohe epelean lo egiten ohituta egozan. Baina, akabo artoak!

Turuta jo, eta adinez samur ala zaharkil samar ziran mutilak kuarteletara joan beharko eben. Eta handik, aguro gudoinetara. Gerrea zan. Ez egoan errukirik ez bigunkeriarik.

«Hemen gabiltz jo ta su. Benetan su, su... artean — esan entsan Itziarreri bere «besoetako semeak» —.

Ebro, berezko hilobi sakon zabala izango zan.

Izar bateko gazteen hondamena, triskantza ikaragarria.

Han joiazan zulora eurrez alferez gazteak; biberoidun alfe-rezak — izan zan orduan esate orokorra —.

Ez zan alde batekoen eta bestekoen heriotza zenbaki ziu-rrik.

Alabaina, Ebroko burrukea Teruel bigarrena edo txarra-goa. Atzea emon behar jakon gerrate hain luzeari.

Jainkotxuen hasarrea ibituteko, odol ixurpen ikaragarria jasan beharra zan.



XXIX

Amaitu da mendietako, basoetako, itsasoetako eta ibaieta-ko tiroketea, gizonek alkar hiltea.

Bakea opa da, eta gura da.

Eta garaitza egunak argi egin dau garaitzaileentzat.

Arerioa azpiratuta, bezauta geratu da.

Erromatarren urruneko antzereagaz, uri handietan, habe luze zutun zuriak jagierazoko dabez, atxurdinezko kolumna apainak bailirean. Baina zurezkoak dira, barru hutsak, ganean pintura zuriz jantziak.

Lehenengo urte garaitzailea hasiko da. Victor...

Tiroak eta sutanpak amaitu.

Horraitino, lubanetatik oinez aurrera ta aurrera egitean, mutil gazteak hilgo dira, beste lurralde batzuen eta uri batzuen jabe egiterakoan soldauak hilgo dira.

Bonbak dagoz sakabanatuta, eskubonbak oztikopean, bazterretan, leher-minak ezkutauta, eta bat-batean danba ez-tanda egin eta odol opariak gehituko dira. Langile sailtakoek be lan horri ekingo deutse, lehergaiak eta minak batzeari, arrisku eskergako lan bildurgarrietan, bizia hari batetik dindilizka.

Santxok bere urrunikuskinen bitartez ingurueta etxee-

tan eta uritxueta, leihoetan eta teilatueta zapi zuriak, bake-zapiak zabal ikusi ditu eta ugari.

Aurrera ta aurrera doazan oinezko gerrariak ikusiko dabez, ikusiko, bidertzeta, trokaeta, sakoneta gorpu osoak, zatiak, buruak odoluts, beso ebagiak, anka hausiak, eta gorpu batzuek bizirik egozanean bonben danbadakoaren arriskua belarrientzat arinduteko, aginartean zotz txikerrak ebezala.

Lubanetan giza-hazur luzeak, erdi lurpean, erdi agiri.

Urira etorri datoz langile sailetan ibilitako mutil galtzailak. Gudaldia amaitu eta aske datozanak be bai. Garaitzailak, zelanbait esan.

Eta azkenik, apurka apurka, zigor gogorak errime arindu deutsezan epaipetuak. Galtzailak, honeek be.

Gazteak banan banan, eta aldran herriratzeak, biziaren barriztapena ekarri dau. Gizadiari dagokionez, udalehenaren sorgurea eta ernamina dirudi.

Hainbeste mutil eder... zain eukezen neskatila atsekabe-tuekana.

Zerik nabariena, gerratea hasi zanean hamairu hamalau urte eukezan neskatoak, dagoaneko neskatila poxpolin bihurtu dirala. Eta honeei urira mutil gazteak bapatean agertzeak, sekulako zauzkada alai pozgarria egin deutse. Euren adineko doi-doi ziran mutikoetaz ganera, zahartxuago diranen etorre-reak astindu eta ezin egonez jarri ditu.

Beste alde batetik, mutilek be, begiak zabaltzen dabez eta hiru urte lehenago umekondo ziranak kozkondurik ikustean, aukerea ugaritu egin dala-ta, bizi izateko gogoa zuzpeltu egi-ten jake.

Asmoen eremuán lehengo konturik ez dagoan arren, horraitino, herriko semeak eta herriko alabak alkarren auzo eta lagun barriro izaten hasi diran ezkerro, gizadia, loraz edo lorrez, aurrerantza joango.

Gurasoen poza, zer esan bakoa, euren umeak, ume gizon-duk barriren barri etxeko mahaiaren inguruan ikustean, eta

teilape zahar edo erdi zaharrear, lehenago lez, seme-alabak
ohean etzan eta lo egiten ikustean, ez lur gogorrear... Eta inda-
rrez bananduriko senar-emazteak barrero bata bestearen
aurrean, euren etxean... oinaze-aldiak hesituta egon arren,
bizi-indar ezkutukoak biztuko ditu.



XXX

Tiroketeari adinonez ihes egin eutsoen gizon burugin, eurekoi eta azkarrak be, agertu dira urira, eta agertuko. Neutralak, arrainek sare-maila artean lez, arriskua saihestuten dakienak.

Onurea hartzeko unea heltzean, hutsik, hutsik egiten ez dakienak.

Eta halantxe, beste batzuen artean Ladis Elua, Markosen anai gaztena.

Albistea heldu da eta urikoen mihinak aske eta dantzari dabiltz.

—Ladis ei dator.

—Anarkistea? Matxinadaren bat ez ete dau sortuko?

—Ez deutsoe lagako.

—Ezkonduta ei dator.

—Nun bizi izango ete da?

—Eurenean, Eluatarren etxean; bizitza bi dira, behekoa eta goikoa. Anai bi baino ez dira-ta.

—A, ba nengoan, ba.

—Zera, matxinadea esan al dozu?

—Bai, ba; lehengoa baldin bada.

—Esakerea da: Elena, zu beti lehena.

—Horraitinoko...!

Anaieari iragarri eutsan lez, ia hiru urtean aldentuta egoan Ladis Elua agertu da bere jaioterrira, eta euren jaiotetxera.

Ez da bakarrik etorri.

Emakume eder ederra ekarri dau lagun. Bere emaztea.

Azal argia, begi zuriak, ulea gari helduaren koloreko. Atzerrian jaioa, baina gurasoak inguru honetakoak ei ziran.

Eluatarren etxean batu dira barrero be anai biak, anai ez-bardinak.

Urian, emakumeek, harritasunez miretsiko dabe andra gaztearen edertasuna.

Gizonek ez gitxiago. Gustagarria izan, nunbait be.

Senar-emazte heldubarriok kalera alkarregaz doazanean, alboan igarokeran herritarrek burua atzera birau eta bizkarraldera be, begiratu egiten deutse. «Bikote ikusgarriagorik!».

Andra gaztea kalean bera bakarrik dabilenean, gizonek aurretik, albotik eta atzetik begira ta begira jardun ondoren, bat baino gehiago izan da, unetxu batean behintzat, hareri jarraitu gura izan deutsona.

— Hain ederra... eta bakar-bakarrik, aukerea galtzea da, gero!

Adiskideek Ladiseri emaztearekiko alabantza eta gora handiak egin deutsoez.

— Ladis harro harro dabil.

— Ibiliko ez da, ba!

— Erdi anarkistea zala-ta, ikusi egizu zelako aginpiderearen jabe egin dan. Emazte ederra, eta... eskuarte onekoa ei da.

— Euron jantzi dotoreak ikustea baino ez dago.

— Hori esan, ba.

Gizonek be, begiak ez dabez lo eta mihinak mutu euki.

— Ikusi al dozu Ladisek herriratu deuskun...

— Monumentua? Ez egistazu aitatu be egin. Hareri begira egonda bakarrik, zera...

— Iparretako irudi zuria. Sasoi bateko anárkisteak bere gustu onaren erakutsia emon deusku.

— Ba genkian ibilteko modukoa zana, baina...

Berezko jorraketea da, uritxu batean. Zerik txikerrenak izugarrizko zabalkundea izan ohi dau.

Eluatarren etxe sendo bakarraren inguruan inoiz baino la-gun gehiago dabil, ikusgura bihurtuta.

Gizonak, andre zuriaren ederrez begiak asetu guran.

Emakumeak, haren soineko politak, haren usain gozoa hurre-hurretik zertu nahirik.

Domekan izan dau errekestarik handiena, ikusgarritasunik zaratatsuen.

Atsoak be, haxe ikusi beharrez, meza nagosi ostean, Eluatarren etxaurrean eta alboetan autuan, ausaz barriketa garrantzizkoetan geratu dira, eleizatik etxerakoan atsedean preminea baileuen, mantila baltz luzeak buruan, errosario ilunak eskuan.

— Benetan be... Edurretako Andra Marixe dirudi.

— Pariseko eta inguruetako emakumerik ederrena ei da.

Biziak agertu, esaerea danez.

Alabaina, zori baltzean, beste batzuk ez ziran etxeratuko. Soldau hilak.

Eleizako horman, kanpo aldean, harlandua letraz zulatuz ezarri ebezan haen izenak. Ez, oster, guztienak. Arginak bere zintzelagaz lanik izan eban.

Aurre-aurrean burdina-langak jarri ebezan hesi antzera, eta hormearen eta hesiaren lur apatza, mamintsua, eta lur ho-

rretan ereinotz landara gazteak ipini ebezan. Ereinotz landarok lur gozoa aurkitu eta ikusgarriro hazi eta mardotu ziran.

Harik lasterrean, euren adarrez eta orri betierekoz hormako izenak estali ebezan, inoren begirik mindu ez zedin.



XXXI

Herritarrek, bardinketak egiten.

Hori, kalean zan. Ostera, Eluatarren etxean eztabaidak hasi ziran.

Ladis urira ta etxera agertu izanak, ez eutsan haren anai Markos Elua teniente jaunari, ezetariko poztasunik ekarri.

«Lehenengo ta bat, anai zintzo bat etxeratzea barik, seme hondatzailea baino izan ez dalako, kargea dan lagun bat edo kentzaile bat etorri jat etxera».

Gurasoengandiko ondasunak egon egozan. Paperik ez, ostera; paperik ez.

Aitak ez eban testamenturik egin. Amak be, ez.

«Hiru urte inguru — eta lehen inoiz bai, ala? — etxeari ondasunik ekarri ez deutson semea, bila dator. Bila, ezer ekartek. Ez ete dago ordezkotze biderik?... Bai, ekarri, bai; nahastea dakar, lorra dakar ekarri».

Markosek, nagosia dalako, nagosi izan behar dau etxean. Anarkistarik ez dau orain behar. Ohi dan etxauntzea, nagusigoa.

«Neu izan naiz hemen erle langilea; kurumino alferrik ez dogu hemen behar. Etxe honetako arra neu izan naiz, eta izango be. Han, Barcelonan gerrate aurrean gure herrikide «Biskai» eritxoena, Criollan eta Sacristanan, nesken etxeetan txu-

lo bakarra izan zan antzera. Gazte honek, bere jardute-moduari adi, gerriaren inguruan eta biran bere azala ebagi eta odole-tan jarten ebanean, han jirabiran ibilten ziran gizaseme atze-zaleak nabarmen izututen eta ikaratzen ebazan, abisu-deia halango orrua izanik: «Biskai dator! Biskai dator!» eta dardaraka ihes egiten eben. «Biskai dator, odoletan...!» oihu horrek astinduten ebazan ingurumeneko maritxu guztiak...».

«... Bai, ekarri bai. Emakume eder zoragarria ekarri dau etxe honetara. Herrian antzekorik be ez dauka.

Behar bada, gurasoen ondasunen banaketan zati txikerren bat emon negio Ladiseri. Ez dau merezi, baina, tira!

Banandu dagiguzan ba, ondasunok.

—Nik, hemen daukadana; eta zuk, Ladis, ba...

Proposamen hau egingo deusat nik. Argitu dagiguzan eta azaldu, bakotxak bere ondasunak eta irabaziak. Eta preminarik baldin badozu, konponduko gara».

Anai biok, sekulakoak esan eutsezan alkarri.

—Entzun dozu, Ladis, eta emazteari adierazo egiozu etxe hau izatez, neurea dala. Horraitino, konponbideak gizonen eskuetan dagoz.

Eta ausaz, nork daki...



XXXII

Arazoren batzuk argituteko, Ladis eguerdi ostean Bilbora joan da. Iluntzerako bihurtuko. Haren emaztea, Ezkaine zoragarria, urian lotu da oraingoan.

Eluatarrenean, andra sasoiko batek dihardu sukaldean tresnak garbituten, harrikoa egiten. Geroago, etxea koponduten ibiliko da.

Egun sargorea dago. Bero.

Arratsalde leheneko orduak joan doaz.

Markosek etxeko bere despatxuan irakurten dihardu.

Gerogarrenean, jantzi militarari begira dago.

Militar izaten jarraitu ala ez, zalantzak ditu. Jarraitze ezkerro, hirugarren izar txikerra behingoan lortuko leukela uste dau. Eta geroago, sei puntako izar handi bakarra, laster, ziur asko.

Horman zintzilik dagoan eta klik klak egiten dauan erlojuari begiratzen deutso noizean behin.

Galtzak soinean eta alkondara hutsean dago, honen besoak tolestuta.

Sukaldera doa, eta andra zerbitzariari mandatu bat emoten deutso.

— Zera... Zoaz botikara, eta ekarri egidazu errezeta paper honek dinoana.

— Enel... Baina, berandu ez ete da? Ganera, hemengo hurrekoa itxita dago. Urrunekora joan behar izango dot. Edegita egongo ete da?

— ...!

«Hoba. Zenbat eta urrunago...».

Etxeko lanak bertan behera laga, kalerako soinekoa jantzi, papertxua eskuan hartu eta andra zerbitzaria joan doa kalera.

— Ez dozu arineketan zetan ibilirik — dirautso Markosek —. Bakarrik egongo naiz, baina ez deutso ardurarik.

— Ez. Ezkaine be, etxean jagotzu.

— Hara...! Ez nekian... ez nekian...

— Bai, euren gelan dago.

«Ba nekian eta ba dakit hori, andratxua, zuk esan barik be».

Branga! Ate-hotsa, andra sasoikoa kalera joan danean.

Dana ixilik Eluatarren etxean, lau aldetara bistak dituan etxe jasekoan. Aurre osoa harlanduzkoa dau, hare-harrizkoa, urrezko dirudiala.

Lehenengo oinean, erdian, balkoe luzea, alderen alde horenbatean hedatua, burdina landuzkoa. Bigarreanean, hiru balkoe txiki. Orain ez da hor inor bizi, hutsik edo dago.

Etxe bakarra da, alboetan eta atzean be, leiho ugari.

Barruan egur onak, zuleri bikaina, eskailera zabala. Eta alfonbrak; eta errezel finak, eta baita lodi sendoak be, barrurago.

Goizean baino be, beroago dago. Eguraldi errea.

Markos andra gaztearen gela-aurrera doa, eta dei egiten deutso, gozo gozo:

— Ezkaine!.. Ezkain...

Ez dago erantzunik.

Ateraino joan eta atea kax-kax jo deutso eta barriro dei egin:

— Ezkaineel!..

— Nor da?

— Neu; Markos. Duda batzuk dodaz, zera, frantses itzulpen hau egiteko, eta mesedez...

— Oraintxe.

Ezkainek atea edegi dau.

Gelako jantziz dago, soineko arinez. Paparreko eskote zabalak titiak erdi biloizik lagaten deutoz.

Markosek, hiztegi txiker lodikote bat eskuan, bestela baitakoan goitik behera begiratzten deuto eta behetik gora. Mutilari ezkon-arrebearen bular-arteak ikusmena erakarten deuto.

— Hiztegi honetan, hitzen esangura batzuk ez dagoz zehatz, ez dagoz argi, nire ustez. Eta ganera, berba be egin behar dogu. Zera...

— Zelango berbea?

Markos ez dago hiztegiari begira, madamearen bularralde guriari baino.

— Ladisek ez al deutsu esan... ondasunetaz berba egin behar dogunik? Haregaz argiro jardun dot. Baina zugaz...

Arnas estu arina langoa jatorko Markoseri. Aragiaren gri-neak ekarri ohi dauana.

— Inork zertu barik, bakarrik gagoz eta... azkar azkar... makurrean egin behar dogu.

— ...!

— Biok.

Eta emeak hobeto ulertu degion, eskoiko eskua ukabil bihurtu eta gizonak ohi daben lizun-zeinua egin dau.

Konkortuta geratu da Ezkaine. Berba barik, bekokia ilun, begiak izu.

Horraitino, burutasun bat jatorko, tximistearen antzera.

Markoseri eskuan daukan hiztegitxu potolo aitxaki bidea blaust! jausi jako lurrera, era bage, anka zabal antzean.

— A, orduan... garbitu...

— Ez, ez. Nigaitik ez. Bardin jat.

— Baaa! Itxaron apurtxu batean...

Bizkor doa Ezkaine norabaitera. Bizkorrago dator. Markos, gela barruan, alkondarea erantzita praka hutsean dago.

Bata lodi bat soinean, ganera jatorko Ezkaine, burduntzi luze punta zorrotza eskuan, suak hartuta.

— Garbitu... zeu garbituko zaitut!!!, — amurruzko deadar zolia egin deutso, eta tresna horren musturra aurrerantza dauala abiadan doa koinatuarengana —. Zeure sabelean trin-tze egingo deutsut, lizun horri!

Teniente harroa ikaratu da eta albokerantz egin dau, zezenaren adarkadeari ihes egiteko ohi dan lez, arriskua saihestuteko, itsumustuan. Eta gelatik esturaz urten eta iragangoan zehar doa, erbia baino arinago.

Emakumeak ez deutso parkatu; atzetik joako aldarrika barriro be, eta Markos bere gelaratu da eta brast! atea barrutik itxi dau trangatxuagaz.

— Zantar halako hori! Leihotik deadar egingo dot, sokorru eske.

— Ez, ez, mesedez; ez! — erantzun deutso gela barrutik —.

— Zibiletara noake eta alkatearengana.

— Ez, ez; arren, ez, ez!...

— Orduan, zeu joango zara kalera, oraintxe bertan. Eta barriro agertzen bazara, garbitu egingo zaitut. Jakin egizu!

— Bai, jantzi eta kalera noake. Baina, zu... ixilik, e? Txan-txetan izan da-ta.

— Guzurra ganera! Zirtzil hori!...

Ezkaine arineketan bere gelara bihurtu da, eta ateari barruko maratilea sendo ezarri deutso. Adi-adi dago gela barruan, belarriak zuhur. Zer gertako, kalerako leiho zabala edegi egin dau.

Harik ezebezean Markosen oinkadak entzun ditu, eta etxebizitzako atearen danbada gogorra. Eskaileretan behera pusu-hotsa.

Etxeke ateta aderrera heltzeko dagoanean, andratxu zerbitzariagaz topez egin dau, botika potixa eskuan.

— Ene jauna, ba doa ba...?

— Bai, kanpora joan behar dot. Zoaz geroago zeure etxera,

eta etorri zaitez bihar, bestetako sasoian. Hemen egongo naiz.

— Eutsi, ba, potixau.

— Goian laga egizu, neure zerean.

Eta txerrenak daroan arimea lez, Markos kalean zehar doa. Haizea baino azkarrago galdu da atzetik begira egon jakon andratxuaren ikusmenean.

— Ene ba! Bai kolore zuria eta begi urtenak! Bai,... ez dago ondo, kontixu. Horraitino botika zera, berak eroan barik, hemen laga dagidan diraust...? Gabaz hartzeko edo...

Andra erdi harrituak, etxera danean, jaun gaztearen emazteari dei samurra egin deutso.

— Zera... Markos atetan ikusi dot, arrapaladan doala, eta haren arpegi zurbila ikusita, erdi bildurrez...

— Erdi bildur? — dirautso, ordurako zeharo baretuta, Ezkainek —. Bildurra ta ikarea ta iguina izan dodazana neu naiz, Markos dala ta ez dala.

— Larria egin al jako?

Ixilunea gerta da. Ezkainek, buruari eraginez, horrelangorik ezetz adierazo gura deutsal, uste izan dau zerbitzariak.

Horraitino, Ezkainek, beste zerau dirautsala ulertzen dau: «harek nigaz...», arean bere, atzapar erakusleagaz egin deutson aldi biko zeinuan.

Andratxuak urteak daukoz, eta

— Ezkaine, ez da izango baina... emakumearengandik emakumearengana berba eginez... harek zu... gogorrean...

— Bai. Buruan darabiltzuna haren guraria izan da. Alperrik, ostera.

— Izenak, izana. Markos zantar, Markos zulo...!

— Ez deust, alabaina, gorputzean ikuturik egin. Izutu dot bera bel

— Zegaz?

— Burduntzi zorrotzagaz. Hor daukazu.

Gauak etxera dakar Ladis. Pozez dator.

Emazte ederra laztandu dau. Ezkaine negarrez hasi jako.

- Zeeer?
 — Alde egin dagigun etxe honetatik, Ladis. Betiko!
 Ladis inguruetara begira jarri da. Hor datza burduntzia,
 dizdiratsu eta zorrotz.
 — ...Markosek zu...
 — Bai, gura bai. Baina ez. Horixe eskuan hartu dot eta sa-
 belean sartzeko arrapaladan joan natxako. Ez deust ikuturik
 egin.
 — Ezkaine neurea!

- Egunak bere begiaren argia zeharo ilundu dau.
 Uriko kaleetan ixiltasuna da nagusi.
 Lotarako ordua dabe Ladisek eta bere emazteak. Etxean ez
 da beste inor. Horraitino, norbait ate joka. Ateak trangea jarri-
 ta dauko.
 — Nor da — dino Ladisek, duda ta amurru antzez —.
 — Jagola zibila.
 Ladisek atea edegi deutse eta bertatik adierazo:
 — Jakin egizue frantses laterritasuna dodala. Ikusi gura
 badozue...
 — Ez. Hauxe da dakargun mezua. Markos Elua jaunaren
 eskariz eta aginduz, zera... etxe hau, egunsentiaz batera, hu-
 tsik geratu behar izango dala.
 — Ladis Elua naiz ni, Markosen anaiea, eta ha bera baizen
 etxeko jauna naiz ni hemen. Halan be, entzun dot zuon mezua.
 Besterik ezer?
 — Paperik gura al dozu?
 — Bai, emon egistazue paper hori. Hauxe da nire erantzun-
 na: Bihar egun sentian etxe hau, gure aldetik, hutsik geratuko
 dala.
 — Gure zeregina amaitu da. Gabon!
 — Nirea be, laster amaituko da. Gabon, jaunok!
 Joan dira joan jagola zibilak. Berandu da.

Ohe zabalean, gau ilunean, itzartu da gizonezkoa.
Albokoari ziri egiten deutso, alboan lo sorroan dagoan emakumeari.

— Zu...! Itzartu zaitez, eta bizkortu.

Arrausi luzea ta galanta egin dau ule txortadunak, eta ba dirautso:

— Aiko! Ilun dago oraindino. Zer gura dozu?

— Barriro laztandu gura zaitut. Laztanaldi osoa, besarkanda betea. Eta... ba dakizu...

— Ostera be?

— Pello Errotaren alabearen antzekoa ez baizinan, Maru. Hamaika buz...

— Eta zeu nor zara, ba! Markos zulozale zantar hori...!

Eta barriro be alkartzeko eran jarten hasi diranean, kalean berbaroa, zurrumurrua, jentearen barriketak eta aldarriak entzuten dabez. Gero ta zaratatsuago, ozenago diran berbak.

— Zeozer jazoten da, Markos. Joan egin beharko dogu, gizona, zer dan edo zer ez dan.

— Baina...

Horraitino, jagi eta jantzi da Markos Elua. Hasarre dago. Goizegi jagitea ez da bapere atsegingarri.

Kaleetan berbetea gero ta ugariagoa. Joan doaz lagunak. Batzuk azkar, beste batzuk astiroago.

Maru Mosumerke be jagi da eta leihora doa itaunka has-teko.

Markos be, kaleratu da. Kale estu-estu haretatik arin ihes egin dau kale zabalagorantz. Jente piloagaz nahastau da, pertsonen uriolean murgildu bailitzan.

Kaleko hormetako farolen argi motelek nor nor dan bereizten ez dabe askorik laguntzen.

Hego haizeko giro berezian, zeruan gorriune handia, zabal-la.

— Nun da? — galdetzen deutse herritarrek alkarri —.

— Nun da... zeeer? — dino erdi lotan eta ahots aldatuz, Markosek —.

— Sua. Ez al dozu ikusten zeruan gorriune ikaragarri hori? Han, behe aldean, dirudi.

— Uriko tokirik onenean.

Eta bizkor doaz, gizon eta andrazko, laguntzeko prest, edo behintzat, noizean behin baino jazoten ez dana ikusteko garramuraz.

Markos be hor doa, gero ta bizkorrago doa, gau emakumetsuaren ostean, halanbeharrez goiztar bihurturik.

«Baina ez, ez. Ez! Uxatu dagidazan buruera zoroak. Harrek...?».

Geroago bizkorrago, geroago... Eta horra! hor dago...

Sutan dagoana etxe bakarra da.

Leiho guztietatik su-garrak, herensugearen mihin gorri gorriak bailirean, horma baltzituak miazketan, miazketan. Teila-tu ganetik zerurantz erreturarik ikusgarriena.

Kea, ke-usaina, eta egur ederrak erretean entzungarri dan txipirri txaparra zarata lazgarria. Abeak eta teilak jaustean blastadak eta klinkadak...

— Eluatarren etxea, etxe jasekoa.

— Barrukoak erre egin ete dira?

— Harako emakume ederra ta...?

«Uxela» — erantzun deutso, ahopean oster, Markosek —.

Ladisek ekarri eban beribila ez egoan urian.

Harik lasterrean, ekanduari jarrai, bertsoak atara eutsoezan etxe erreari.

Hora hemen hasierakoak:

Zer gura izan dozu,

Markos Elua?

— Ezkon-arrebearen
karamelua..

— Ez dozu orbanduko
haren dedua.
Lau horma hutsetan zuk
bizilekua;
lau horma hutsetan, bai,
Markos Elua.



XXXIII

Iruña bere uri zaharrear ondoezak hartu dau Garralda zaharra. Artean, Santxok, haren seme gaztenak, karrera militarra ez dau bere bizimodutzat aukeratu. Ez joako bere barruari, sorgor antzeko bihurtzea dan biziera hori. Gizonaren askatasuna hainbestean lotuten dauan bizibide hori.

Santxok eta bere adiskide batek baltsu bat eratu dabe. Euren jardukizuna, gauza jakin batzuen banaketea eta salketea izango da. Lantegi handi batzuetan eginiko gauzak. Ahal dala, estraperlorik bage. Honelan jokatzeta errez ez dan arren.

Salgaiok, Nafarroan bertan eta ezker-eskoiko lurraldeetan bananduko dabez.

Harako Santxo Azkarraren aldiko lurraldeetan edo, baina bake-soinuan, diru-tratuan soilik.

— Oraindino zuri, etxeko txikien horri, inoiz esan bakoa agertu behar deutsut.

— Zer, aita?

— Bai, Santxo. Itziar neskatila zintzoa ta jasekoa zana, adinonez jakin neban, zerak esanda...

— Nire anaieak?

— Batez be... Maribelek. Dama Susanari be, beste hainbeste entzunik nengoan.

— Baina, aita... Itziarregaz hasi baino lehen, niri, beste norbait jatan guztiz...

— Atsegin eta begiko. Ba nekian hori, be.

— Orduan inondik be ulertu ez nebana, zuk zeuk iluntze batean, esan gura ta esan ez gura antzean, ben-ben adierazo zeustana izan zan; «Maribel Madrilerera joango da laster. Zu, Santxo, Iruñara neugaz datorren astean».

— Maribelegaz zeharo birloratuta ikusten zindudazan-eta...

— Horregaitik bai, gero? Zuk jakin zenkian haren senar-geia Jokin zana; baina... misterioa zan. Nun egoan Jokin?

Gatxaren lorrak apaldu eta nekatu egiten dau Garralda zaharra. Arnas estua jatorko unerik unera.

— Nun egoan Jokin? Nun edo han. Baina Maribel berbea emona egoan... eta geroago mingarriago izan ez ekizun, brast! esan egin neutsun, bion artean hesi edo langa sendoa jarten nebalakoan.

— Aita, horrelan ba, zu, Maribelen aingeru jagolea zinan, eta ni... txerren zirikalaria.

— Ez horrenbeste, seme.

Aita eztulka hasi da eta alkarrizketa jakingarrian ixilunea gerta da.

— Aldi batean, uri haretan zelatariak izan nebazan. Gal-tzaileeen aldeko ziran neskatilekin ibiltzen nintzala-ta, sala-kuntzak be egin. Eta gero, horra! aita maite neurea, nire zelata-ri gerta.

— Jakin egizu zio barik izan ez zala.

— Jakin, bai... Jokin!

— Jolaserako bizarra daukazu, eta honelantxe, hoba. Gato-zan harira. Zio barik ez, esan dot. Horraitino ez zio bat, bi ego-zan hor.

— Maribel nigaz konpondu ezkerro, Jokin... hainbarik gera-tzen zala. Zio bakarra.

— Bigarren zioa... Birritan senitarteko gertetea izango zala.

— Birritan senitarteko?

— Bai, ba.

— Ez dot tautik be ulertzen.

— Hauxe da ixilekoa. Maribelen aita, neure anai gaztea izan zan.

— ...!!

— Bai, laztana. Nire anai Boni eta biok, gaztetan, han ibili izan ginan udaldi batzuetan. Azkenen egon ginean urtean Boni gaztetako hobena egin eban. Gauzak artez jarteko pape-
rak egiten hasteko egoanean, goiz batean haize gogorraren pu-
tzaldi zakarrak gure etxaurreko horma luzea bota eban eta
Boni azpian hartu. Gizajoa hil egin zan. Geroago, bere sasoi-
an, Bailestegi dama gazteak alabatxu bat ekarri eban mundura.

— Maribel?

— Bai.

— Eta dama Susana...

— Eta Isabel, dama zoritzarrekoa, harik lasterrean hil.

— Maribel, nire lehengusinea, beraz?

— Izatez, bai.

Garralda zaharra ixildu egin da. Nekatu samar datza.

«Lehengusu lehengusinak ginan...! Hortik genduan guk
biok, gazte arruntek alkarreganantz daben erakarpenaz ga-
nera, beste lotura hori geunkan. Odolaren lotzeikia, jatorriz-
ko atxikidurea. Maribel nire lehengusinea izan, eta nik ez
jakin».

— Aita, berberton jatort gomutara, han Gurbiz jaunak ba-
hean zehar esan eustana...

— Zer, gero?

— ... eta ixildu eustana. Honeek dozuz gitxi goiti beheti ha-
ren berbak: «Aldikada batean, ni orduan urte batzuetan kan-
poan ibili nintzan, Garraldatarrak hemen ibiltzen ziran, uda-

uneetan. Mutil morroskoak, sagardaotegietan ibiltzen ziran, pe-
lotaka eta dantzan egiten eben. Jenté alai, euskaldun nafar
jatorrak». Eta Gurbizek, azkenean esan hauxe amaitu bage
laga eustan: «Bai, entzutea zan...».

— Entzutea zan... Gurbiz jauna zuhurra izan! Zuk ezer ez
zenkiala susmau, eta ixildu. Ziur nago.

— Ba leiteke.

— Eta orain, Santxo, beste zertxu bat. Ba ete dakizu, tro-
pak han sartu ziranean eta Itziarren aita Zumel jauna hil za-
nean, Jokin nora joan zan eta nun geratu zan?

— Bilbo alderantz joan zalakoa, edo.

— Ez. Txomintxurenean.

—...!

— Bilbo hartu eta handik geroetan, dama Susanagaz eta
Maribelegaz haraxe joan zan Jokin.

— A! Horregaitik Txominek berba gitxi niri. Ixileko ixilean
ixildu beharrez!... Txomin, Zumelen adiskide kutuna. Baina,
atzerantz jota, Maribel jaio ondoren, zer?...

— Dama Susana, haren izeko ona, benetako ama izan da
umezurtz oso gelditu zan Maribelentzat. Maribel Madrilen jaio
zan eta hantxe bizi be, udaldietan honantz etorri arren. Gerra-
teak Donostian harrapau ebazan izeko-lobak. Zeharkerakoan
bada be, lagundu izan deusagu Maribeleri.

—...!

«Egunen batean, Santxo, hainbat gauza jakingo dozuz»
— esan eustan Maribeleg behinola».

Ixilunearen ostean, seme gaztenak, bakarrik bailegoan,
berbak garanduten dihardu, baina aitak argi-argiro entzuteko
moduan:

«Maribel, Itziar, Jokin, Santxo... Zumel bi eta... izatez Ga-
rralda bi. Haek Madrilen eta gu Iruñan».

Aitak, arin-arin dirautso:

— Eta, zegaitik ez guztiok hemen, seme? Gure Nafarroa,
erabatean gure Euskalerrria indartu egin behar dozue, gazte
guztiok batuta euskaldun iraunerazo. Gu joan arren, bihar

etzi Zumel landarak, Garralda kumak... Bertsolari giputzak
esana, gogoan izan egizue:

«Jaioko dira berriyak;
gu gera euskalerriyak».

ATZENA

Aurkibidea

Sarrera.....	7	Atalak: XVI.....	104
		XVII.....	109
		XVIII.....	112
Atalak: I.....	17	XIX.....	118
II.....	25	XX.....	123
III.....	37	XXI.....	125
IV.....	45	XXII.....	127
V.....	50	XXIII.....	130
VI.....	53	XXIV.....	133
VII.....	65	XXV.....	137
VIII.....	71	XXVI.....	139
IX.....	74	XXVII.....	146
X.....	78	XXVIII.....	148
XI.....	82	XXIX.....	150
XII.....	84	XXX.....	153
XIII.....	94	XXXI.....	157
XIV.....	98	XXXII.....	159
XV.....	101	XXXIII.....	168

LABAYRU-IKASTEGIA

BIBLIOTEKA - DERIO

Sarr 3037/89

Gaia.

Tokia.

SUTONDOAN SORTA

1. EGUNEKOA
Ebaristo Bustinza «Kirikiño»
Aurkezpena: F. J. Perea y J. M. Agirre
2. JOSETXO
José Manuel Etxeita
Aurkezpena: Aitor Etxebarria - Adolfo Arejita.
3. AZALPENAK
Urkiaga'tar Estepan «Lauaxeta»
Aurkezpena: Jon Kortazar.
4. BERTOLDA TA BERTOLDIN
G. C. della Croce - Otxolua
Aurkezpena: Adolfo Arejita.
5. JAIOKO DIRA
Eusebio Erkiaga

Agertzekotan

EDO GEUK EDO IÑOK EZ
Euskararen alde
Ebaristo Bustinza «Kirikiño»

KRESALA
Txomin Agirre

AUÑAMENDIKO LOREA
Txomin Agirre

IZLAUZKO BILDUMA
R. M. Azkue